

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



**KAZETARITZA GRADUA
IKASTURTEA 2015-2016**

2016 Urtarrilaren 30ean Donostian

**BERTSO
EGUNA**

12:00 SAIO MUSIKATUA
Kursaal aurreko Picachilla garagaridotegian

18:00 EKITALDI NAGUSIA
Kursaaleko Areto Nagusian

21:00 AFARIA eta FESTA
Kursaalen

BERTSO EGUNA 2016:
**BERTSO-IKUSKIZUNA ETA
GENERO-IKUSPEGIA**

EGILEA: Nerea Ibarzabal
ZUZENDARIA: Iratxe Retolaza

2016ko ekainaren 3an

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan esparru hauek uztartu dira: bertsolaritza, hedabideak eta Genero Ikasketak. Hiru esparru horien bidegurutzean, 2016ko Bertso Egunaren genero-irakurketa bat egitea du helburu ikerlanak. Genero-azterketa egiteko, bertso-emanaldiaren hiru alderdi nagusi aztertu dira: batetik, antolakuntzak hartutako erabakiak aztertu dira; bestetik, bertsolarien bertso-jardunaren inguruko gogoeta egin da; eta azkenik, EITBk eginiko ikus-entzunezko ekoizpena izan da hizpide. Alderdi horien analisisa egiteko lau urrats nagusi egin dira: lehenik, Bertso Egunaren inguruko dokumentazio-lana osatu da; bigarrenik, bertso-egoeren, bertso-jardunaren, eta ikus-entzunezkoaren deskripzioa egin da; hirugarrenik, deskripzioan xehaturiko ezaugarrien interpretazioa egin da, atalez atal; eta laugarrenik, atal guztien ezaugarriak kontuan harturik, ondorio orokor zenbait garatu dira.

Gako-hitzak: bertsolaritza, Bertso Eguna, generoa, ikus-entzunezko komunikazioa, lidertza, kolektibotasuna.

ABSTRACT

The present Final Degree Project combines the following dimensions: *bertsolaritza* (Basque improvised poetry), media and Gender Studies. Based on such dimensions, this research aims at making a cross-functional interpretation of the *Bertso Eguna 2016* (Day of the Basque Improvised Poetry 2016). In order to analyze gender-perspective, three main areas were studied around the bertso-performance: on the one hand, decisions made by the organizers were examined; on the other, the speech of the bertso-singers was considered; finally, the audiovisual production made by EITB (Basque Radio-television) was evaluated. The analysis of these aspects was made on four major steps: Firstly, documentation-work around the *Bertso-Eguna* was completed; secondly, improvisation topics and circumstances, improvisation speeches and its audiovisuals were described; thirdly, characteristics detailed in descriptions were interpreted, part by part; finally, considering the characteristics of all the parts, general conclusions were achieved.

Key words: *bertsolaritza* [Basque improvised poetry], *Bertso-Eguna*, gender, audiovisual communication, leadership, collectiveness.

AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	4
1. MARKO TEORIKO-METODOLOGIKOA.....	5
1.1. Bertsolaritza eta Genero Ikasketak: aurrekariak.....	5
1.2. Bertsozale Elkartea: Genero Taldea.....	8
1.3. Bertsolaritza eta genero-ikuspegia.....	11
1.3.1. Gorputza eta bertsoaren performantzea.....	11
1.3.2. Gaitegia eta gai-jartzaileak.....	15
1.3.3. Kolektibotasuna eta ordezkartza.....	21
1.4. Metodologia: bertso-ekitaldiaren ikus-entzunezkoa aztergai.....	27
2. BERTSO EGUNA 2016: GENERO-IKUSPEGIAREN AZTERKETA.....	29
2.1. Bertso Eguna 2016: aurkezpen orokorra.....	29
2.2. Bertso-ekitaldiaren deskripzioa.....	31
2.3. Bertso-ikuskitza eta genero-ikuspegia.....	31
2.3.1. Genero-ikuspegia antolatzaileen erabakietan.....	31
2.3.2. Bertsolaritzaren definizioa: burua eta gorputza.....	33
2.3.3. Genero-markadun gaiak eta bertsoak.....	38
2.3.4. Bertsolarien gorputzen arteko harremana ikus-entzunezkoan.....	43
3. ONDORIOA.....	51
3.1. Ekitaldiaren antolakuntzak harturiko erabakiak.....	51
3.1.1. Oholtzaren antolaketa.....	51
3.1.2. Gaiak.....	51
3.2. Bertso-jarduna.....	52
3.3. Bertso-ikuskitza: EITBren emankitza.....	53
3.4. Azken gogoetak.....	54
4. BIBLIOGRAFIA.....	55
5. ERANSKINAK.....	58
5. I. ERANSKINA. Bertso Eguna 2016: bertso-ikuskitzaren azterketa.....	59
5. II. ERANSKINA. Bertsoen zerrenda.....	67
5. III. ERANSKINA. Jon Agirresaroberi elkarrizketa.....	85
5. IV. ERANSKINA. Oihana Iguarani elkarrizketa.....	90
5. V. ERANSKINA. Izarne Zelaiari elkarrizketa.....	93
5. VI. ERANSKINA. Bertsozale Elkarteko dokumentazioa.....	97
5. VII. ERANSKINA. Erreportajea.....	111

0. SARRERA

Bertsolaritza eta hedabideak bateratzen dituen gaia aukeratzea arlo hauenganako interes pertsonalaren ondorio izan da, hein handi batean. Biak nahiko gertutik ezagutzeko eta esperimentatzeko aukera izan dut azken urteotan.

Bi bide horiei jarraituz, EITBk emititzen duen Bertso Eguneko arratsaldeko ekitaldi nagusia aztertzea erabaki nuen. Ikuskizun hori, bereziki, ikuspuntu ugaritatik bizi izan dut –antolatzailearen, publikoaren eta bertsolariaren azaletik sentitu dut Kursala gainezka–, eta horrek saio osoaren irudi orokorra ulertzea erraztuko zidala pentsatu nuen.

Bideoa ikusi nuen lehen aldian, ordea, emakume bertsolarien kopuru murrizta egin zitzaidan deigarriena, beste ezeren aurretik: bi baino ez ziren, hamarretik. 2014ko Bertso Eguna osotasunean generoari eskaini zitzaiola jakinda, aurtengoarekin harritu xamarrik geratu nintzen, eta neure buruari egindako galdera hau izan da Gradu Amaierako Lan honen abiapuntua: “Aurten, ekitaldi nagusia antolatzerakoan ez al da kontuan hartu genero-ikuspegia?”. Hain zuzen ere, galdera horri erantzutea du helburu ikerlan honek.

2016ko Bertso Eguneko ekitaldi nagusiaren genero-analisia egiteko, hiru atal nagusi aztertu dira: batetik, antolatzaileen erabakiak, ikuskizunaren formari, gaiei eta bertsolarien aukeraketari dagokienez; bestetik, bertsolarien jarduna eta bertsoen mezua; eta azkenik, EITBren errealizazioa, bertsolari bakoitzarekin erabilitako planoak, angeluazioak eta kameraren mugimenduak interpretatze aldera.

1. MARKO TEORIKO-METODOLOGIKOA

1.1. Bertsolaritza eta Genero Ikasketak: aurrekariak

Genero-ikuspegia gizarteko arlo kultural eta sozial askoren baitan txertatu da azken hamarkadan, eta bertsolaritza da eboluzio horren adibide behinenetako bat. Bai Bertsozale Elkarteak berak sustatutako ekimenek, bai bertsolari eta bertsozaleek agerturiko interes pertsonalek egin dute aldaketa hori posible. Interes horrek bultzatuta egin dira, hain zuzen, hainbeste aurrerapen bertsolaritza eta generoa uztartzen diren ikerketen esparruan. Aurrekarien artean, honako ikerketa-ildo hauek izan dira nagusi: ahozko jardun honen historiaren berrikusketa, gorpuztasunaren azterketa eta espazio publikoaren okupazioaren inguruko gogoeta.

Carmen Larrañagaren eta Jone Miren Hernándezen ikerketei esker, historiak isildutako zenbait emakume bertsolariren izenak eta istorioak berreskuratu ditu bertsolaritzak: horien artean daude Sancha Ochoa de Ozaeta, Bizenta Mogel, De la Cruz, *Bilintxek* aipatutako Joxepa, Marie Argain de Cambó eta Maria Echegaray de Hasparr ¹ (Larrañaga, 1997: 61-63, aipatua in Hernández, 2014a: 141). Baina emakumeen genealogia hutsunez beteta aurkitu dute ikertzaileek, narrazio oso bat eratzeko datu nahikorik gabe. Bertsolaritzaren ibilbidea, garapena eta memoria bereziki gizonezkoekin osatua izan da.

Hernándezen iritziz (2014a) paradoxikoa zera da: bertsolaritzari buruzko lehen aipamenak emakumeei egiten diela erreferentzia, XV. mendeko emakume eresi-egileei, hain zuzen ere. Eresi-egileek hitza espazio publikoetan hartzen zuten, eta hori arriskutsua zen nonbait, izan ere, Bizkaiko Foruak bere jarduna eta parte-hartze publikoa debekatu baitzuen 1452an. Ez da kasualitatea eremu publikoan kantatzen duten emakumeei buruzko lehen aipamena debeku bat izatea. Ez dakigu zehazki zerk eragin zuen debeku hori, baina ondo ezagutzen dugu horren hartzaileak zeintzuk ziren: herriz herri, azokaz azoka zebiltzan emakumeak. Fama txarreko emakumeak, emakume xumeak, saltzaileak, zirikatzaileak, umoretsuak, alaiak. Bat-bateko bertsoak erabiliz, burla egiten omen zuten publikoki. Eta kasu honi dagokionez, ziur aski, lanbidea baino lantokia bilakatu zen susmagarri. Gizonezkoen diskurtsoek agintzen

¹¹ Jakina, Larrañagaren eta Hernándezen ikerketek asko zor diete euskal kulturaren eta literaturaren inguruan beste hainbat ikertzailek egindako lan eskergari: besteak beste, Xabier Kaltzakortak Erdi Aroko kantu eta bertso zaharrak bildu eta aztertu ditu; edo Xabier Altzibarrek Bizenta Mogelen ekarpenak bildu eta aztertu ditu.

zuten tokietan, plazetan, kalean nahiz garaiko botere ofizialaren tokietan (elizan...) ez zegoen lekurik emakumeek hitza hartzeko. Hori dela eta, legeek eta arauk bere lana egin zuten emakumeen hitza ezabatu eta baztertzeko (Hernández, 2006-2007: 62).

XIX. mendera arte ez da emakume bertsolarien presentzia berreskuratuko, eta bertsolaritza modernoan XX. mendera arte itxaron beharko da emakume bat gizonezkoekin oholta gainean ikusteko. Xabier Amuriza ere saiatu zen gabezia horri erantzuna bilatzen 1981ean, eta gizon zein emakumeen aisialdi-eredu ezberdinei egotzi zien erruaren zati bat: bertsolaritza emakumeek lekurik ez zuten giroetan pizten zen, hots, gauez eta tabernetan. Dena den, emakumeen bileretan ere bertsozik ez zegoela dio Amurizak:

Emakumeak ere Euskal Herrian batu izan dira, euren bigirak eta tertuliak eginez. Batez ere kalea zeukaten herrietan. Baserriko emakumeek ere, gutxienez igande arratsaldeetan eta beste egun seinalatuetan, biltzen ziren noski, solaserako, kartetan egiteko eta abar. (...) Bazen, beraz, emakumeen arteko gizarte bat. Zergatik modu horretako gizartean ez zen bertsolaririk sortu? Zergatik ez zuten bilkura horietan bertsoetara jotzen? (Amuriza, 1997: 186)

Carmen Larrañagaren (1994) ustez, gerora emakumeak bertsolaritzan ez egotearen arrazoia jardueraren definizioan aurki daiteke. Bere iritziz, bertsolaritza definitzerakoan bertsolaria hartzen da kontuan maizago, bertsolaritza bera baino; hau da, bertsolariaren figura eta ezaugarriak dira jarduna ulertzeko oinarri. Jakinik protagonistak gizonezkoak izan direla luzaroan, beraien egoteko eta kantatzeko moduak hartu dira eredutzat, eta kanon horretan kabitu izan ez direnak kanpoan geratu dira: “Ez egote horrek eragin du emakumeentzako eredu-faltan, eta oso zaila gertatu da emakumeen artean jarraitutasuna izatea. Agertzen ziren bertsolari emakume gazteek ez zuten norengan begiratu, ez zeinen ondorengo sentitu” (Hernandez, 2014a: 141).

Aipatutako kanon horien barruan sartzen dira, noski, gorputza eta gorpuzkera ere. Prisma horren bitartez aztertu du Uxue Alberdik (2014) bertsolaritza, beste gai batzuen artean (Larrañagaren eta Hernándezen ikerketek ere eskaini diote tarte gorpuzkari). Bertsolaritzan duela gutxira arte gutxietsi eta desagerrarazi nahi izan den gorpuzkaren garrantzia aldarrikatzen du Alberdik, eta emakume bertsolarien belaunaldi ezberdinek oholta gainean beraien gorpuzkarekiko izandako jarrerak sailkatu ditu (ikus 1.3.1. atalean, “Emakumeak eta gorputza: ezkutaketa-jolasa” azpiatala).

Hernándezek esan bezala, emakumeak publikoki egoteari eta ikusteari esaten zaio berdintasuna, eta askok esango dute emakumea oholtza gainean bertsoan ari den momentutik bertsoaritzak egin duela arlo horretan egin beharrekoa. Baina ez da kontuan hartzen egote hori zein motatakoa den eta presentzia horrek gizartean zein aldaketa islatzen dituen: “Egiturak (genero-sistemari dagozkionak) berdin mantentzen badira, aldaketek, halabeharrez, azalekoak izaten jarraituko dute” (Hernández, 2014a: 139).

Ustezko berdintasun horren arrakalak bistaratu dituzte bi ikerketa-lan hauek: Zaira Latasaren Master Amaierako Lanak, *Emakumearen ibilbidea bertsoaritzan zehar, 1980-2009* (EHU, 2010) eta Izarne Zelaiaren Gradu Amaierako Lanak, *Emakumeek jendaurreko jardunetan parte hartzeko gaitasunak eskura ditzaten eskolak jokatzeko duen papera, bertsoaritzaz aztergai hartuta* (EHU, 2014-2015). Latasak emakume bertsoari beraien ibilbidean aurkitutako oztopoak eta sententzioak bildu ditu, eta Zelaiak² eskoletan jarri du arreta, oztopo horien oinarriaren bila:

Ikasgeletan edota patioan ikusi dut parte hartzea arautua ez denean, neskek espazio gutxiago hartzen dutela eta atentzio gutxiago deitzen duten ekintzetan aritzen direla. (...) Azken batean, neskek espazio publikoan parte hartzeko seguru sentitu behar dute, konfiantzazko giro batean daudela sentitu, burlarik egingo ez dietela ziurtatu. (Ibarzabal, 2016b)

2014ko Bertso Eguna generoari eskaini zitzaion (ikus 1.2. atala, “Bertso Eguna 2014: Generoa “azalera” azpiatala), eta iluntzeko bideo-emanaldietan “*Zergatik Wally?*” izenekoak markatu zuen Zelaia. Bertan, bertso eskoletan neskek maiz gehiengoa osatzen dutela azaltzen da, baina plazara salto egiteko orduan 10 neskatik 8k bertsoa utzi egiten dutela. Bera ere neska horietako bat izan zela ohartzerakoan, bertsoan hasi da berriro eta 2015eko Gipuzkoako Txapelketan kantatu du:

Egoeraz jabetu naizenean, nire burua nolabait ‘behartu’ egin dut berriro saiatzera. (...) Lanketa pertsonalarekin batera, gradu amaierako lanari heldu nion, neska-mutilek jasotzen duten hezkuntza berbera ez dela sinetsita eta jakinik horrek eragina duela ondoren beraien plazaratzeko prozesuan. (Ibarzabal, 2016b).

Izaro Zinkunegiren Gradu Amaierako Lana ere aurrekarien artean dago: *Emakumeak eta bertsoaritzaz: Gaiak, bertsoari buruzko paperak eta bertsoak genero*

² Izarne Zelaiari elkarriketa egin genion Gradu Amaierako Lanaren inguruan: ikus V. eranskina.

ikuspuntutik (EHU, 2013-2014). 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala aztertu zuen bertan, eta azken urteetan bertsolaritzan genero-ikuspuntutik egindako hausnarketek euren fruituak eman dituztela ondorioztatu zuen, oraindik ezberdintasunek iraun arren.

1.2. Bertsozale Elkartea: Genero Taldea

Zabala eta aurreratua da Bertsozale Elkarreak azken urteetan generoaren inguruan egindako lanaketa. 1993an egin zen Emakume Bertsolarien Topaketa lehen aldiz, baina 2003an egin zen bigarren topaketa hura har daiteke mugarriztat. Bertso munduko emakume gehiagori zabaldu zitzaion deia orduan, informala goa izan zen. Getariako Askizu auzoan elkartu ziren 20-30 urte bitarteko 15 emakume inguru, eta asteburu hartan emakume bertsolari gisa bizi izandakoak konpartitu zituzten.

Une hartan piztu zen askorengan emakume izateak bertsolaritzan duen eraginaren inguruko kezka, elkartzerakoan konturatu baitziren pertsonaltzat zeuzkaten sentipenak eta detaile ikusezinak kolektiboak zirela. Hitz egiteko beharra areagotu zenez, topaketa, elkarrizketa eta hizketaldi gehiago antolatu zituzten; giro horretan sortu zen Bertsozale Elkarreko Genero Taldea, 2008an.

Bertsozale Elkarrean parekidetasuna sustatzea da lan-talde horren helburua. Gizonek eta emakumeek, biek hartzen dute parte bertan, eta elkarrearen Idazkaritzan dago kokatuta, erdigunean, genero-ikuspegia zehar-lerro gisa landu dadin arlo guztietan.

Urteotan hiru lan-ildo nagusi garatu dituzte; batetik, *Eragin plana* deritzona, Bertsozale Elkarrearen beste sail eta proiektuetako ekimenetan eragiteko; bestetik, formazioaren ildoak zehaztu dute: emakumei begirakoa, gizonei begirako eta mistoa. Azken lan-ildoak jendarteratzea du helburu, hau da, egindako lanen hedapena, dokumentazio-lanen berri ematea eta partaideen arteko barne-komunikazioa sustatzea.

Orain arteko ibilbidearen balorazioa egin zuen Bertsozale Elkarreak *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat* liburuan:

Orain arteko esperientziatik atera ditugun ondorio eta irakaspenak, bidean nondik joan nahi dugun edo argitzen lagundu digutenak, hauexek dira: batetik, ikusten dugu Bertsozale Elkarrearen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko lan guztiak ezin dituela genero-taldeak bideratu, eta sail bakoitzaren ardura dela bere ekimenetan genero-ikuspegia kontuan hartzea. Sen hori eta jarrera hori badago

Bertsozale Elkartean; denok ari gara ikasten. (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015: 405)

Ekimen ugari bultzatu ditu genero-taldeak, tartean honako hauek:

- Bertso udalekuetan antolaturiko genero-tailerrak.
 - Ikastetxetan, bertsolaritza lantzeko *Gu ere bertsotan* ikasmateriala, genero-ikuspegia kontuan hartuta berri zutena.
 - Josepa Anttoni Aranberri Petirena Xenpelar bertsolariaren inguruko material didaktikoa ikastetxeetarako.
 - 2013ko Txapelketa Nagusian, antolakuntzak zaindu beharrekoak finkatu zituen, gai-jartzaileentzat, epaileentzat eta kazetari entzat formazio-saioak antolatuz.
 - 2014ko Bertso Eguna, generoa gai nagusi hartuta.
 - Bertsolaritzaren datu-basean historiako emakumeen biografiak eta bertsoak argitaratzea.
 - Genero ikuspegiari buruzko bibliografia sortzea.
 - Formazioari dagokionez, orain arte jasotako dokumentazioa eskura jartzea www.bertsozale.eus atarian.
 - Bertsozale elkarteko partaideentzako posta zerrenda, 110 kidek jasotzen dutena.
 - Topaketa ugari ere sustatu dituzte: Umerez Jardunaldien antolaketa (III. Edizioa); formazio mistoaren barruan Klown ikastaroa (IV. Edizioa); Emakumeen Topaketak (IV. Edizioa); Gizonen Topaketak (II. Edizioa).
- (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015: 405)

Bertso Eguna 2014: generoa “azalera”

Baina beharbada lan-talde honen filosofiaren erakustaldirik garrantzitsuenak 2014ko Bertso Eguna izan zen, generoa gai nagusitzat hartuta egin zena. “Azalera” lelopean, 55 bertsolarik eta 9 kultur sortzailek hartu zuten parte egunean zeharreko hiru ekitaldi nagusitan. Interesgarriena, ordea, antolakuntza bera izan zen: egunari, gaiei eta gainerako espektakulu guztiei forma emateko bertso munduko hainbat belaunalditako 37 emakume elkartu ziren –Genero Taldeko kideak barne–. Nerea Elustondo bertsolariak Bertso Egun haren helburua azaldu zuen prentsaurrekoan:

Jaialdiak umorea izango du oinarri eta aniztasuna bistaratzearekin batera, inklusiboa izatea nahi dugu. Erantzunak baino, galderak sortu ditzala publikoarengan eta bertsolariengan; generoari buruzko gogoetatzeko gaiak utz ditzala gudan. (Bertsozale Elkarteko webgunea)

Goizeko bertso-poteoan eta gaueko emanaldian guztira 18 emakumek eta 4 gizonek hartu zuten parte, bertsoan nahiz bestelako ekintzetan; EITBk emititu zuen arratsaldeko Kursaaldeko saio nagusian, berriz, 8 emakume eta 4 gizon aritu ziren kantuan: Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Nerea Elustondo, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia, Rosi Lazkano, Igor Elorza, Onintza Enbeita, Maddi Ane Txoperena, Beñat Gaztelumendi eta Iñaki Gurrutxaga.

Oholtza gainean maiz ikusten ez diren irudiak eskaini zituen egun hark, esaterako, Rosi Lazkanorena bezalako ahots bat bistaratu zen, 55 urteko emakume baten diskurtsoa eta umorea, plaza handi batean ordura arte existitu gabekoa; Saioa Alkaizak berak hala idatzi zuen *Argian*, handik bi egunera:

Lehen pertsonan solasean hasiz gero, Enbeitarekin eta Lazkanorekin batera sexualitatearen gaia lantzea tokatu zitzaidan. Ni Lazkanorekin harritu nintzen gehien. Ez da eguneroko ogia bere adineko emakume bat entzutea sexuaz, are gutxiago horren *punky*, hain benetazko eta aldi berean lotsarik gabe: *Beraz ez naiz hasiko saltoka, armairu gora igota / eztarritik ta beste hortatik nahiko sekoka nago ta*. (Alkaiza, 2014)

Gizonezkoak generoari buruz hausnartzen eta kantatzen ikustea ere ez da maiz gertatzen, gehienetan emakumeei egokitzen baitzaie gai hori bertso-saioetan. 2014ko Bertso Egunak eman zuen halakorik:

(...) baditut iltzatuta geratu zitzaizkidan zenbait puntu. Bat, Gaztelumendi Lujanbiorekin ofizioka hartu-emanen. Emakume edo gizon izatearen inguruan ari ziren, eta hor bota zuen añorgarrak: *Ez naiz zabala, ez naiz lerdena. / Ni ez naiz gizona esandakoan / burura etortzen dena*. Maskulinitate hegomonikoaz egiten zuen solas, eta eredu berrietaz. Gizon izateko aniztasunaz. (Alkaiza, 2014)

Zeresana eman zuen eguna izan zen, bai jendartean bai mediatikoki. “Deserosoa” izan zela esan zioten Alkaizari. “Ez da kasualitatea (...). Nago gaiak berak nerbiostu egiten gaituela. Arrazoa: genero eraikuntzak barne-barnetik ukitzen gaitu eta ez gaude ohituta tabladuan ikustera” (Alkaiza, 2014).

Uxue Alberdik hala kantatu zuen saioaren bukaera aldera: *Hala bazan edo ez bazan / Ea ipuin hau aldatu dala / sartzen zaigun Kalabazan*. Baina, sartu ote da kalabazetan? Sumatu al da 2014ko Bertso Egun haren aztarnarik ondorengo Bertso Egunetan?

1.3. Bertsolaritza eta genero-ikuspegia

Atal honetan hiru gai nagusi landuko ditugu, geroko analisisian oinarri gisa erabiltzeko baliagarri izango zaizkigunak. Batetik, bertsolaritza eta gorpuztasuna uztartzen dituzten iritziak eta teoriak azalduko ditugu, Uxue Alberdirenak batez ere; Oholtzara igotzen hasi direnetik, emakumeek izan dituzten gorputzarekiko jarrerak sailkatu ditu Alberdik.

Bertsolaria baldintza dezakeen beste faktore bat ere xehatuko dugu genero-ikuspuntutik: gaia. Azken urteetan kontu hau bereziki zaintzen bada ere, badira oraindik neutroak diruditen baina hain neutroak ez diren zenbait gai. Alberdik aurkezten ditu horiek ere.

Azken atalak kolektibotasunaz eta ordezkartiaz dihardu. Bertsolaritza kolektibo oso baten ordezkari gisa definitzen bada, nola liteke emakume bertsolariak soilik emakumeen kolektiboaren ordezkari izatea, eta elkar ordezkatu ahal izatea oholtza batean?

1.3.1. Gorputza eta bertsoaren performantzea

Lepotik gorako ariketa

Neurritz eta errimaz neurtzea hitza / horra zein kirol mota den bertsolaritza. Honela laburtu zituen koplak bidez Xabier Amurizak bertsolaritzaren osagai nagusiak; neurria, errima, hitza eta kirola. Jarduera guztiz mental eta dialektiko gisa ulertu izan da urte luzez, soilik garunari dagokiona, buru-ariketatzat, alegia.

Esparru berean kokatzen da Joxerra Gartzia, Andoni Egañak eta Jon Sarasuak *Bat-bateko bertsolaritza* (2001) liburuan emandako azalpena; kantatuz, errimatuz eta neurtuz burutzen den berbaldi bat bezala definitzen dute. Doinua, errima eta neurria bertsoaren alderdi teknikoak baino ez dira, halere: “Bertsoari kalitate maila bere arrazoibidearen indarrak edo bere balio poetiko-erretorikoek emango diote” (Gartzia, Egaña eta Sarasua, 2001). Arrazoia, oratoria eta komunikazioa jotzen dituzte, beraz, bertsolariaren tresna nagusitzat.

Gorputzaren aldarria

Baina Uxue Alberdik (2014) adierazi bezala, oraindik buruari errimatzen jarraitzen uzten dion gillotinarik ez denez asmatu, bertsolariaren patua gorputzari itsatsita dago ezinbestean, “gorputzetik pasatzen da”. Arrazonamendu horrek oso oinarritzkoa eta logikoa dirudi, baina bertsolaritzan gorputzari ez zaio garrantzirik eman denbora luzean, are gehiago, errefusatu egin izan dela uste du Jone Miren Hernándezek:

Bertsolariak gorputzetik eta gorputzez antzematen du publikoa. Erne dagoenean bere gorputzak xurgatu egiten du publikoaren presentzia. Era berean, publiko gisa gu ere irekita gaude, prest gaude jasotzeko bai arrazoiak, bai sentimenduak. Emozioak gu harrapatzea nahi dugu. (...) Hori oso nabarmena izan arren, ez da kontuan hartzen normalean. Gorputza bigarren maila batean geratzen da bertsolaritzaz hitz egiten denean. (Hernández, 2014b: 40)

Xabier Amurizak ere aipatzen du publikoaren erreakzioa jasotzearen garrantzia *Hitzaren Kirol Nazionala* (1981) liburuko “Plaza gizona” atalean; hemen, ordea, ez zaio gorputzari edo emozioari zuzeneko erreferentziarik egiten oraindik, “barruko mekanismoak” aipatzen ditu soilik:

Plaza gizon izatearen alderdi negatibo honetaz gainera, bada zerbait positiborik ere behar denik. Ez da jende aurrean ez gutxitzea bakarrik. Jendearen eragin positiboa hartzeko gai izan behar da. Berotzeko, entzuleek arrastatua izateko dohaia behar da. (...). Ez hutsetik, noski. Mekanismoak barruan ditu, baina entzulegoak abia erazten dizkio edo bizikiago erabil erazten. (Amuriza, 1981: 83)

Bertsolariaren gorputza da, hala ere, oholtzara igo bezain laster ikusten den aurrenekoa, bertsogintza bera hasi baino lehen. Azter daitezke bere pausokera, zutik eta jarrita egoteko duen modua, arropa, aurpegierak, egoera... oholtza erakusleihen garden bat da, eta ikus-entzuleentzat ezinezkoa da soilik bertsolariaren esanei eta kantaerari erreparatzea, buru-hegalari bat bailitzan. Horregatik, hain zuzen, saiatu dira bertsolariak beraien emozio kontrolaezinen ispilua den gorputza mugatzen edo jarrera zurrunen atzean ezkutatzen. Eta mezu hau urteetan zehar igaro da bertsolari batengandik bestearengana: presentzia indartsua eman behar da agertokian. Honi buruz hausnartu zuen Mari Luz Estebanek:

Al margen de su habilidad y formación para improvisar versos, los y las principiantes son educados en unas determinadas actitudes y técnicas corporales

que constituyen la postura típica del bersolari, que, aunque con variaciones, es la de una persona de pie, erguida, bien plantada, con las manos habitualmente en los bolsillos o unidas en la espalda, y que nos remite a su vez a un valor fundamental de la cultura vasca, como es la expresión de la <fuerza> (indarra, en euskara). (Esteban, 2004: 198, aipatua in Hernández, 2014b: 42)

Denbora luzez bertsolaritza ofizialki gizonen esku egon denez, beraien gorpuzkerak eta jarrerak onartu dira patroi orokor gisa: ahotsa, gorpuzkera, eskuak, hankak... Edozein bertso-eskolatan entzun daiteke oraindik ondorengo aholkua, esaterako: “*Paparra aterata eta altu kantatu. Bertsoa txarra bada, are altuago*”. Ziurtasuna eta indarra transmititzean kokatzen da fokua. Hala mintzo da Xabier Amuriza plaza gizonaz ari denean: “Plaza gizonak, beraz, bi gauza era batera esan nahi ditu: alde batetik ez gutxitu eta bestetik gehitu. Jendearen aurrean **hazi** esaten dena” (Amuriza, 1981: 83).

Virginia Imaz klownak ere aldarrikatu zuen bertsolaritzak gorputza berreskuratu beharra daukala: “Incorporar el cuerpo supone incorporar las emociones” (aipatua in Hernández 2014a: 144). Horrek Jone Miren Hernándezi zer pentsatua eman zion emakume bertsolariei dagokienez:

(...) emozioak azaleratzean, emakumeen papera ere, agerian geratzen da, historikoki jendartean emozioen unibertsoaren kudeaketa beraien atxiki zaielako. Bertsolaritzan gorputzarekiko kezka emakumeak oholtzara igotzen hasten direnean areagotzen hasten delakoan nago. (Hernández, 2014b: 42)

Emakumeak eta gorputzak: ezkutaketa-jolasa

Zerekin egin zuten topo orduan jendaurrean bertsotan hasi ziren lehen emakumeek? Nola aurkitu zuten beraien lekua hain eremu maskulinizatuan, aurrekari erreferenterik eduki gabe? Galdera horiei erantzuna eman zien Carmen Larrañagak, eta ondorio berera iritsi dira geroago Hernández eta Alberdi: feminitate markak alboratu zituzten eta orduko egoeran mimetizatu ziren emakumeak:

Traba bat zen emakume izatea bertsolaritzan aritzeko, eta bereziki, emakume bezala agertu nahi izatea (fisikoki, estetikoki, janzkeraren bitartez...). Bertsotarako gai bilakatzen zen emakumea, txantxarako aukera, bertsokideari ateraldi erraza

eskaintzen zitzaion. (...). Hobe bestean artean beste bat izatea. Bereizi gabe. (Hernández, 2014b: 43)

Uxue Alberdik *Drag King-ak* izenpetutako azpitaldean sailkatzen ditu feminitate marka horiek ostondu eta “kamuflatu” ziren neska bertsolariak, hasierako belaunaldietakoak. Honako bertsolari hauek kokatzen ditu joera horretan, besteak beste: Amaia Agirre, Estitxu Arozena, Maialen Lujanbio edo Nerea Elustondo.

Historikoki gizonezkoenak izan diren eremuetara sartzean, emakumeek, kontzienteki edo inkontzienteki, sarri erabilitako estrategia izan da euren gorputzak estaltzea eta maskulinitzat jotzen diren balio edo ezaugarriekin bide egitea. ‘Ez zen interpretatze kontzientea izan. Halakoak ginen. Bestelakoak bagina zer pasako zen?’, galdetzen du Lujanbiok. Kirolean, politikan, literaturan... onarpena lortu izan duten lehenbiziko emakumei ‘potroak’ baloratu izan zaizkie, hain zuzen. Gorputza ezabatzea ‘intelektotik bakarrik’ lehiatu behar izateko estrategia logikoa da. (Alberdi, 2014: 152)

Baina Alberdiren ustez, urte luzetan gorputza eta “feminitate-markak” estaltzeak bere ondorioak izan ditu. Bertsotan “gizonek bezala” egiten ikasi zuten, baina “ia emakume izaera ukatzearen truke”. Oholtza gainean egon bazeuden arren, emakumeen emozio, bizipen eta gai asko (sexualitatea, desira...) ez ziren bistaratu bi hamarkadatan. Hala ere, beraien lana ondorengo emakume bertsolari belaunaldien erreferente izan da, eta horri esker gaur ez gaitu harritzen emakume bat bertsotan aditzeak, oraindik gutxiengo bat osatzen duten arren.

90eko hamarkadan kantuan hasi ziren emakume haiei talde berri bat gehitu zitzaien hamabost edo hogeitau urte beranduago. Honako bertsolari hauek kokatzen ditu joera horretan, besteak beste: Miren Amuriza, Jone Uria, Alaia Martin edo Uxue Alberdi bera. Belaunaldi honetakoek “feminitate-markak” estaltzeko beharrik ez dute sentitu, eta estreinako aldiz ikusi dira oholtza gainean ezpain margotuak, takoiak edo gonak. Labealdi honetakoei *Panpinak* deitu die Uxue Alberdik: “Kantaera ere leunagoa dugu, gorputzak finagoak, irribarrez kantatzen dugu askok, atseginak eta politak gara... egokiak, emakume gisa. ‘Emakume’ deitzen dugun konstrukto soziokultural horren markoan krika-kraka handirik gabe kabitzen garela esan daiteke” (Alberdi, 2014: 153).

Noski, honek baditu ondorioak oholztan. Gorputz “femeninoek” etengabe kantagai bihurtzeko arriskua dute, bertsokideen nahiz publikoaren iruzkin, losintxa edo epaien jopuntua dira maiz. “Desiraren objektu” bilakatzen direla dio Alberdik, eta “feminitate-markekin” plazaratzeak horrelako ondorioak kudeatu beharra dakarrela.

Beste muga bat ere sumatu dute belaunaldi honetako emakumeek, mugaren esanahirik estuenean: neurritasuna. Alberdiren hitzetan, panpinak neurritsua izan behar du, egokia, eta marko horretatik irtenez gero, norbera da egokia ez dena, hots, **emakume** desegokia. Patriarkatuak bertsolari-panpinen jarreratik espero duena zerrendatzen du Alberdik: lotsagabea izan behar du, baina ez harroa; seduzitzailea, baina ez puta; atsegina, baina ez melenga: alaia, baina ez txolina...

Bai gizonen manerak eta balioak imitatzea, bai “emakume egokiaren” rola performatzea, biak dira zilegi Alberdiren ustez, baina “mugatzaileak” ere badirela dio, gizontasun hegemonikoaren kodean onartuak izatea dutelako helburu: “Besterik litzateke, estrategia horiek kontzienteki eta kode propio bat sortzeko bidean, norbanakoaren eta taldearen nortasuna osatzeko, zabaltzeko, aldarrikatzeko, erabiltzeko” (Alberdi, 2014: 153).

Sailkapenak alboratuta, egia da oraindik gorputzarena badela kezka edo traba bat emakume bertsolari askorentzat, eta norbere buruarengan konfiantza handia behar dela oholztza batera igotzeko. Horrela adierazi zuen Maialen Akizuk emakumea eta bertsolaritzari buruzko hitzaldi batean:

Bertsolaria oholztzara igotakoan goitik behera aztertu dezake jendeak, bere zapatatik belarritakoraino; hitzak entzuten dituzte baina ikusten dutena gorputza da. Emakumeok lehendik baldin baditugu bi begi gu epaitzen –geureak-, imajinatu begi horiek ehunka direnean. (Ibarzabal, 2016a)

1.3.2. Gaitegia eta gai-jartzaileak

Gai-motak

Bertso jarduna librean (gairik eman gabe) egiten denean erraza da aurrez aipatutako iruzkin eta adarjotze estereotipatueta erortzea, eta gizon eta emakumeei ezarritako rolak are gehiago azpimarratzea; hori bertsolariaren lanketaren esku dago. Baina gaiak ere bidera ditzakete bertsolariak bide bat edo beste hartzera, botere-harremanak indartzera edo berdintzera. Uxue Alberdiren ustez, gaian gorputzak zenbat

eta pisu handiago izan, orduan eta arrisku handiagoa dago ohiko roletan jausteko. Ofizioa gorputz menderatzailearen eta gorputz menderatuaren elkarrizketa bilakatzen da orduan.

Mota horretako gaien adibide erreal batzuk ematen ditu bere lanean:

“Onintza, luxuzko hotel bateko garbitzailea zara. Goiz osoa daramazu garbitzen. Nekeari ezin eutsita gela bateko ohe batean etzan zara. Halako batean, Fredi exekutiboa sartu da gelara”.

“Senar-emazteak zarete. Zu, Jokin, senarra eta Jexux Mari emaztea. Zuen alaba aktorea da, eta gaur bere lehen filmaren estreinaldira joan zarete. Hasi eta gutxira alaba biluzten ikusi dute”.

Galdera bat zuzentzen du Alberdik: “gai horietan aurkezten zaizkigunak gorputz libreak dira ala haien jabegoa lehian dago?” Hau da, alaba biluztu izana eta ez semea, kasualitatea da? Bertso berberak entzungo genituzke? Eta hoteleko garbitzailearen gaiarekin, zein umore mota espero da?

Alberdiren hitzetan, kode antzerakoak datozkigu denoi burura gai horiek entzunda, prestatuta baikaude sarritan entzundako umore mota horren aurrean, “domestikatuak”. Bertsolariek ere badakite testuinguru horretan “funtzionatzen”, badakite zer den jendeak espero duena. Horregatik da zaila hainbeste urtetan eta hainbeste bidetatik eraiki den umore mota hori deseraikitzea.

Bertsozale Elkarteak bultzatu duen lanketari esker, gaiak zainduagoak egon ohi dira gaur egun genero-roleri dagokienez. Txapelketetako gaiak, esaterako, bereziki berrikusi ohi dira zentzu horretan. Izaro Zinkunegik ere hala ondorioztatzen du bere Gradu Amaierako Lanean: “Bertsolaritzan azken urteotan genero-ikuspuntutik egindako hausnarketek beraien eragina izan dutela esan dezakegu” (Zinkunegi, 2014: 33).

Hala ere, gai-jartzaileen asmoa maiz berdinzalea izan arren, zenbait gaik oraindik desoreka egoeran koka ditzakete bertsolariak. Horregatik dio Uxue Alberdik neutroak diruditen gai batzuk ez direla neutroak.

2013ko Arabako txapelketako finaleko gai bat jartzen du adibidetzat, zortziko txikirako proposatutakoa (printzipioz umoretsua). “DBHko bi ikasle zarete. Zuzendariaren bulegoan zaudete zain: dutxetan zelatatzen harrapatu zaituztete”. Gaiak ez du zehazten zein den zelatatzaileen eta zelatatuen sexua, eta horregatik dirudi gai

neutroa. Zozketak erabakita, bi gizona zokorri egokitu zitzaizkien gaia, ordea, eta neska zelatatzea hautatu zuten: “*Nesken dutxara bota gure begirada / ta gero gure dutxan lasaituko gara*”, “*goizegi harrapatu egin gaituztela*”, “*pay per view egin zazu zuzendari, bengal!*”. Horiek izan ziren bertso-bukaeretakoa batzuk. Uxue Alberdik bi auzi nabarmendu ditu honen inguruan: batetik, emakumezkoen aurkako intimitate-urraketei pisua kentzeko eta umorez hartzeko joera dagoela. Bestetik, erreferentzien arloa:

Mutil gazteen erotikaren hiztegia zabala eta ezaguna da; pelikula pornoak, ‘pay per view’, Interview, masturbazioari erreferentzia... baina zer gertatuko litzateke gai bera bi emakumezko edo emakume bati eta gizon bati egokitu balitzaie? Askoz gutxiagotan ikusi ditugu neska gazteak mutilak zelatatzen, gure imajinarioan ahula da irudi hori. (Alberdi, 2014: 161)

Generorik zehazten ez den beste gai asko neutroagoak dira eta horrelakoetan bertsolariaren esku dago rol tradizionalari jarraitu edo ez. Izaro Zinkunegik aztertu duenez, oro har, bertsolariek beraien paperetik abesten dute horrelako kasuetan, gizona gizonenetik eta emakumeek emakumeenetik. Baina Txapelketa Nagusian ikusi ziren zenbait salbuespen esanguratsu: “Aipagarria da esaterako, bi mutilek emakumeen rola hartzea prostituten paperetik abesterakoan, gaiak horrelakorik zehazten ez duen arren” (Zinkunegi, 2014: 22).

Emakumei buruzko gaiak “problematizatzeko” dagoen joera islatzen du horrek, Uxue Alberdik aipatu bezala; “emakume” eta “arazo” hitzak eskutik aurkezteko joera orokortua dago, biktimizatu egiten dira. Hona hemen bakarka kantatzeko emakume bertsolariei jarri izan dizkieten gaien adibideetako bat: “Andre banandua zara, eta hiru seme-alaba daukazazu zure kargu. Hasieran langabeziako diruaz moldatzen zinen, baina orain hori ere ez duzu jasotzen. Gaur gauean kalera irten zara, prostituzioa helburu-edo” (Alberdi, 2014: 162).

Gai horietan emakumea gutxitan da bere bizitzaren kontrolaren jabe, eta paper zaila da bertsolariarentzat ere, dramatik, haserretik edo aldarrikapenetik kantatzea beste aukerarik ez zaiolako geratzen, ahalduntzeko tarterik gabe. Uxue Alberdiren ustez, arazo sozial guztiak dira planteagarriak eta planteatu beharrekoak bertsotan, baina subjektuei boterea hartzeko aukera emanez: “(...) problematizazioa eta biktimizazioa emakumeak dauden lekuan mantentzeko beste erreminta bat da” (Alberdi, 2014: 162).

Ainhoa Agirreazaldegik beste gabezia bat ere azpimarratu zuen gai ei dagokienez, *Berriari* eskainitako elkarrizketa batean. Garrantzitsua zer den eta zer ez, gizonek erabaki dute urteetan zehar, eta hori gaietan islatzen da oraindik:

Zenbateraino da konsziente gai-jartzaile bat emakume batek zeri buruz kanta dezakeen? Gizonek kantatu dute kulturalki urte pila batean, eta haiek euren kodeak eraiki dituzte. (...) emakumeentzat, ordea, beste gauza batzuk dira inportanteak. (Eskudero, 2013)

Nori egokitzen zaizkio gaiak

Geroz eta ohikoagoa da plazetan generoaz ari diren gaiak eta bertsoak entzutea; egia da badagoela kezka bat, interes bat, gai honetaz eztabaidatzeko eta bistartzeko. Baina kontu deigarria da, hala ere, generoari buruzko gai gehienak bertsolari emakumeei egokitzen zaizkiela saioetan. Inportantetzat eta orokortzat hartzen diren gainerako gaien inguruan (politika, kirola, gai sozialak...) berdin kantatu behar izan dute bertsolari emakume nahiz gizonezkoek, berdin ipini behar izan dira pilotari baten larruan nahiz presidente batenean; gai guztien gaineko iritzi bat eratu behar izan dute. Badirudi, ordea, generoa zerbait berezitua dela, soilik emakumeei dagokiena. Hala dio Uxue Alberdik:

Esango nuke emakume guztiok hasi garela bertsoan neutroak ginela pentsatuz, baina oholtza leku ezin hobea da gure eraikuntzaz eta gizarteak gutaz espero duenez jabetzeko. Zergatik jartzen dizkigute “emakumeei buruzko gaiak” emakumeei bakarrik? Zergatik eskatzen zaie gizonei politikaz kantatzeko? Zergatik jartzen gaituzte emakumeok desiratu eta gizonak desiratzaileroletan? (Alberdi, 2013)

Oholtzetan aldarrikapen feministak ugaritu ahala, ordea, termino bat hedatu da jendearen ahotan: “emakumearen gaia”. Emakumeari inporta zaizkion gaiak falta izatetik, gai-multzo isolatu eta espezializatu bat izatera igaroko lirateke horrela, interes orokorreko beste arlo bat izan ordez. Horrek arrisku handia ekarriko luke, esaterako, indarkeria matxista “emakumearen gai” gisa ulertzen bada, Amaia Iturriotzek (2013) *Bertsolari* aldizkarian esan bezala:

Bertso-saioetan askotan entzuten ditut kartzelakoaren osteko komentarioak: “Halakok emakumearen gaiari buruz kantatu du, beti kantatzen du emakumeari buruz”, eta asperdura keinu bat. Hasteko, emakumearen gaia al da tratu txarrena? Bortxaketa emakumearen gaia da? Usteltzeraino kutsatuta daukagu garuna gehienok. (Iturriotz, 2013: 169)

Iturriotzek aipatu legez, gaia aske samarra denetan (bakarkakoetan kasu), ez da inor harritzen bertsolariak generoaren arlotik jotzerakoan, problematika bat salatzeke edo aldarrikapen bat egiteke. Bertsolari horiek gehienetan emakumeak izaten dira, hala ere. Bere esperientziatik ematen du azalpena Iturriotzek:

(...) Ez legoke gaizki hausnartzea indarkeria matxistaz kantuan jartzen direnak zergatik diren gehienetan emakumeak. Gure hogeituro urteko neskek askotan irakurri du egunkarietan bera bezain emakume den norbait bortxatu dutela sanferminetan. Gure berrogeita hamar urteko emakumeak maiz entzuten du irratan bera bezain emakume den norbait akabatu duela senarrak. Gai honek, aspertzeaz gain, amorrarazi egiten gaitu gu, eta subliminalki hezi. (Iturriotz, 2013: 169)

Genero-eztabaiden eragina bertsolarien jarreretan

Emakumeen errealitateek, ahotsek eta gorputzek oholtzak hartu izanak bertsolaritza eraldatu dute, eta ezinbestean, ordura arte gizon artean kantatzen zuten bertsolari gizonezkoak ere bai. Jone Miren Hernándezen hitzetan, emakumeak bertsolaritza sartzekoan “nolabaiteko iraultza” gertatu da, “kaos pixka bat” sortu dute, eta horrek gizonezkoen jarrerengan eragina izan du:

Segur aski, emakumeak sartu direlako, gizon batzuk lekuz kanpo sentitu dira, edota ez; batzuk beharbada bere buruari planteatzen hasi dira zenbait egoeraren aurrean non kokatzen diren gizon gisa edo pertsona gisa; beste batzuek, agian, eredu hori, maskulinitate hegemonikoak agintzen duena azpimarratzea edo baieztatzea erabaki dute. (Hernández, 2010: 10)

Maialen Lujanbiok eta Amets Arzallusek ere hausnartu dute honen inguruan, eta beraien ikuspuntuak azaldu zituzten *Jakinek* antolatutako hitzaldi batean. Emakumearen presentziak gizonezkoen papera aldatu duela berresten du Lujanbiok:

Gizonezko bertsolariak, emakumeak plazan sartu zirenetik, zuzenean aludituta sentitu dira, fisikoki emakume batekin kantatzen aritu direlako; lehen gizonek errepresentatzen zituzten rola benetan emakume batek errepresentatu dituelako, eta emakumearen ahotsa eta... orduan, automatikoki, gizon horren papera ere aldatu da, beste era batera jokatu behar izan du dialektika horretan. Beharbada, lehen bestelako gauza batzuk entzungo ziren... eta bueno, emakumearen presentziak hori errealistago egiten du, eta bertsolari gizonezkoaren burua ere aldatzen da. (Berria, 2016)

Generoaren diskurtsoa bertsolaritzan oso presente egotea positiboki baloratzen du Lujanbiok, baina gizonezkoei erreparatuz gero, Alkaizak 2014ko Bertso Egunaz hitz egiterakoan erabilitako izenondo bera darabil: deserosoa.

Gizonezko bertsolariak eta gizonezkoak, oro har, esango nuke ba nahiko despistatuta edo nahiko asmatu nahi eta ezin, eta zer da asmatzea? eta zer esan behar da?... Nahiko egoera deserosoa da niretzat ere. Niri ere ez zait batere eroso egiten gizonezko bertsolarietara halako gaiak jartzea, halako galderak, eta uste dut egin behar zaizkiela, dudarik gabe, eta ez beti emakumei buruzko galderak emakume bertsolarietara egin. Baina niri ez zait egiten eroso lagunak deseroso ikustea halako gaitan. Noski, ardura euren da. Ez ditut salbuesten pentsatu beharretik, irakurri beharretik, kuestionatu beharretik... baina ez nuke nahi izatea beraiek deseroso kantatzen eta gainera atzean polizia dagoela. (Berria, 2016)

Ametz Arzallusek “ikasteko, konturatzeko eta ohartzeko fase batean” sumatzen du bere burua. Bertsolari gisa baino gehiago, pertsona gisa bizi duen “auto-kuestionamendu” ariketa bat da generoarena berarentzat. Diskurtsoan baino, norbere barneko moldeetan eta eguneroko jarreretan dago gakoa, bere ustez:

(...) Batez ere horrek kezkatzen nau, uste dut inertzia gai hau edo gaitz hau, zure barne inertzia ezkutuenetan egon daitekeela, eta esaten diren gauza gehienak bidenabar esaten direla, umorea egiteko moduz edo jarreraz, edo gauza bati begiratzeko moduz... gero kantatzeko maneran ere bai, noski, baina gauza gehienak bidenabar modura doaz eta zailagoa da horiek deszifratzen eta barne lanketa bat egiten. Ni lehenengo enplazatua sentitzen naiz pertsona bezala. Ez nau bereziki kezkatzen diskurtsoak, gehiago bestelako praktika batek. (...) Entzun nuen behin esaldi interesgarri bat, gai guztietan saiatzen naizena aplikatzen. Erdaraz da,

baina euskarara erdi ekarrira: “begira, ni ez nau ikaratzen Berlusconi *en sí*, ikaratzen nauena da Berlusconi *en mí*”. Nahiz eta bilatzen eta kanporatzen saiatu, beldur naiz batzuetan Berlusconiaren begi bat edo organo bat igual gorputz barruan ezkutatuta egon litekeela, eta enplazatzen nau hori erauztera, eta gero hortik diskurtso bat egin nezake. (Berria, 2016)

Oraingoa garai “interesgarri” gisa definitzen du Arzallusek, eta lehenago ohartu eta ikasi ez izanak kezkatzen duela aitortu du: “Zergatik ez lehenago ikasi izan? Ba ziurrenik ez nuelako interesik, ez nintzelako ohartuko, ez nuelako jakin-minik izango eta bereziki jakin-minik ez nuen, minik ez nuelako” (Berria, 2016). Orain beste garai bat dela eta gizonezkoei ardura bat badagokiela uste du, nahiz eta gaiak batzuegan nolabaiteko ezinegona eragiten duen:

Sumatzen dut gure artean pixka bat belarriak kilimatzen dituen gai bat dela, gizon artean gabiltzalarik, eta seguraski batzuetan belarriak urratzeraino iritsi da. Baina pentsatzen dut beste aldea hain urratua egonda, egia esan... guk belarrian kilima pixka bat sentitzerakoan ofenditzen hastea ez da oso orekatua. (Berria, 2016)

Maialen Lujanbiok ikasketa eta aldaketa prozesu bat bezala deskribatu du bertsolaritzak generoarekin duen harremana, presiopean egitea komeni ez dena: “Uste dut bertsolaritzan oso lur ona daukagula, oso kalitate humano ona, eta jendeak integratu duela kezka hori eta jendea bila dabilela, andre eta gizon, eta bilaketa horretan asmatuko dugu, ez dugu asmatuko... ea nola gestionatzen dugun hori, izan gabe froga bat” (Berria, 2016).

1.3.3. Kolektibotasuna eta ordezkaritza

Bertsolaritzaren kolektibotasunari erreferentziak

Kolektibotasuna eta talde-lana bertsolaritza definitzeko erabili izan diren bi ezaugarri garrantzitsu dira; taldean aritzeko eta taldean gozatzeko jardun gisa ulertzen da, oro har. Hala adierazi izan dute bai bertsolariek, bai bertsoaren inguruko hainbat

arlotan jarduten duten pertsonen hainbat elkarrizketatan. Arkaitz Goikoetxea itzultzaileak hau idatzi zuen 2013ko Txapelketa Nagusiaren atarian:

Bertsolaritza ere jardun kolektiboa da, taldekoa, eta alderdi hori asko azpimarratu izan dute bertsolariek eurek ere. Gaur egungo bertsogintzak duen ezaugarriarik baliotsuenetakoa da, nire ustez, kolektibitate edo taldetasun horren gaineko gogoeta eta aldarri etengabea. Ikusi ere, multzo gisa ikusten ditugu oholtzan, jardunean. (Goikoetxea, 2013)

Taldea eta kolektibotasuna bereziki azpimarratzen dira lehia pertsonal gutxiko txapelketez aritzerakoan, Nafarroako Bardoez edo Arabako Bertso Kuadrila Artekoaz, kasu. “Bertsolaritza talde-lana delako” izenburupean eman zuen *Kontaizu*-n Iñaki Iturriotzek bi ekimen hauen berri: “Lagun girotik abiatuz bertso eskolen eta talde lanaren adierazpen dira eta sortu den giroa eta izan duen oihartzuna dira horren lekuko”. *Gara*-n, horrela jaso zuten:

Herriko txoko ezberdinetan, salbuespenik gabe, aurtan estreinatutako izaera berria erakutsi zuen Arabako kuadrilla ezberdinak bertsotan elkarrekin aritzea ahalbidetzen duen topaketa herrikoari amaiera ematen dion jaiak. Lau oinarri ardatz hartuta egiten dira saioak: autogestioa, herrikoitasuna, sailkapen eza eta kolektibotasuna. (Gartzia, 2014)

Baina lehia pertsonalak protagonismoa duen txapelketetan ere, bertsolariek antzerako adierazpenak egin izan dituzte helburuez galdetzerakoan; norbere lana presente, baina taldearena ere bai. *Berria*-k jaso zituen 2013ko Txapelketa Nagusiko finalistek egun handirako zeuzkaten asmoak: “Eta, gozamen horren bidez, euskalgintza, kulturgintza, bertsozaletasuna suspertu nahi dutela. Kolektibotasuna indartu. Areago, bere helburua herri izaera, identitate sentimendua hauspotzea dela esan duenik ere bada” (Laskibar, 2013).

Amets Arzallusek, handik urtebetera, helburu pertsonalagoei buruz ere hitz egin zuen *Aikor* aldizkariaren atari digitalean:

Saioetan helburu kolektibo bat dago, jendeak disfrutatzea, eta txapelketetan ere eusten diogu pixka bat horri. Txapelketako giroak barne-kontraesan batzuetan

sartzen gaitu: lagunek inguratuta zaude, baina zuk ahalik eta urrunen iritsi nahi duzu eta ahalik eta ongien egin nahi duzu. (Arzallus, 2014)

Kolektibotasunaren inguruko adierazpenik berrienak, beharbada, Beñat Gaztelumendirenak dira. Gipuzkoako txapela jantzi ostean, Kepa Matxainek honako galdera hau egin zion *Argia*-rako: “Finalaren osteko elkarrizketetan asko azpimarratu duzu bertsolaritzaren balio kolektiboa, beti konnotazio positiboz. Bururatzen zaizu kolektibotasun horrek izan dezakeen arriskurik?” (Matxain, 2016). Politikoki zuzenera erortzea edo sortzaile bezala izan daitezkeen asmoen gainetik mugimendua jartzea aipatzen ditu Gaztelumendik arrisku posible gisa, eta bere ikuspuntua azaltzen du:

Dena dela, kolektibotasuna eta norberekotasuna lotuta doaz beti. Bertsoa ez da kolektiboa bakarrik. Nik, adibidez, oso intimoki bizi dut bertsoa, nire esperientziei oso lotua. Baina bertsolaritza zerbait pertsonal bezala ulertzea ere ez da zuzena, hankamotz geratzen da mugimendurik gabe. Ilunben 7.000 lagun hunkitzen direnean, ez dira soilik hunkitzen entzun duten bertsoa barruraino iritsi zaielako, baita ere seguru asko lau urtean ez dutelako aukerarik izan halako nukleo batean biltzeko, euskara hutsezko ekitaldi batean. Ezin dira bi gauzak bereizi. Bertso gintza ezin da ulertu bertsolaritza gabe. (Matxain, 2016)

Bertsoaren komunitatea

Baina oholtza gaineko eta publikoko talde-sentimenduaz haratago, bertsolaritzak komunitate sendo bat osatu du bere inguruan, bertsoa modu kolektiboan bizitzeko beste modu bat. XX. mendearen bigarren erditik aurrera garatu zen hori bereziki; 1987an, beraien jarduera antolatzeko eta indartzeko, Bertsolari Elkarteak sortu zuten zenbait bertsolarik, baina denborarekin bertsoaren inguruko beste eragile batzuk barnebilduko zituen Bertsozale Elkarteak bilakatu zen. Iratxe Retolazak azaldu du bilakaera hori:

Este nuevo nombre responde también a una nueva filosofía, puesto que la asociación pretendió reunir a todas las personas que tuvieran alguna relación con el *bertso*: *bertsolaris*, *gaijartzailles*, 24 organizadores y aficionados. Una nueva perspectiva que reunía en el mismo espacio a todos los participantes de esta práctica cultural, tanto a los más profesionales como a los amateurs, fomentando el sentimiento de comunidad. Gracias a esta nueva perspectiva se crearon *bertso-*

eskolas en varios pueblos de Euskal Herria para fomentar la transmisión y difusión del bertsolarismo. (Retolaza, 2011: 237)

Bertsozale Elkarteko webgunean bertan adierazten dute transmisioaren garrantzia, “bertsolaritzaren ekosistema osoa birsortzeko” balio duena. Hori hiru eremutan lantzen dute: hezkuntza arautuan, bertso-eskoletan eta gainerako jarduera osagarrietan, zale eta bertsolari berriak bertsoetik gertu mantentzeko:

Ziurtatzea gaur eta bihar ere ez direla faltako bertsolariak, ez saio antolatzaileak, gai-jartzaileak, bertso irakasleak, kazetariak, entzuleak. Beraz, bertsolaritzaren transmisioaz ari garela, mugimenduko agente guztien harrobiaz ari gara. (Bertsozale Elkarteko webgunea)

Ikasketa eta sozializatzeko lan hori dira, hain zuzen, komunitate sendoaren gakoak, Retolazaren ustez. Azken urteetako bertsolari txapelketek bildutako jendetza eta hedabideetan izandako oihartzuna dira horren frogarik behinenak; datu horiei erreparatuz, bertsolaritza “XXI. mendeko jardun literarioak arrakastatsuenetako bat” dela dio Retolazak (2011).

Emakume bertsolariak, ordezkari eta ordezkagarri

Badago, hala ere, kontraesan bat: bertsolaritza kolektibo baten ordezkari bezala aurkezten da, baina emakume bertsolariak beraien generoko kideen ordezkari dira bakarrik. Izaro Zinkunegik jasotzen duenez, 2013ko Txapelketa Nagusian bertsolarien %70 gizonetzkoak ziren, eta %30 emakumezkoak; ohiko plazetako saioetan alde horrek gora egiten du, emakumeak %20 baitira, eta gizonak, berriz, %80. Bertso-saioak antolatzerakoan, emakume bertsolariekiko diskriminazio positiboa egiten da, ala diskriminazioa? Galdera hori luzatu zuten 2014ko Bertso Egunean proiektatutako “*Zergatik Wally?*” bideoan. Emakume bakarra (Wally) ageri den bertso-saio bat irudikatzen dute, eta bertsolari gizonetzko batek hala dio: “Wally edukita, zertarako beste txuri-gorri bat? Errepikakorra litzateke”.

Umore bidez egin zioten kritika ordezkariari, norbanakoaren identitate ezari. Jone Miren Hernándezek (2010) *Bertsolari* aldizkariari eskainitako elkarrizketan aipatu

zuen azken urteetan sortu direla bertsolari eredu ezberdinak –Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jon Maia...–, baina emakumeen artean hori ez dela gertatu, emakume gutxi egon direlako: “Behin Erika Lagomak esan zidan: ‘Gu ez gara Erika Lagoma, edo Uxue Alberdi... Gu neskek gara, modu generikoan’. Izenik, izaerarik, nortasunik gabekoak” (Hernández, 2010: 11). Publikoak bereizten ditu Aitor Mendiluzeren eta Jon Maiaren estiloak, kantatzeko eta egoteko modu desberdinak, baina emakume bertsolariak *neskak* dira, adjektiborik gabe, eta hori muga bezala ikusten du Hernándezek: “Saio askotan dago ohitura gutxienez neska bat sartzeko, baina batek huts egiten badu, ez dute profil hori bilatzen, beste bat jartzen dute, eta ematen du gutxi gorabehera berdin dela”. (Hernández, 2010: 11)

Estitxu Arotzenaren eta Maialen Lujanbioren adierazpenak bildu zituen Zaira Latasak (2010), emakumeen kolektibo osoaren ordezkari sentitzea nolakoa den deskribatzen:

Hala diotsu Estitxuk: “ (...) eta igual txapelketara joaten zara, ta Estitxu neska delako, nahi dut irautzia Estitxu neska delako, neska bakarra delako, klaro... azkeneko finalean 7 mutil ta ni ginen, erran nahi dut, ta ordun ez dakit... zentzu hortan baduzu, ez? Ee, kolektibo baten bandera, ez?”.

Maialenek, ordezkartzaren ideia beretik, arriskua bera aipatzen du: “Esanguratsua da baita ere, ba hoi ba bi neskentzat badirudi ez dagola lekurik. Batentzat nahikoa dala... bueno ba hoi...Eta... neska bakarrarekin nola nahikoa dan, ba neska bakar hori juten da saiotara ta ordun sentitzen du emakume guztien ordezkaria bera dala, ez? Ta igual hori gure problema bat da... baina hola sentitzen zara ta ordun.. denengana iritsi behar dezu... denen ordezt hitz egin behar dezu, ezta?... Eta hoi problema kreatibo bat bihurtzen da, ez?”. (Latasak, 2010: 41)

Lujanbio eta Arotzenak bezala, oholtzara igo ziren aurreneko emakumeek bizi izandako bakartasun horrek zaildu egin zuen bertsoan egiteko beste eredu bat sortzea, ordura arteko eredu maskulinoetik aparte. Hori uste du Uxue Alberdik (2014):

Nola egin euren bidea, nola bilatu euren intereseko gaiak, moldeak... ia saio guzti-guztietan emakume bakarra baziren? Orain dela urte oso gutxira arte apenas egongo zen zineman aplikatzen den Bechdel testa gaindituko zuen bertso-saiorik, eta oraindik ere gutxiengoa dira. (Alberdi, 2014: 149)

1.4. Metodologia: bertso-ekitaldiaren ikus-entzunezkoa aztergai

Ikus-entzunezko ekoizpena, kasu honetan Bertso Eguneko ekitaldi nagusia, pixkanaka xehatu eta interpretatzeko *El análisis de textos audiovisuales. Significación y Sentido* (Gómez Tarín, 2010) liburua erabili dugu oinarri gisa.

Ikus-entzunezkoaren analisia egiten hasi aurretik, orientazio gisa, Roger Odinen sailkapena hartu dugu aintzat; Odinek ikus-entzunezkoaren irakurketa egiteko bederatzizko modu desberdintzen ditu, ikus-entzuleak produktuaren aurrean duen interpretaziorako jarreraren arabera (Gómez Tarín, 2010: 63). *Modo espectacular* deritzona hautatu dugu, ikuskizun bat ikustera doanaren jarreratik aztertuko dugulako Bertso Eguna.

Irakurketa errazteko eta osatuago izateko, Francisco Javier Gómezek ikus-entzunezkoaren analisia modu ordenatuan egiteko lau fase proposatzen ditu: dokumentazioa, deskripzioa, elaborazioa eta interpretazioa (Gómez Tarín, 2010: 69).

Dokumentazioa

Lehen urrats honetan aztergai dugun ikus-entzunezkoaren inguruko dokumentazio-bilketa egitea proposatzen da. Urrats honetan, beraz, 2016ko Bertso Egunaren ekitaldi nagusiari buruzko informazioa jaso dugu, eta horretarako antolatzaileekin eta parte-hartzaileekin harremanetan jarri gara. Bertsozale Elkarteak Bertso Egunaren eraketa-prozesuan eta ikuskizunean bertan erabilitako dokumentu ugari bidali dizkigu (ikus VI. eranskinak), baliagarri izan zaizkigunak: saioaren egitura, gidoia, bertsolariei saioa hasi aurretik emandako oharra, materialen eta laguntzaileen zerrenda, EITBren izandako bileran emandako informazioa, material grafikoa, EITBren eskaleta.

Horrez gain, hiru elkarrizketa egin ditugu ekitaldiaren irudi integralago bat jasotzeko. Elkarrizketatuetako bat Bertso Eguneko talde teknikoko arduradunetako bat izan da, Jon Agirresarobe (ikus III. eranskina): harreman zuzena izan du talde antolatzaile edo sortzailearekin, eta Bertso Egunaren antolaketa eta logistika prozesuan esperientziadun pertsona da. Generoaren gaia bereziki zehaztu gabe (erantzunak ez baldintzatuzko), galdera orokorrak egin dizkiogu, bertsolarien aukeraketa-prozesua nola egiten den jakin eta interpretazioak egin ahal izateko:

- | | |
|---|--|
| — | Zein da plazaratu nahi izan zenuten mezu/gai nagusia? Zer dela eta aukeratu zenuten? |
| — | Zertan oinarritu zineten Kursaaileko bertsolariak aukeratzeko? |

- Kursalekoak edo goizeko/gaueko ekitaldietako bertsolariak, zeintzuk zehaztu zenituzten lehenago? Zergatik?
- Saioan bertan, bi taldetan sailkatuta zeuden bertsolariak; zer hartu zenuten kontutan taldeak osatzerako orduan?
- Zailtasunik izan al zenuten oro har, Bertso Egunaren antolaketa prozesuan? Zein?
- Zuek esperotako emaitza izan zuen saioak?

Oihana Iguaran bertsolaria izan da bigarren elkarrizketatua (ikus IV. eranskina). Bertso Egunean oholtzan egon zen bertsolarietako bat da bera, bi emakumeetako bat. Iguarani saio aurreko eta saioan zeharreko sentsazioen inguruko galdera orokorrak egin dizkiogu, generoa aipatzeke; ekitaldiko parte-hartzaile baten iritzia jasotzea aberasgarria iruditu zaigu, ikus-entzuleok egindako interpretazioari ikuspuntu ezberdin bat gehitu diezaiokeelako, eta gure begietara iristen ez diren espektakuluaren zatiak ezagutu dituelako:

- Antolatzaileek Bertso Eguneko arratsaldeko saioan kantatzeko proposatu zizutenean, zenbat informazio jaso zenuen baietza eman aurretik? Eta baietza eman eta gero? (data, bertsokideak, gaia, taldekako antolaketa...)
- Nola sentitu zinen saioan zehar...?
 - Taldean, bertsokideekin:
 - Publikoari dagokionez:
 - Zeure lanarekin:

Hirugarren elkarrizketa bat ere egin dugu, azken hau Izarne Zelaiari (ikus V. eranskina). Zelaiak GRALerako hautatutako gaia mamitsua eta interesgarria iruditu zaigu marko-teorikoan erabiltzeko (*Emakumeek jendaurreko jardunetan parte hartzeko gaitasunak eskura ditzaten eskolak jokatzeko duen papera, bertsolaritza aztergai hartuta*), eta halaber, esperientzia pertsonaletik zer kontatua duela uste dugu.

- Noiz eta nola hasi zen zure harremana bertsolaritzarekin? Zein arrazoi izan dituzu ibilbide horretan bertsoetik urruntzeko eta gerturatzeko?
- Zerk bultzatu zintuen Gradu Amaierako Lanerako gai hau hautatzera?
- Ikasgeletan ibili zara behatzaile lez. Zer behar dute neskek, zure ustez, espazio publikoa eta hitza erosotasunez hartzeko?
- Zein litzateke hezkuntzaren papera eta zein bertsolaritzarena, emakumeei oholtzarako salto horretan laguntzeko? (ahalduntze bertso eskolak, topaketak, formakuntza...)

Adierazpen eta datu horiek guztiek Bertso Eguna bere sortze momentutik amaierara arte irudikatzen lagundu digute, soilik emisiora mugatu gabe. Geroko interpretazioa erraztu eta osatu digu horrek.

Deskripzioa

Urrats honetan ezaugarri tematiko eta ikus-entzunezkoen azterketan sakondu dugu. Ekitaldi osoa modu argian xehatzeko, taula bat eratu dugu ondorengo atalez osatua (ikus I. eranskina):

- Eszena: aztertzen ari garen unea zehaztu da, bertso-jardunaren araberakoa. Zenbatgarren gaia den, zein ariketa mota den (bakarka, agurrak...) eta zein bertsolariri egokitu zaion aurkezten da.
- Testuingurua: bertso-egoera deskribatzen da zutabe honetan. Gaiaren aurkezpena, ezaugarriak eta honi egin dakizkiokeen interpretazioak azaltzen dira.
- Ikus-entzunezko transmisioa: EITBk eskainitako ekitaldiaren emisioa aztertzeko, eszena bakoitzean erabilitako enkoadraketari, ngeluzioari eta kameraren mugimenduei erreparatu zaie atal honetan. Hortik abiatuta egin dira interpretazioak.
- Edukia: bertsolaria, testuingurua eta hartualdiak ezagutu ondoren, bertsoetan esandakoari jarri zaio arreta. Bertsoak ere interpretatu dira, generoari edo gorpuztasunari erreferentzia egin diotenetan.

Bertsoen azterketa errazteko, ekitaldian kantatutako bertso guztiak transkribatu eta ordenatu ditugu (ikus II. eranskina). Deskripzioaren atala, beraz, eranskinetan atxikitako bi dokumentu horien bitartez garatuko da.

Elaborazioa

Datuak ordenatu eta sailkatu ostean, genero-ikuspegitik aztertu ditugu atal guztiak. Marko teorikoan (ikus 1.3. atala) garatutako informazioaren arabera sakondu dugu analisisian, eta generoaren galbahetik pasa ditugu antolatzaileen erabakiak, bertsoak, aurkezlearen hitzak eta EITBren errealizazioa, besteak beste.

Interpretazioa

2016ko Bertso Eguneko ekitaldi nagusiaren EITBko emanaldiaren interpretazio orokorra egiteko, atalez atal eginiko elaborazio hori bildu eta laburtu dugu, ondorio nagusiak aurkezteko.

2. BERTSO EGUNA 2016: GENERO-IKUSPEGIAREN AZTERKETA

Aurtengo Bertso Egunaren emisioari genero-begirada bat eskaini diogu datozen ataletan. Metodologian aipatutako urratsak jarraitu ditugu horretarako: lehenik, dokumentazioaren berri eman dugu, jaialdiaren antolaketa eta ekoizpenaren irudi orokor bat jasotzeko (ikus 2.1. atala); bigarrenik, ekitaldiaren eta ikus-entzunezkoaren ezaugarrien deskribapena egin dugu (ikus 2.2. atala); hirugarrenik, ezaugarri horien genero-interpretazioa egin dugu (ikus 2.3. atala), eta azkenik, emanaldiaren inguruko interpretazio orokor bat egite aldera, ondorio zenbait bildu ditugu (ikus 3. atala).

2.1. Bertso Eguna 2016: aurkezpen orokorra

Aurtengo Bertso Eguna urtarrilaren 30ean ospatu da, Donostian, ohi bezala. Egun osoko egitaraua antolatzen du Bertsozale Elkarteak, eta hiru zati nagusitan banatu da aurren ere: goiza, arratsaldea eta gaua.

Azken urteetan kalez kaleko saioa egin izan da goizean, baina aurren bertso musikatuen aldeko apustua egin dute, Ahalduz Bertso Eskolaren proposamenari jarraituz. Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi eta Miren Amuriza aritu dira kantuan bat-batekoan, eta Rosi Lazkanok eta Nerea Elustondok bertso jarriak eskaini dituzte. Emanaldia Estitxu Eizagirrek aurkeztu du, eta saioan zehar klima aldaketak eragiteaz arduratu dira Idurre Eskisabel eta Eñaut Asurabarrena, gitarrak

musikatutako testuen bidez. Azken hauek Arkaitz Goikoetxea, eta Ainhoa Agirreazaldegiren laguntza izan dute gidoia eta gaiak lantzeko.

Gauean, berriz, festa giroan eskaini ohi da saioa, afalostean. Aurten 12 bertsolari izan dira kantuan: Amets Arzallus, Unai Mendizabal, Xabi Igoa, Onintza Enbeita, Alaia Martin, Eli Pagola, Maddalen Arzallus, Eneritz Artetxe, Iker Zubeldia, Jexux Mari Irazu eta Unai Agirre. Alaitz Rekondok gidatu ditu.

Arratsaldeko ekitaldi nagusia da, ordea, guk aztertu duguna, Kurasaalean egiten dena. Mila bertsozaletik gora biltzen ditu urtero, eta EITBk zuzenean eskaintzen du *eitb.eus*-en, eta ordu batzuk geroago ETB1en.

Ekitaldiak gai nagusi bat izaten du, eta hari horri jarraiki garatzen da saio osoa. Aurtengo gaia: erabakiak, edo zehatzago esanda, bertsolariak antolatzailearen deia jasotzen duenetik oholtzan gaia entzunda kantuan hasi bitartean hartu beharreko erabakiak.

Talde antolatzailean, ideia landu eta gaiak prestatzen, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Eneko Lazkoz eta Urko Casado aritu dira, bertsolariak denak. Honela azaldu du gai nagusiaren jatorria Jon Agirresarobek, Bertso Eguneke talde teknikoko kideak – talde antolatzailearekin harreman zuzena izan du prozesu guztian zehar:-

Antolatzaileek abiapuntutzat hartu zituzten Andonik (Egaña) eta Maialenek (Lujanbio) EHU-ko lehengo urteko udako ikastaroetan emandako bi hitzaldi. Andonik azaldu zituen deia jasotzen duenetik saioa iristen den egunera bitartean bertsolariak hartu beharreko erabaki guztiak, kantari hasi aurretikoak. Maialenek, berriz, oholtzan hartu beharrekoak. (Ibarzabal, 2016c)

Talde antolatzailearen esku egon da, baita ere, ekitaldian kantatuko duten bertsolariak aukeratzea. Hamarkotea ondorengoek osatu dute: Unai Iturriaga, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Etxahun Lekue, Fredi Paia, Xabier Terreros, Jon Maia, Oihana Bartra, Julio Soto eta Agin Laburu. Aitziber Garmendiak egin ditu aurkezle-lanak.

2.2. Bertso-ekitaldiaren deskripzioa

Deskripzioa egiteko, aurrez aipatutako bi dokumentu baliatu ditugu: batetik, taula (ikus I. eranskina), eta bestetik, bertsoen zerrenda (ikus II. eranskina). Taulak ekitaldia

gaika edo ariketaka banatzea ahalbidetu digu, eta urratsez urrats aztertu ahal izan ditugu bai une bakoitzeko testuingurua, bai ikus-entzunezko transmisioa. Ariketa bakoitza planteatzeko eta bertsolari bakoitza enfokatzeko duten modua jaso dugu bertan, baita bertsoen interpretazio laburra ere.

Beste dokumentuan, berriz, 120 bertso zerrendatu eta zenbakitu ditugu, lanean erreferentzia egiten zaien aldiro bertan bilatu ahal izateko.

2.3. Bertso-ikuskizuna eta genero-ikuspegia

2.3.1. Genero-ikuspegia antolatzaileen erabaketan

Bertso Eguna urtarrilean ospatzen den arren, udazkenean hasten dira antolatzaileak biltzen. Jon Agirresarobek azaldu duenez, arratsaldeko ekitaldi nagusiko bertsolariak lotzen dituzte lehenbizi:

Urri-azaro aldera deitu genien bertsolarietara. Taldeak aukeratu nahi izan zuen erabaki horiek hartzerakoan libre xamar ikusten duen jendea. Ba, adibidez, egotea tartean saio askori ezetz esaten dion jendea, egotea tartean zer egin nahi duen garbi ez daukan jendea, eta nahi ez duena... orduan hamarkote klasiko xamarretik kanpo ateratzen zen. Klasikoa diot, Bertso Eguneko hamarkote horretan bazeudelako batzuk Bertso Egunean lehenengoz kantatzen zutenak. Baina horretaz kontziente ziren antolatzaile taldeko jendea eta nahita egin zuten. Hori beraiei uzten zaie aukeratzen eta bueno, ba, azertatzen da edo ez. (Ibarzabal, 2016c).

Zortzi mutilez eta bi neskez osatutako taldea eratu zen azkenean. Oihana Iguarani Gipuzkoako Txapelketan buru-belarri murgilduta zegoenean iritsi zitzaion saiorako gonbita:

Egunean zehar hainbat saio izango zirela agertu zidan hasieratik, eta ni Kurasaaleko saiora gonbidatu nahi nindutela. Arratsaldeko saio nagusia zela, Kurasaalean egiten dena, telebistak grabatzen duena, kokatze aldera bota zizkidan azken horiek. Nik, banekiela ze saio zen eta hamar bertsolari izango zirela bertan kantuan, zerrenda esan zidan. Momentu hartan harritu egin ninduen nesken izen gehiago ez entzuteak, egia esan. Bi Oihana ginela ohartu nintzen, hori bai. (Ibarzabal, 2016d)

Ekitaldia bi ataletan banatu zen, eta hortaz, bertsolariak bi taldetan: lehenengo atalean Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Unai Iturriaga eta Etxahun Lekue aritu ziren; bigarrenean, Oihana Bartra, Agin Laburu, Jon Maia, Xabier Terreros, Fredi Paia eta Julio Soto. Neska bakoitza talde batean sailkatu zuten.

Saioa bi ataletan zatitzeko arrazoia gaiaren hasierako planteamenduan bertan aurkitzen da; Andoni Egañaren hitzaldiaren muinak osatzen du lehen zatia: deia jasotzen denetik saiora iritsi orduko erabakiak. Bigarrena, aldiz, Maialen Lujanbiorenak: oholtza gainean, bertso-jardunean hartu beharreko erabakiak. Bertsolariak bi zati horietan gutxi gorabehera zeren arabera sailkatu zituzten azaldu du Agirresarobek, baita gerora zein ondorio atera zuten ere:

Lehenbiziko laukoteak plazan asko ibilitako bi bazituen, lidertza-lana egin zutenak. Batik bat Andoni, baina Unai ere hor zegoen; oholtza hori zer den badakitenak, bada leku berezi bat, asko inponitzen du. Orduan, pixkat bai izan behar duzu “*echao palante*”. Bigarrenengo taldean falta zitzaigun agian lider papera hartuko zuena. Seguraski bagenekien, ba, Oihanak (Bartra) ez zuela hartuko, Juliok ez zuela hartuko... horren sentazioarekin ere pixkat gelditu ginen. Hau da, bertsolari aukeraketan baino, taldeen banaketan ez genuela ondo egin. (Ibarzabal, 2016c)

Lider potentzialak nortzuk izan daitezkeen antolatzaileek sumatzen dute, baina baita EITBko errealizadoreek (ikus 3.3. atala) eta bertsolariak eurek ere. Oihana Iguaranek bere papera zein izango zen aurreikusi zuen egokitu zitzaion taldea zein zen jakin eta segituan, eta helburuak finkatuta joan zen saiora:

Nik saioa handi ez zitzaidala geratzen agertu nahi nuen, eta ze laukote egokitu zitzaidan ikusita, banekien nire ikuspuntua (baita agian publikoak nigandik espero zuena ere) ezberdina izango zela. Sinaduratxo hori jarri nahi nion saioari, gazte, berri baten freskotasunetik, baina inozentziarik gabe. Hori zen saioa hasi aurretik nire buruari jarritako helburua. Hara iritsi bezalaxe jabetu nintzen zein izango ziren egin beharreko lanak eta nire sinadura uzteko aukera oso murrizta zen: ofizio bat, atzekoen ariketan erantzun bat eta bigarren ofizioa puntuka (pertsonalki eskarmentu gutxien dudan ariketa). Momentua gozatu behar nuela erabaki nuen, jakitun ni gustura ikusten baninduen publiko orokorra (ez aditua) ere hor-nonbait geratuko zela. (Ibarzabal, 2016d)

Bertso Egunari forma ematen dion talde antolatzailea urtero da ezberdina. Bertsozale Elkarteak proposatzen die lan hori horretarako egokiak iruditzen zaizkion pertsoneri, eta normalena da horrelako ikuskizun handiak prestatzen esperientziarik ez izatea. Hala dio Agirresarobek: “Guk espektakuluak ez ditugu behar beste kontrolatzen. Urtean behin egiten dugu hau eta bertan gidoilari ibiltzen direnek ez daukate kontzientziarik, ba, zer suposatzen duen, ez? Ikuskizun osoa hasi eta buka, telebistarako batik bat...” (Ibarzabal, 2016c).

Elkartetik urtero irizpide batzuk ematen zaizkio talde antolatzaileari, Bertso Eguna zenbait baloreri jarraiki eratu dadin. Irizpide horiek generoari, lurraldetasunari eta belaunaldi-aniztasunari dagozkionak dira, besteak beste.

Egia da aurten kupoa juxtu xamarrean bete dugula. Bi bertsolari zeuden bakarrik emakumeak. Gero aurkezlea ere emakumea da eta lidertza hartzen du, eta horrek agian pixkat tapatzen du, kopurutan eta. (...) Aurten generazioena eta generoena pixkat *a la ligera* pasatu dira, eta lehentasuna eman diogu bertsolarien hautaketari. Elkarteak pertsona batzuegan uzten badu ardura, ez da atzetik ibiltzen “ei, eske arabarra falta da”, “ei eske emakume gutxi dira” edo “falta da Egañaren generazioko beste bat”... Gu hor atzetik ez gara hasten. Bestela da, pixkat... “bueno ba orduan zuek egin ezazue!”. Azkenean baloratu behar dituzu. (Ibarzabal, 2016c)

Agirresarobek azpimarratu du Bertso Egunaren osteko balorazioan ideia orokor batzuk atera zituztela, baina kide guztiak ez zetozeela bat puntu guztietan; hortaz, baliteke berak hemen esandako gauza batzuekin talde antolatzaileko kide guztiak ados ez egotea.

2.3.2. Bertsolaritzaren definizioa: burua eta gorputza

Aurtengo Bertso Egunak bertsolaritzaren beraren baitako gai bat aurkeztu duenez, metabertsolaritza egin da kasu askotan. Hori dela eta, aukera paregabea izan da, bakoitzaren galbahetik, bertsolaritzaren eta bertsolariaren definizioak entzuteko. Bertsolaritza burua da, edo burua eta gorputza?

120 bertsoetik bakarrak definitzen du ariketa mental soil gisa, gorputzasunari aipamenik egin gabe; zortzi dira, ordea, gorputza nolabait azaleratzen dutenak

bertsolaritzaz aritzerakoan. Horrek ez du esan nahi, noski, bertsolari bakoitzak definizio batean edo bestean soilik sinesten duenik.

Buru-ariketaren aldarri nagusia Andoni Egañak egiten du, arratsaldeko ekitaldiko lehenengo bertsoaren lehenengo puntuan, agurrean: *“Bertsolari da idea ta hitz/ inprobisatzen dituna”* (ikus 1. bertsoa).

Joxerra Garziak, Jon Sarasuak eta Andoni Egañak berak *Bat-bateko bertsolaritza* (2001) liburuan bertsolariari emandako definizioetatik hurbil dago puntu horretan esana: hitza, errima, neurria, arrazoa... Baina Egañarena kenduta, buru-ariketaren presentzia nabarmentzen den beste bertso guztietan gorputzarena ere azaleratzen da. Adibidetzat, Fredi Paiaren lehenengo bertsoa: *“Azken aulkia izan liteke / ideia onen erbeste / lehena berriz kamara denen / jo-puntu ta zilborreste”* (ikus 46. bertsoa).

Oholtzako aulkien ordenaz ari dira kantuan; zenbatgarrenean esertzea gustatzen zaien azaldu dute aurretik bideo batean. Azken aulkian eserita, ideia on guztiak kentzen dizkiotela adierazten du Paiak; hor egiten dio erreferentzia ariketa mentalari. Lehenengoan jarriz gero, ostera, kamera denen jo-puntu izango da, eta hori ere ez du gustuko. Kamerek enfokatuko dutena bere gorputza da, noski, eta badirudi horrek traba egiten diola, beste bertsolari askok sarritan adierazi duten moduan. Azken agurrean berriro bistaratzen du gorputza Paiak, honen jarduera fisiologikoak aipatuz zuzenean: *“Bihotza daukat taupaka / oilo-ipurdiz azala...”* (ikus 119. bertsoa).

Metabertsolaritza ariketarik sakonena Jon Maiak egiten du, bakarka. Gaiak bertsotan aritzerakoan zein “marra gorri” dituen galdetzen dio, eta hiru bertso kantatzen ditu sorkuntza prozesua deskribatuz:

...eta bizitzan zer pasa zaidan / ur hortatik edatea / norberegandik sortu behar da / gero fikzio, artea...” (ikus 71. bertsoa)// *“Gaia entzunda burua jeitsi / ta une batzuk itxaron / umorerako gaia duzu hau / benga, abitu zaitetz Jon / buelta ta buelta espiral baten / zoritxar eta zorion / norbere baitan bidai luzeak / beti ez du egiten on...”*// *“Errebeldea izan nahi nuke / nire errimen pausotan / ta publikoa galdu nahi nuke / fantasiaren basotan / ideia asko izaten dira / gure burmuin lausotan / funanbulista batzuk bezela / ibiltzen gera bertsotan....* (ikus 73. bertsoa).

Jon Maiak oso ikuspuntu introspektibotik deskribatzen du bertsogintza bakarkako honetan, barne-plano batean kokatzen du sorkuntza, mentaletik baino gehiago emozioaletik. “Burmuin lausoak” aipatzen ditu, buru-ariketari erreferentzia eginaz, baina egia da gorputzari eta emozioei lotutako ezaugarriak darabiltzala metafora gisa, ariketa definitzeko: “ur hortatik edatea”, “burua jaitsi”, “abiatu zaitez”, “buelta ta buelta”, “bidai luzeak”, “errebeldea izan”, “pausotan”, “funanbulista”...

Gorputzetik jarraituz, esanguratsua da Oihana Iguaranen hasierako agurra, Andoni Egañarenaren atzetik datorrena: “*Bertsolaritza bide bat bada / hemen hiru ate, hara / erabaki bat bihur daiteke / pausoaren zangoztraba / oinez eroriz ikasten bada / ubelduta gatoz jada / ate zuzena ez da doana / zuzenean helmugara / bide zuzena noiz eta nola / okertu hautatzea da*” (ikus 2. bertsoa).

Bertsolari metodiko eta perfektuaren irudia amildu, eta bertsolaritza, bizitza bezala, gizatasuna, erratzea eta erortzea dela aitortzen du Iguaranek hasieratik. “Pausoaren zangoztraba”, “oinetz”, “ubelduta”... bezalako metaforekin bertsoari eman izan zaion kutsu solemne eta ukiezina ezabatzen du.

Etxahun Lekuek ere egiten du bertsogintzaren eta neke fisikoaren arteko konparaketa, oraingoan gaiak berak horretara bideratuta. Bertsolaritzak kirola egitea zailtzen duen arren, bertsoa bera ere nahiko esfortzu dela adierazteko honela kantatzen du: “...bertso-afaria da nahiko / fondoko karrera” (ikus 16. bertsoa) // “...Behobiatik Donostira / jendea dabil alai / 30.000 lagun / doaz hortxe porai / ea nor dan ordu bian / kantan eiteko gai” (ikus 18. bertsoa).

Bertsolaria ez da buru-errimatzaile soil bat, arrazoitzen dakiena; nekatu egin daiteke, erre egin daiteke eta bertso-afari bat luze egin dakioke, ezinbestean bere gorputz eta emozioei lotuta dagoelako. Hori adierazten du Etxahunek: maratoniak korritzen dituztenak neka daitezke, baina bi ordutan zehar kantuan ari den bertsolaria ere bai.

Amaitzeko, Oihana Bartraren hasierako eta amaierako agurrei erreparatuko diegu. Ondoko bertsokideek eta publikoak transmititzen dioten babesaz ari da, eta lotura egiten du bi bertsoen artean, hasierako aulkien gaiari erreferentzia eginez. Honela kantatzen du: “...nik saio aurretik eskertzen ditut / nire kideen laztan batzuk / bi edo hiru aulki horretan / difuminatuta, arrunt / gero saioan nire bertsoei / esker destakatuko

dut” (ikus 45. bertsoa) // “...*gaur aulkiak ez zuen / nire interesa / zuek izatekotan / ondoko babes*a” (ikus 117. bertsoa).

Kideen laztanek eta babesak ez daukate lekurik bertsolaritzaren definizio tradizionalan, baina hemen ikusten da Bartrarentzat beharrezko baldintza direla bertsotan gustura egiteko. Norberarenaz gain, ondoan dauden gorputzek eta emozioek badute eragina, orduan, inprobisazio-ariketan. Baina gorputzari buruz hori baino gehiago ere esaten du bertso horietan.

Gorputzkerak: emakumeen irudiak

Emakume bertsolariek beraien gorputzarekiko izandako jarreraren arabera, bi multzo desberdin zituen Uxue Alberdik (2014): *Drag King*-ak batetik, maskulinitatea mimetizatzea erabaki zutenak, feminitate-markak ezkutatu; *panpinak* bestetik, “politikoki politak”, oholtzara igotzerakoan feminitate marka horiek azpimarratzen dituztenak. Azken talde honetan sailkatu zituen 2000. urtetik aurrera plazaratzen hasi ziren emakume bertsolariak, tartean Miren Amuriza, Alaia Martin, Jone Uria edo Uxue Alberdi bera. Teoria hori baliagarria izan zitekeen bere garaian trantsizio bat azaltzeko, baina zorionez, oholtzetan kantuan ari diren emakumeak ugaritu egin dira eta bi taldetan soilik banatu ezin den multzo heterogeneoago bat osatzen dute orain. Uxue Alberdiren ondorengo belaunaldietako denek ez diote “panpinaren” patroiarri erantzuten. Badira oholtzara igotakoan feminitate-markak azpimarratzen dituztenak, bai, baina badira horiek disimulatzen dituztenak ere, edo besterik gabe, kalerako erabili ohi duten estilo berbera darabiltenak, femeninoa izan edo ez. Gero, zeresanik ez, norbere estiloak eboluzionatu egin dezake urtetik urtera, edo saioaren arabera, edo egunaren arabera. Nola kabitu multzo bitan hainbeste gorputz, hain egoera desberdinetan?

Bertso Egunari berriro arreta jarritz, Oihana Bartra eta Oihana Iguaran ere ez dira guztiz kabitzen bi talde horien deskribapenetan, berez Bartra Uxue Alberdiren belaunaldi berekoa izan arren. Ez dituzte beraien gorputzak ezkututzen, elegante doaz, baina ez dituzte gorputzu Uxue Alberdik aipaturiko beste ezaugarri batzuk:

Lehenbizikoz ikusi ditugu oholtzan takoiak, ezpain margotuak, gona motzak, arropa estuak, eskote zabalak... Kantaera ere leunagoa dugu, gorputzak finagoak, irribarrez kantatzen dugu askok, atseginak eta politak gara. Egokiak emakume gisa. (Alberdi, 2014: 153)

Alegia, oholtzan egoteko Oihana Bartrak eta Oihana Iguaranek ez dute janzkera femenino hegemoniko horren alde egin (ez takoirik, ezpain margoturik, gona motzik, eskote zabalik), ezta aurpegiera femenino hegemoniko horren alde ere (esaterako, Oihana Iguaranen aurpegierak irribarrea baino gehiago adierazi dituztela halakoak: ezustea, haserrea, desadostasuna, jakin-mina...).

Hala ere, kontziente dira beraien gorputzetan badela zerbait deigarria, norma hausten duena. Ekitaldiaren bigarren zatiaren hasieran azaleratzen da hori. Aurrez esan bezala, bideo bidez azaltzen dute bertsolariek oholtza gaineko zenbatgarren aulkian esertzea gustatzen zaien, eta zein den arrazoia. Ondorengoak dira adierazpenak:

Xabier Terreros: Hemen edo hemen (azken aurrekoa edo azkena). Eta nik aukera izanez gero, hartuko nuke hau (azken aurrekoa) igual pixka bat babestuxeago egoteko ere. Nik ahal dela beti besteei uzten diet, besteari, joan dadila, egin dezala.

Fredi Paia: Berez erdian. Babesa, ez? Babesa ematen du alde batera jendea, bestera jendea. Normalean erdian besteak hasten dira bertsotan; ematen du besteak hasten direnean bertsotan barruan zerbait aldatzen dela, bestela norberak aldatu behar duena kolpean lehenengo bertsoaren bidez.

Julio Soto: (...) Ahal banu lehenengo aulkian behintzat ez. Lehenengo agurra ez nuke kantatuko hartara, eta nirea pentsatzeko denbora gehiago izango nuke.

Oihana Bartra: Hemen, bigarrenean edo hirugarrenean, ertzetan ez. Horrela, apur bat babestuta, apur bat *desapercibida* pasatzeko.

Jon Maia: Bigarrenean edo. Agurra pentsatzeko tarte txiki bat nahikoa da eta bestela ba, seirok kantatzen dugun gaietan nahiago dut hasiera aldean kantatu eta ez dena esanda dagoenean.

Agin Laburu: Ni lehenbiziko aulkian eseriko nintzateke. Gustatzen zait inizatiba eramatea eta jolastea besteekin batera.

Pare bat ondorio nagusi atera daitezke erantzun horietatik: batetik, lehenengo aulkian ez liratekeela beraien borondatez jarriko (6tik 5); bestetik, jende artean babestuta sentitzea eskertzen dutela (6tik 3).

Lehenengo aulkia errefusatzen duten gehienek bertso-sorkuntza errazteko estrategia baten baitan egiten dute; hasierako agurra pentsatzeko tarte bat bilatzen dute, saioa hasi dela asimilatzekeo prozesu bat, edo besteen bertsoen bidez norbera ere

aktibatzea. Xabier Terreros eta Oihana Bartraren adierazpenak dira salbuespena; horiek ere ertzak saihestu nahi dituzte, baina estrategia aldetik baino, babestuta sentitzeko.

Ertzak inori gustatu ez arren (Agin Labururi salbu), hiruk baino ez dute erabiltzen “babes” hitza. Fredi Paiak ere aipatzen du jende tartean egotearen babesa bilatzen duela, baina Terrerosek eta Bartrak ez bezala, honek bertsoarako abantaila gisa ere definitzen du. Bartrak, gainera, babesaz gain, oharkabean pasatzeko nahia adierazten du, beste bostek ez bezala. Bideoaren ostean botatako bertsoan azaltzen du hobeto esan nahi zuena: “...*bi edo hiru aulki horretan / difuminatuta, arrunt / gero saioan nire bertsoei / esker destakatuko dut*” (ikus 45. bertsoa).

Eserita dagoenean jendearen arretarik ez deitzea nahi du Bartrak, bere bertsoengatik baloratua izatea soilik. Baina interesgarria da beste bertsolari gizonek ez dutela sentitu aulkietan daudenean ere arreta dei dezaketenik. Gorputza sartzen da beste behin jokoan, oholtza horretan Bartra badelako gorputz desberdin bat, bere generokoa izate hutsagatik deigarria dena, bakarria delako.

“Difuminatuta” egotea eskatzen duenean, 90eko hamarkadan bertsoan hasi ziren emakume haien sentazio bera esperimentatzen ari da, oholtza gaineko subjektu femenino bakarria izatearena eta “intelektotik bakarrik” lehiatu nahi izatearena.

2.3.3. Genero-markadun gaiak eta bertsoak

Marko teorikoan azaldu legez, neutroak diruditen baina ez diren gaiak proposa daitezke edozein bertso-saiotan, eta, besterik gabe, neutrotik ezer ez duten gaiak ere bai. Aurtengo Bertso Egunean aurki daitezke zenbait adibide. Gaiak bideratuta edo bideratu gabe, genero marka nabarmena duten bertsoak ere eman zituen ekitaldiak.

Antolatzaileen deiak

Agurren osteko lehen ofizioa Andoni Egañari eta Oihana Iguarani egokitu zitzairen. Bi audio entzuten dira hasieran, antolatzaileen bi dei ezberdin: bata, Egañari zuzendua, gizon baten ahotsa da eta adiskide kutsuz hitz egiten dio (hikan, eta saio ostean “festa latza” egongo dela gogoraraziz); bestea Iguaranentzat da, *Lanku*-tik deitzen dion emakume bat da eta askoz modu formalagoan zuzentzen zaio. Saioan kantatuko duen lehenengo aldia dela gogorarazten dio, eta gainerako guztiek baietza eman dutela jada.

Bertsolari beteranoaren eta gaztearen saio aurreko sentsazioak bistaratu nahi zituzten gai honen bidez, baina badago aldea dei batetik bestera. Gizonak gizonari eta emakumeak emakumeari deitzeaz gain, bakoitzak mundu bat iradokitzen du: Egañarenak, alderdi soziala (“Mikel nauk, Xabierren lehengusua, iaz elkarren ondoan afaldu genian”), festa, konfiantza, erraztasuna; Iguaranenak seriotasuna, lehen aldia, erakundearen deia, gainerakoek baietza eman ondoren deitzen dutena (ordezkagarriagoa, beraz), festaren aipamenik ez da egiten, gaztea bera izan arren... Bertsolari beteranoa eta gaztea irudikatzea zen asmoa, baina deietan, horretaz gain, genero posizioak ere markatu dira. Aipagarria da Oihana Iguaranek 25 urte dituela eta Gipuzkoako finalista izan dela, beraz, gutxi du hasiberritik eta esperientzia faltatik.

Kontziliazioa

Etxahun Lekueri eta Unai Iturriagari egokitutako ofizioan, kontziliazioa zen gaia (hala zehazten du antolatzaileen gidoiak, ikus VI. eranskina), baina bertsoaren eta kirolaren arteko kontziliazioaz ari ziren, hau da, kirol-planen baten eta bertso-saioaren artean aukeratu beharraz.

Kirolari talde bat sartzen da Kurasaaleko aretoan eta bertsolariei beraiekin entrenatzeko gonbita egiten diete (gehienak emakumeak dira, eta beraiek hitz egiten dute). Bertsolariek, bereziki Iturriagak, denbora behar dute gaia ulertzeko, egia baita ez dela oso argi ulertzen hasieran. Baina azkenean antolatzaileek aurreikusitako ildotik jotzen dute, kirola eta bertsoa uztartu ezinetik.

Bertso Egunaren gaia erabakien ingurukoa bazen, bertsolari askok haurren zaintza eta bertso-saioak kontziliatzeko orduan dituzten zailtasunak ezagututa, antolatzaileen aldetik ezin egokiagoa litzateke horren inguruko hausnarketa bat egiteko aprobetxatzea³.

Umore klasikoa

Andoni Egañak atzekoei kantatu beharreko ariketan, fisikoari eta adinari erreferentzia egiten dioten adar-jotzeak agertzen dira; Iguarani kantatzerakoan, ordea, emakume zintzoaren estereotipoa nabarmentzen da.

Hasieran aurkezlea bera da Egañari gaia jartzerakoan txistea egiten duena: “Zuek klase-kideak zineten, beno... zu errepikatzailea izango zinen”. Umore hegemonikoaren beste zantzu bat agertzen da “kinto afarian”, Iturriagaren bertsoan: “*ja ez zara klaseko*

³ Gogoan izan behar da, Unai Iturriaga eta Etxahun Lekue guraso direla.

handiena / ta ja ez zara gaztea / pozgarria da zu burusoil ta / ajatuta ikustea” (ikus 24. bertsoa).

Klasiko bat dira gizonetzkoen burusoiltasuna, zahartzea, loditzea... eta oraingoan Egañari egokitzen zaizkio denak. Baina emakumeei zer esaten zaie kinto afari batean? Iguarani kantatzerakoan ez da fisikoaren aipamenik egiten, gaztaroko eta helduaroko izaeraren konparaketa bat baizik: “*Gogoan daukat lagun Oihana / nexka lau ta laua zela / irribarrea egiten zuen / moja nobiziek bezela / gaur egunean adar jotzerik / horri eztaukagu bela / nabaritzen da bertso-plazatan / asko gaiztotu dutela*” (ikus 19. bertsoa).

Iturriaga “reboltoso” bazen, Iguaran txintxo, adar-jotzeko erraza. Bertsoan dabilenetik gaiztotu egin dute (besteek), eta orain badirudi beraien maila berean dagoela, defendatzen ikasi duela. Iguaranek berak ere honela erantzuten dio: “*gaiztakeritan maisu bikaina / baita Andoni Egaña*” (ikus 20. bertsoa).

Beraz, rol eta adar-jotze estereotipatu samarrak azaleratzen dira ariketa honetan: Egaña gizon zaharkitu-azeria, Iturriaga mutil gaiztoa, Lekue mutil zorrotza eta Iguaran neska formala, plazandre izan aurretik, plazetan gizonak gaiztotu dutena.

Umeak eta amama

Unai Iturriagak bakarkako lehenengo bertsoan gurasotasunari egiten dio erreferentzia, eta lehen aipatutako kontziliazioaren arazoa bistaratzen du puntu honetan: “*haurrak negarrez utzita egin dut / etxetik aspaldi alde*” (ikus 39. bertsoa). Haurrak etxean utzi behar izan ditu beste norbaiten kontura, zer eta kasurik egiten ez dioten bertso-saio batean kantatzeko.

Ñabardura txikia da, baina bakarkako azkeneko bertsoa honela amaitzen du: “*ta hurrengo urtean etorriko da / kantura zuen amama*” (ikus 41. bertsoa). Gaztelaniatik hartutako esamoldea da, gustuko ez dugun zerbait beste batek egin dezala adierazteko erabiltzen dena (*que lo haga su abuela, su madre*). Emakumearen presentzia ohikoa da hainbat hizkuntzako hitz negatiboetan.

Etixerako moduko mutila

Ekitaldiaren bigarren ataleko ofizio bat honako hau. Oihana Bartraren aginduetara bizi da Agin Laburu, bere koadrilako laguna, eta hark esandakoa egin behar izaten dute denek. Bartra, paperean sartuta, pozik ageri da egoerarekin: “*...ez didazu sekula / egin*

enbarazu / beti kapritxoekin / topera naukazu / etxera bezalako / mutila zara zu” (ikus 49. bertsoa).

Ezarri dioten pertsonaiaren ahotik ari den arren, “etxerako moduko mutila edo neska” esandakoan, beti deskribatzen da norbait formala, etxeko normetara egokituko dena eta arazorik emango ez duena, “etxea” bere zentzurik tradizional eta instituzionalenean ulertuta. Normatik irteten dena ez da etxerako modukoa.

Anai-arreba ezezaguna

Fredi Paia eta Jon Maia dira gai honetako protagonistak. Anaiak dira biak, eta beraien amak aspaldi izandako seme bat ezagutu edo ez erabaki behar dute, bakoitzak ikuspuntu batetik (positiboa edo negatiboa).

Aurkezleak seme bat dela argi esaten badu ere, bertsolariek despistatuta edo, ez dute kontuan hartzen. Abizenen gerra bat hasten dute orduan, senide hori Paia edo Maia izan, holako edo halako izaera izango duela aurreikusiz; abizenak autoritatea adierazten du, aitatasuna. Azkenean, adostasunik lortu ezinda, Paia ez duela anai-arrebaz ezer jakin esaten du, eta honela erantzuten dio Maiak: “...*ahaztu behar det orain artean / geneukan anaiarte / gure arteko lanbro giroa / lotzen gaituen katea / salbazioa izan daiteke / arreba bat izatea*” (ikus 63. bertsoa).

Anaien arteko liskarrak baretuko dituen arreba bakezale bati egiten dio erreferentzia, etxeko gizonen artean armonia jartzen duen etxeko emakumeari.

Jubilatuen katalogoa

Aurkezleak pertsona erretiratuen zenbait eredu aurkezten ditu, eta extrak doaz oholtzatik igarotzen, banan-banan. Honelakoak dira “modeloak”:

1. Ikastaro guztietara apuntatzen dena, “*macramé, punto de cruz...*”. Emakumea da.
2. Beti umezain dagoena. Emakume bat sartzen da karrotxo batekin.
3. Beti obrei begira dagoena. Gizona da. Donostiako autobus geltokiko obrei egiten die aurkezleak aipamena.
4. Urte erdia Benidormen pasatzen duena. Aurkezleak arropen buruzko iruzkinak egiten dizkio: “*brilli-brilli jantzita*”, “*ideal, oso guapa*”, “*emakumeok joaten gara gabonetako arbola bezala, dena gainean jantzita, eta ondoan gizona Keler-eko kamisetarekin...*”.

5. Lana egiteari utzi ez dion jubilatua. “Autonomoa edo aktorea, besteik ez dago”, dio aurkezleak. Gizon bat sartzen da, erremintekin. Umeak zaintzen dituen amonak, beraz, ez du lanik egiten.
6. Kirola egiten hasi dena. Emakume bat, erraketa batekin. “Paseatzera, *danza del vientre...*”

Bai genero-estereotipoak, bai erretiratuei buruzko topikoak, denak ezin hobeto erreproduzitzen dira gai honetan. Jantzkerari, itxura fisikoari, josteari, zaintzari eta gizonezkoei buruzko iruzkin denak emakumei egiten zaizkie. Gizonak jarri dituzte lanean (modu profesionalean), eta baita besteen lanak zaintzen ere (obrak ikusten, adibidez). Nolanahi ere, aipatu behar da Bertsozale Elkartearen gidoian, bestelako generorolak agertzen direla (ikus VI.3. iruzkina). Esate baterako, haurtzainak gizona behar duela dio zirriborroak. Hortaz, antolatzaileen asmoa ez dirudi generorol estereotipatu horiek sorraraztea zenik, baina, ekitaldiaren diseinuaren uneren batean, extra horien generorolak aldatu egin ziren, eta estereotipoen alde egin.

Aurkezpen honen ostean, Oihana Bartrak, Xabier Terrerosek eta Agin Laburuk kantatzen dute, eta gaiak dituen genero marka guztiak kontutan hartuta, bertsoetan ez da horrelako estereotipo deigarriarik azaleratu. Hirurak jubilatuen rol ezberdinak txandakatzen joaten dira, baina egia da Bartrak une askotan ikastaro guztietara apuntatzen den jubilatuen rola hartzen duela, eta baliteke aurreko “katalogoaren” ondorio izatea.

Agin Laburu jabetzen da aurkezleak esan gabekoaz, eta honela laburtzen du koplaren batean: “*ze bi modelo batera dira / kasu horretan laguna / haurrak zaintzen dituen eta / lanian segitzen duna*” (ikus 92. bertsoa). Hau da, inoren haurrak zaintzen jarraitzen duen horrek lanean jarraitzen duela, erremintarik gabe bada ere.

Txanogorritxo eta otsoa

Aukeratu zure abentura liburuaren estiloko ariketa jartzen diete Fredi Paiari eta Julio Sotori. Bertsolariak aukeratzen dute istorioa nola garatuko den. Txanogorritxo eta otsoa dira kasu honetan, eta aurkezleak istorioarekin jarraitzeko aukera bi proposatzen dizkie uneoro. A eta B ateen ordezkatzen dituzte bi aukera posibleak, eta bertso bidez aukeratzen dute bata edo bestea.

Istorioan aurrera doazela, momentu batean ondorengo aukerak ematen dizkio aurkezleak otsoari (Soto):

Bitartean otsoa amonaren etxera joan da bizi-bizi, Txanogorritxori aurea hartuta. Julio, zuk aukeratu behar duzu:

- a) amona jan eta bere arrokekin mozorrotzea
- b) amonarekin oheratzea

Publikoan algarak eragiten dituen aukera bat da b) aukera; amonarekin oheratzeko aukeraren inguruan soilik otsoari galdetu zaionez, amonaren oniritzirik gabe oheratzeaz mintzo gara, noski. Beste modu batera esanda, amona bortxatzeaz. Emakumea nagusia izateak egoera komiko bilakatzen du. Beharbada desberdin jasoko litzateke publikoan “Txanogorritxuren ahizparekin oheratzea” edo “Txanogorritxuren aitarekin oheratzea”, baina amonarenak funtzionatzen du.

Txanogorritxo eta otsoa kopletan librean ari direnean, genero markadun zenbait bertso zerrendatu daitezke:

Esaterako, Sotok Paia (Txanogorritxo) desidealizatzen du, “azpitik” depilatuta ez dagoelako: *“Idealizatuta zintudan ta / orain ze korapiloa / sudurrean ile bat daukazu / eta azpian piloa”* (ikus 105. bertsoa).

Paiak Txanogorritxo *drag queen*-a aipatzen du gero, ileei eta bizarrari erreferentzia eginaz: *“Dena modernizatzen ari da / nahiz eta ez izan duina / beitu ze bizar, ni ere nauzu / Txanogorritxo drag queen-a”* (ikus 110. bertsoa).. Hurrengo koplari “La Otxoa” abeslari trabestia izendatzen du, hitz jokoa eginez.

Amaitzeko, Sotok amona aipatzen du beste behin, aurreko “katalogoko” rol batean: *“Baina fallotxo bat dauka honek / joan da aurrekoz atzeko / pena amona jan dudala lehen / gure umea zaintzeko”* (ikus 113. bertsoa).

Aipamen gisa, azpimarratzekoa da oholtzan aurrera eta atzera ibili diren extra eta laguntzaileen gehiengoa emakumeek osatzen dutela, baina *atrezzoaren* parte dira, hala ere.

2.3.4. Bertsolarien gorputzen arteko harremanak ikus-entzunezkoan

Antolatzaileen eskutan dago espektakulua bertatik bertara ikusiko dutenek jasoko duten irudi orokorra; hein handi batean kontrola dezakete gaien planteamendua, oholtzako efektuak, atrezzoak... baina ikus-entzunezko produkzioa tartean sartzen

denean, beste batzuen begiek zehaztuko dute etxean dauden bertsozaleek ikusiko dutena:

Hau EITBren produkzio bat izaten da. Guk egiten diogu ekitaldia saldu EITBri, eta horrek esan nahi du EITBk ekartzen duela bere ekipoa. Aurretik egiten ditugu hiru lau bilera, zehazteko nola izan behar duen ekitaldiak, adosteko argiztapena eta kamaren posizioa. Baina erabaki guztiak EITBrenak dira. Errealizadore batek ulertzen du guk ze intentzio daukagun. Baina ulertzen du bere modura. Eta hori ejekutatzen du, kamaren posizioa eta abar, bere modura. Antolakuntzak informazioa ematen dio baina ez da gauza adostu bat. (Ibarzabal, 2016c)

Kursaalean eserita dagoen bertsozale batek berdin ikusiko ditu Oihana Iguaran eta Andoni Egaña, bata bestearen ondoan bertsoan. Etxean dagoenak, ordea, errealizadore baten filtrotik pasatutako Iguaran eta Egaña ikusiko ditu, hark azpimarratu nahi dituen xehetasunekin. Horretaz jabetu izan dira Bertsozale Elkartean ere:

EITB-k nahi izaten du nahi duena egin, bai finaletan, bai Bertso Egunean. Eta nire ustez, beraiek gehiago fijatzen dira gauza estetikoetan benetan kontenidoan baino. Nire ustez kontenidoa ez dute behar adina asimilatzen, ariketa horretan zer nahi zen edo zer, gero emaitza ere halakoa da. Askotan ariketa batean elementu berezi bat sartzen badugu, erabat ari dira elementu berezi hori ondo eman nahian. Hori ez da hain inportantea. (Ibarzabal, 2016c)

Txapelketetan EITB-ri zehaztaperen handiagoak eman behar izan dizkiotela adierazi du Agirresarobek, azkenean errealizazio “aspergarriagoa” lortzen duten arren, bertsolarien jarduna errespetatu dadin nahi dutelako Elkartetik. Egia da bertso-saio baten berezko estatikotasuna, posturen errepikapena eta mugimenduen mekanikotasuna errealizadore batentzat aspergarri gerta daitezkeela, eta hartualdi ezberdinen bat esperimentatzeko gogoia izan dezakeela. Kontua da zein bertsolarekin esperimentatzen duen, eta zeinekin ez. Berrogeita hamar urteko Euskal Herriko txapeldun baten primerisimo plano bat hartuko du, ala 20 urteko gazte batena? Iazko Bertso Egunaz oroitu da Agirresarobe: “Iazko zurea (Nerea Ibarzabal) ikusi duzu? Eramaten zaituzte oso aurrengo planora. Detalle plano bat da. Eta hor ba ez dakit errealizadorea non zegoen” (Ibarzabal, 2016c).

2016ko Bertso Egunean ere, hartualdiak aldatu egiten dira bertsolariaren arabera. Plano guztiak aztertu ondoren, esan daiteke bi faktore nagusik erabakitzen dutela desberdintasun hori: batetik, bertsolariaren “lidertza” mailak, eta bestetik, generoak. Bertso-saioaren lehen zatian planoen bariazioa askoz nabarmenagoa da; bigarren zatian, berriz, antzerakoa eta estatikoagoa bihurtzen da dena; bigarrenean “lider” argiagorik ez egotearen ondorioa izan daiteke hori.

Hartualdien arteko desberdintasunik eta xehetasunik nabarmenenak zerrendatu ditugu, ariketatan sailkatuta: banakako, binakako eta taldekako bertsoaldiei erreparatu diegu.

Banakako ariketak: lidertzaren irudikapenak

Agurrak (1. atala)

Lehen atalean, lau bertsolariak agurra kantatzen ari direla egiten zaizkien hartualdiek laburtuko dute gero etorriko den guztia; hementxe zehazten da, oro har, bakoitza enfokatzeko modua:

- Andoni Egañarena da lehenengo agurra, berak irekitzen du ekitaldia. *Garabi-travelling*-a bertsoaren hasieran eta amaieran egiten da, baina bertsoa kantatu bitartean plano estatikoak dira nagusi: orokorra, ertain-motza eta amerikarra. Esaten ari denari arreta jartzeko iradokitzen digute planoek, ez beste ezeri. *Travelling*-aren norabidea ere esanguratsua da: Egañagandik publikora zuzentzen da, bertsolariak dauka eragina. Lehen ataleko liderretako bat da bera, kameren begietara.
- Oihana Iguaranek agurra kantatzerakoan, ordea, aldaketa batzuk gertatzen dira. Berez hartualdiak antzerakoak izan arren, ez da hain estatikoa, *garabi-travellinga* bertsoaren erdian egiten baita, esaterako. Plano orokorrak (gorputz osokoak) ere gehiago dira Egañarenak baino, eta plano amerikarrak ez dago. Ikus-entzuleei, bertsoaz gain, erreparatzeko beste faktore batzuk ere badirela iradokitzen diete horrela. *Travelling*-aren norabidea Egañarenaren kontrakoa da: publikotik bertsolariara zuzentzen da, publikoak eragiten du.
- Etxahun Lekueren agurreko bertsoa *garabi-travelling* batekin hasten da, eta gero tartekatuz doaz plano orokorrak, amerikarrak eta ertain motzak, iraupen laburrekoak denak. Hemen ere ez dago estatikotasun handirik.

- Unai Iturriaga uneoro enfokatuta mantentzen dute, publikoaren irudirik gabe. Plano ertain motzak iraunkorrak dira, eta angelu kontrapikatua erabiltzen da lehen aldiz. Atzeko bertsokideen hartualdiak ere estreinako agertzen dira, Iturriagak esandakoaren ostean duten erreakzioen bila (ikus 1. irudia). Bigarren liderra da bera.

1. irudia. Unai Iturriagaren agurra



Agurrak: gaia emanda (2. atala)

Atal honetan bertsolari gehiago daudenez, bakoitzaren lidertza difuminatuago agertzen da, baina badira zenbait zantzu:

- Julio Sotoren plano ertain-motzak dira denetan iraunkorrenak. Dioenari garrantzia ematen dio horrek.
- Jon Maia angelu kontrapikatutik enfokatzen dute eta bertsokideen erreakzioak ere bilatzen dira (ikus 2. irudia); pertsonari handitasun kutsu bat eransten zaio horrela, nolabait iradokiz bertsolari hori badela nor, entzun beharrekoa dela, eta eragiten duela.
- Oihana Bartraren eta Fredi Paiaren bertsoetan zehar garabi-*travelling*-a erabiltzen da. Paiaren kasuan, *travelling*az gain, plano ertain-motza baino ez da hartzen; Bartrak kantatu bitartean, oster, plano orokorrak ere hartzen dira (gorputz osokoak). Zortziko handi batek irauten duen denboran hainbeste

plano aldaketa egiteak bertsoaren mezutik aldentzen du ikus-entzulea. Aldaketa horiek Agin Laburuk kantatzean ere gertatzen dira.

- Xabier Terrerosen agurrean zehar publikoa enfokatzen da, besteen kasuan bertsoaren hasieran edo amaieran egin bada ere. Esaten ari denari arreta gutxiago jartzen zaio modu horretan.
- Behin saioa amaituta, bukaerako agurretan plano ertain-motzen iraupenak gogorarazten du noren hitzetan jarri arreta: Sotoren, Maiaren eta Paiaren planoak dira luzeenak.
- Beraz, atal honetan Soto, Maia eta Paia dira “lider” potentzialak errealizadorearen begietan, lehen atalean bezain nabaria izan ez arren.

2. irudia. Jon Maiaren agurra



Binaka: kidesunaren irudikapena

Bertsolariak banaka kantuan ari direnetan planoen desberdintasunak markatuak badira, are bistakoagoak dira mikrofono aurrean bi bertsolari daudenetan. Hemen oso argi azaleratzen da errealizadoreak bi bertsolariak “pareko” ikusten dituen, edo bata bestearen gainetik; bikoteko bat “liderra” denean gertatzen da hori.

Oihana Iguaranen eta Andoni Egañaren ofizioa da horren lehenengo adibidea. Oro har, kantuan ari direla, antzerako planoak hartzen dizkiete (ertain-motza, orokorra...), baina Egañarenak estatikoagoak eta iraunkoragoak dira. Horrez gain, Egañaren bertsoa entzun ostean, Iguaranek dituen erreakzioak jasotzeko ahalegin berezia egiten da, eta alderantziz ez hainbeste (ikus 3. Irudia). Gaiak ere hala dio, eta kamerek berresten dute: bata bertsolari gizon beteranoa da, eta bestea bertsolari emakume gaztea.

3. irudia. Andoni Egaña eta Oihana Iguaran bertsoan



4. irudia. Oihana Iguaran Andoni Egañari erantzuten



Unai Iturriagak eta Etxahun Lekuek kantatzen dutenean ere, Iturriagari arreta jartzeko gomendatzen dute kamerek. Bere plano ertain-motzek Lekuerenek baino gehiago irauten dute, eta Iguaranekin gertatu bezala, Lekueren erreakzioak gehiagotan bilatzen dituzte Iturriagak bertsoa bota ahala.

Baina “lidertzat” hartu ez dituzten biek elkarrekin kantatzen dutenean, ezberdintasunak lausotu egiten dira. Lekueren eta Iguaranen ofizioan ez dago bien arteko plano-desberdintasun nabaririk. Egia da puntukako ariketa dela, eta bata bestearen jarraian erantzun beharra daukatela; hor ez dago kameraren esperimentaziorako tarte handirik. Horrez gain, auto txiki batean sartuta daude, eta gorputzak presentzia galtzen du. Esanguratsua da, hala ere, ariketa hau beraiei jarri izana, eta Iturriagari eta

Egañari protagonismo handiena eskaintzen duten lanak egiteko eskatzea (bakarka eta atzekoei kantatzea).

Ekitaldiaren bigarren atalean, Julio Soto eta Xabier Terrerosen arteko ofizioa da planoen arteko desberdintasun nabariak agertzen dituenak. Soto askoz gehiagotan eta gertuagotik fokatzen dute Terrerosen aldean, hartualdiak hobeak dira. Baliteke kameraren posizioaren ondorioz izatea, kasu honetan mahai batean eserita baitaude bertsolariak, eta ez zutik. Sotori *primerísimo plano* bat ere egiten diote (ikus 5. irudia).

5. irudia. Julio Soto eta Xabi Terrerosen ofizioa



Bestelakoan, bigarren ataleko planoetan ez dago alde handirik bertsolari batetik bestera, beharbada agurretan “lider” gisa definitu dituztenak elkarrekin kantuan jarri dituztelako gehienetan, eta hala definitu ez dituztenei ere elkarrekin egokitu zaie.

Oihana Bartra eta Agin Labururen ofizioa har daiteke adibidetzat. Bien hartualdiak oso antzerakoak dira, eta Egañarekin eta Iguaranekin egin ez duten bezala, oraingoan bien erreakzioak bilatu dituzte maila berean. Sotoren eta Paiaren arteko saioan ere patroi antzerakoa errepikatzen da bientzat: plano amerikarra, ertain-motza, publikoa.

Taldean: kolektibotasunaren irudikapena

Bertsolariek taldean kantatzen duten bi ariketa daude ekitaldi osoan zehar (bigarren atalaren hasierako gaia agurretan sailkatu dugu). Bata, lehenengo atalean,

Andoni Egañak atzekoei abestu eta besteek erantzun beharrekoa; bigarrena, Agin Laburu, Oihana Bartra eta Xabier Terrerosen kopleto saioa.

Berez hartualdi hauek ere antzerakoak izan behar lukete, eta hala da kopleto saioari dagokionez. Hiru bertsolariak modu bertsuan fokatzen dira, patroia honi jarraiki: plano orokor bat, kantuan ari denaren ertain-motza eta publikoa.

Atzekoei kantatzeko ariketan, ordea, ezberdintasun bat dago Oihana Iguaran fokatzerakoan. Egañari erantzuten ari den bitartean, bi plano amerikar ezberdin hartzen dituzte, ezkerretik eta eskuinetik. Besteei hartutako plano amerikarrak baino askoz luzeagoak dira Iguaranenak, eta eskuineko plano hori berarekin soilik erabiltzen dute. Gorputzaren forma argien sumatzen den hartzeak dira. Hortaz, kamerek “lidertza” aitortu ez badiote ere, bere gorpuztasuna gehiago markatzen dute, liderrei albotik ia ez baitzaie planorik hartzen, frontaletik fokatzen dira normalean.

Taldeaz ari garela, deigarria da atzeko bertsokideak enfokatzen dituzten uneei erreparatzea. Unai Iturriagak eta Fredi Paiak kantatzen duten ia aldiro bilatzen dituzte kamerek gainerakoen erreakzioak; antzerakoa gertatzen da Jon Maia eta Julio Sotorekin ere. Gainerakoek abesten dutenean ez dago atzeko kideen plano argirik, agurretan edo atzekoei kantatzeko ariketa zehatzetan ez bada. Gainerako bertsolariak agertzeak balio sinboliko handia dauka: taldearen konplizitatea irudikatzen du, kolektibotasuna, kideen babesa, lidertza (enfokearen arabera), bertsolariak zerbait interesgarria edo umoretsua esan duenaren froga, eragiteko gaitasuna. Argi dago, beste behin, errealizadoreak ezaugarri horiek guztiak nortzuekin lotzen dituen.

3. ONDORIOAK

Ezaugarri horiek guztiak aztertu ondoren, 2016ko Bertso Egunaren genero-irakurketaren ondorioak bilduko ditugu, hiru atal nagusitan: lehenik, ekitaldiaren antolakuntzak harturiko erabakiez jardungo dugu; bigarrenik, bertsolarien jardunaz arituko gara; hirugarrenik, EITBren ekoizpena izango dugu hizpide; eta azkenik, azken gogoetak aurkeztuko ditugu.

3.1. Ekitaldiaren antolakuntzak harturiko erabakiak

3.1.1. Oholtzaren antolaketa

Bertsolarien hautua. Hamar bertsolari aukeratu zituzten arratsaldeko ekitaldi nagusirako, bi emakume eta zortzi gizon. Ekitaldia bezala, bertsolariak ere bi multzotan banatu ziren, eta multzo banatan sailkatu zituzten emakume biak. Arlo kuantitatibo honek piztu du gure arreta hasieratik, zenbaki aldetik genero-irizpideak ez baitira betetzen; talde bakoitzean emakume bat sartzeak, gainera, “ordezkaritza” sentsazio hori areagotzen du.

Aurkezlea. Emakumea da, eta bera arduratzen da saioa bideratzeaz arratsalde osoan zehar. Zenbakitan eta betebeharretan modu positiboan irudika daiteke bere presentzia, emakumearen ikusgarritasuna eta parte-hartzea indartzen baititu; hala ere, bera da oholtzan umorerik estereotipatuena darabilena, genero-roleri dagokionez.

Laguntzaileak. Oholtzan antzezteaz edo *atreztoa* eraldatzeaz arduratzen diren laguntzaileen gehiengoa emakumeek osatzen dute. Parte-hartze maila altu hori ona da, baina extrak paisaiaren parte dira eta gutxitan hartzen dute hitza.

3.1.2. Gaiak

Genero-markak dituztenak. Gutxi batzuk dira. Esplizituki, gai bakarrean markatzen da generoa: Fredi Paia eta Jon Maia “bi anaia” direla zehazterakoan, eta beraien amak “seme bat” izan zuela esaten denean. Gainerakoetan, gaia girotzeko antzezpenean daude genero-markak, baina ez gaiaren planteamenduan bertan. Jubilatuen gaien, eta Oihana Iguaranen eta Andoni Egañaren antolatzaileen deietan, antzezleen eta audioko ahotsen generoak aurkezten dira markatuta, ez bertsolarien rolak.

Genero-jolasak. Antolatzaileek pare bat genero-jolas proposatzen dizkiete bertsolarietara, non betiko rolak auzitan jartzen diren. Bata, erreta dagoen bikote-harremanaren gaia da, eta bestea Txanogorritxo eta otsoarena; bi bikoteak bertsolari mutilez osatuak dira. Horrela, genero-rolak hausteaz gain, haustura bera sormen-ariketa bilakatzen da.

Gaietan generoa ez markatzearena geroz eta ohikoagoa da Bertsozale Elkartek antolatutako saioetan, eta nabari da aintzat hartzen den kontua dela. Genero-ikuspuntutik gaiak izan duten eboluzioa begibistakoa da Elkartek berak bertso-eskoletako irakasleei emandako gaien zerrendan; hasierako txapelketetatik gaur artekoetara bitarte jarritako gai mordoa biltzen dira bertan, eta aspaldikoez generoa zehazten badute ere (*zuek bikotea zarete, zu A, andrea, eta zu B, gizona*), txapelketa garaikideetan ia inoiz ez da horrelako markarik ageri.

Genero-bikoteak. Bertsolari emakumeek eta gizonek binaka kantatu dutenetan ere, ez gaiak, ez bertsolariak, ez dira estereotipotan erori. Agin Laburuk eta Oihana Bartrak egindako ofizioan, esaterako, Bartraren esana da beti betetzen dena, gaiak agintea berari eskaintzen dio. Oihana Iguaranen eta Etxahun Lekueren autoko ariketan, berriz, gaiak ez da ezer markatzen, ezta gidaria nor den ere. Iguaranen eta Egañaren artekoan ere, lehen aipatutako ahotsen generotik aparte, gaiak berak ez du genero aldetik ezer gehiago zehazten. Bertsolariak estereotipoen haritik kantatzera bultzatzen ditzakeen gairik ez dago hemen.

3. 2. Bertso-jarduna

Genero-markak dituzten gaietan. Bertsolarietara, oro har, ez diete kasurik egin genero-markadun gaietara (edo antzezpenetara), eta besterik gabe jarraitu dute bertsoetan, bai Egañak eta Iguaranek antolatzaileen deiekin, bai Bartrak, Terrerosek eta Laburuk jubilatuenarekin. Paiak eta Maiak beraien generotik kantatu dute, bi anaiaren paperetik, baina beraien anai/arrebaren generoa “ahaztu” egiten dute, aurkezleak semea dela zehaztu arren.

Genero-markarik gabeko gaietan. Generorik zehazten ez den gaietan, bertsolarietara eurek zehazten duten kasu bakarra dago. Egañak atzeko bertsolarietara kantatzen dienean azpimarratzen du kideen generoa, “neska laua” edo “mutil koxkor grisa” diren zehazten baitu.

Genero-jolasetan. Ariketa interesgarriak sortzen dira. Generorik zehaztu ez den bikote-harremanean, Julio Sotok eta Xabier Terrerosek ere ez dute horren aztarnarik ematen. Txanogorritxo eta otsoarenean antzera jokatzeko dute Sotok eta Paiak, eta transgeneroaren gaia ere plazaratzen dute.

Genero-bikoteak. Lehen aipatu legez, emakumeek eta gizonek binaka kantatzen dutenetan ez da genero-aipamenik egiten. Lekue eta Iguaran autoko bidaian ez dira topikoetan erortzen, nahiz eta egoerak umore estereotipatua egiteko erraztasuna eman zezakeen. Bartrak eta Laburuk ere ez dute genero-markarik zehazten; hala ere, Bartrari fikzioan agintea eskaintzen zaion arren, bertso batean fikziotik atera egiten da eta momentuko bertso-egoerari egiten dio erreferentzia: “*berari utzi diot / doinua aukeratzen*” (ikus 55. bertsoa). Aldarri bat dago hor, gaiak egoera bat planteatu arren, errealitate gertagarriagoa zein den gogorazten diguna, eta bertso-jardunean, Agin Laburuk hartu duela erabaki nagusietariko bat (doinua aukeratzearena, alegia).

3. 3. Bertso-ikuskizuna: EITBren emankizuna

Lidertzak. Angelu kontrapikatuak, plano ertain-motz iraunkorrak, hartualdi estatikoak, bertso-kideen erreakzioak... errealizazioaren bidez komunikatzen dute nori jarri behar zaion arreta, nor den “handia”, nork ordezkaten duen kolektiboa. Bertso-saioko liderrak nortzuk diren argi dauka EITBk, eta honela erakusten ditu Iturriaga, Egaña, Maia, Soto eta Paia.

Gorpuztasunak. Oihana bien kasuan, gorputz osoa ageri den planoak ugariagoak dira gainerako bertsolarienak baino. Plano orokorrak eta albo batetik hartutako plano amerikarrak errepikatzen dira kantuan ari direnean, bereziki Iguaranekin. Horrez gain, bere erreakzioak bilatzen dira bere bertso-kideak kantuan daudenean, baina ez alderantziz.

Kidetasunak. Bata kantuan ari dela, kamerek gainerako bertsolariak enfokatzeko balio sinboliko handia dauka: kolektibotasuna irudikatzen du, taldearen konplizitatea, kideen onespena, lidertza... finean, eragiteko gaitasuna. Iturriagak, Paiak, Sotok eta Maiak kantatzen dutenetan gertatzen da hori, aurrez aipatutako “lider potentzialak” dira laurak.

Bertsozaleekiko harremanak. Gainerako bertsolariak enfokatzeko adina balio sinboliko izan dezake publikoa enfokatzeko den momentuak eta norabideak. Bertsolaria

kantuan ari den bitartean publikoa enfokatzeak kantatutakoari garrantzi gutxiago ematera darama ikus-entzulea, eta hau maizago egiten dute “liderrak” ez direnak kantuan daudenean. *Travelling*-aren mugimendua bertsolaritik publikora doanetan, bertsolari horren eragiteko gaitasuna adierazten da; horrela hasten da Egañaren agurra, Iguaranena, berriz, kontrako norabidean.

3.4. Azken gogoetak

Hasiera batean emakumeen kopuru urriak zer pentsatua eman zigun arren, analisi orokor bat egin ostean ikusi dugu Genero Taldeak egindako gogoetek, oro har, eragina izan dutela bai Bertso Egunaren antolakuntzan, bai bertsolarien jardunean. Bertso Eguna Elkartearen beraren jaialdi bat izaki, bere oinarritzko baloreak betetzen direla ziurtatzen dute gehiago edo gutxiago; antolatzaileek beraiek aitortu dute aurten belaunaldi-artekotasunarena eta generoarena ez dituztela hain estu hartu.

EITBren errealizazioak, bestalde, ez du egin gaiaren inguruko inongo gogoetarik eta bertsolariak ez ditu baldintza bertsuen arabera enfokatzen eta transmititzen. Zentzu horretan, Gradu Amaierako Lan honen ondorio nagusietariko bat hau da: bertso-saioetan genero-ikuspegiaren inguruko gogoeta sustatu dela, eta aldaketa esanguratsuak gertatu direla, baina, bertso-saioen ikus-entzunezko transmisioetan, aldiz, oraindik ez dela gaiaren inguruko gogoeta sakonik egin. Ondorioz, bertsozale eta bertsolarion hurrengo erronketariko bat ikus-entzunezko transmisioan eragiteko urratsak egitea.

*Norekin galdu daiteke arreta,
nori entzun dioena?
zein gorputzetan erreparatu
behar genuke aurrena?
nork dauka beste bertso-kideengan
eragiteko ahalmena?
kamera batek bihur dezake
berez ez dena, eszena
pantailakoa ez zaitugu zu,
pantailakoa da dena
zuga ikusten dutena eta
zugandik espero dena.*

4. BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, Uxue. (2014). "Gorputzak, gorpuzkerak eta gorputzaldiak. Bertsolaritzan" in Alvarez Uri, Amaia; Lasarte Leonet, Gema (arg.) (2012): *Gorputza eta Generoa Euskal kulturaren eta literaturaren*. Bilbo: UEU, 245-263.
- ALKAIZA, Saioa (2014): "Bertso eguna, saio deserosoa", *Argia*, 2014-01-27 [www.argia.eus] (Azken kontsulta, 2016-05-31).
- AMURIZA, Xabier (1981). *Bertsolaritza. Hitzaren Kirol Nazional*. Zamudio: Elexpuru.
- AMURIZA, Xabier (1997). *Hiztegi Errimatua. Hitzaren Kirol Nazionala*. Gizaburuaga: Hika-Mika
- ASKOREN ARTEAN (2014). "Zergatik Wally?" (ikus-entzunezkoa) [<https://www.youtube.com/watch?v=EXFQZB2lhAQ>] (Azken kontsulta, 2016-05-31)
- BERRIA (2016): "Bertsolaritzaren iragana, oraina eta geroa" (ikus-entzunezkoa), *Argia*, 2016-05-09 [www.argia.eus] (Azken kontsulta, 2016-05-31)
- BERTSOZALE ELKARTEA (2014): "Bertso Eguna 2014", *Bertsozale.eus*, 2014-01 (Azken kontsulta, 2016-05-31)
- BERTSOZALE ELKARTEA (2016): "Bertso Eguna 2016", *Bertsozale.eus*, 2016-01 (Azken kontsulta, 2016-05-31)
- BERTSOZALE ELKARTEA (2016): "Bertsolaritzaren Transmisioa", *Bertsozale.eus* (Azken kontsulta, 2016-05-31)
- BERTSOZALE ELKARTEA (2016): "Zer da bertsoa?", *Bertsozale.eus* (Azken kontsulta, 2016-05-31)
- EGUZKITZA, Gaizka (2014): "Amets Arzallus, bertsolaria: Besteen kontra baino, geure buruaren kontra jokatzeko dugu txapelketan", *Aikor*, 2014-09 [www.aikor.com] (Azken kontsulta, 2016-05-31)
- EPELDE, Edurne; ARANGUREN, Miren; RETOLAZA, Iratxe. (2014). *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat*. Iruña: Emagin/EHBF
- ESKUDERO, Jon (2013): "Oraindik, gizonak nagusi", *Berria*, 2013-08-01.
- GARTZIA, Amaia (2014): "Bertso doinu askeak protagonista Agurainen izandako ekitaldian", *Gara*, 2014-04-06.
- GOIKOETXEA, Arkaitz (2013): "Hitz egin dezagun aniztasunaren tratuaz: hari muturrak", *Bertsozale.eus*, 2013-09-26 (Azken kontsulta, 2016-05-31).

- GÓMEZ TARÍN, Francisco Javier (2010): *El análisis de textos audiovisuales. Significación y Sentido*. Shangri-La Ediciones.
- HERNÁNDEZ, Jone M. (2006-2007). "Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea", *Kobie. Antropología Cultural* 12, 61-70.
- HERNÁNDEZ, Jone M. (2014a). "Begiek entzuten dutena. Emakume bertsolariak euskal kulturaren begiradapean", in Alaitz Aizpuru eta Bakarne Altonaga (arg.) (2014). *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*, Bilbo: UEU, 137-153.
- HERNÁNDEZ, Jone M. (2014b). "Emakume bertsolariak: bertsoetik bertsoa, hanka puntetan" in Alvarez Uria, Amaia; Lasarte Leonet, Gema (arg.) (2014). *Gorputza eta Generoa Euskal kulturaren eta literaturan*. Bilbo: UEU, 37-48.
- HERNÁNDEZ, Jone Miren. (2010). "Bertsoa eta generoa", *Bertsolari* 78, 8-17.
- IBARZABAL, Nerea (2016a). "Oholtzarako bide aldapatsua" (erreportajea), 2016-05, *Kazetaritza espezializatua ikasgaia* (UPV/EHU). (ikus VII. eranskina)
- IBARZABAL, Nerea (2016b). "Izarne Zelaiari elkarrizketa: bertso-eskolatik plazara, genero-ikuspegiaren azterketa" (elkarrizketa), 2016-05 (ikus V. eranskina).
- IBARZABAL, Nerea (2016c). "Jon Agirresaroberi elkarrizketa: Bertso Eguna 2016" (elkarrizketa), 2016-05 (ikus III. eranskina).
- IBARZABAL, Nerea (2016d). "Oihana Iguarani elkarrizketa: Bertso Eguna 2016" (elkarrizketa), 2016-05 (ikus IV. eranskina).
- ITURRIOTZ, Amaia (2013). "Emakumearen gaia", *Bertsolari* 91, 169.
- ITURRIOTZ, Iñaki (2012): "Bertsolaritza talde lana delako", *Kontaizu*, 2012-04-05 [www.kontaizu.eus] (Azken kontsulta, 2016-05-31).
- LARRAÑAGA, Carmen (1994). "Bertsolarismo: habitat de masculinidad", *Bitarte* 4, 29-51.
- LARRAÑAGA, Carmen (1997). "Del bertsolarismo silenciado", *Jentilbaratz* 6, 57-73.
- LASKIBAR, Aitziber (2013): "Desagertu egin da txapela", *Berría*, 2013-12-05.
- LATASA, Zaira. (2010). *Bertsolaria ez da bertsolari jaiotzen, izatera iristen da; Emakumearen ibilbidea bertsolaritzan zehar (1980-2009)*. GRAL: UPV/EHU.
- MATXAIN, Kepa (2016): "Beñat Gaztelumendi Arandia: Ez zait gustatzen bertsolaritza beste kultur jarduerentzat eredugarritzat saltzea", *Argia*, 2016-01-17 [www.argia.eus] (Azken kontsulta, 2016-05-31).
- RETOLAZA, Iratxe. (2011). "Cánones y contra-cánones: vías de legitimación y deslegitimación en la poesía vasca", in Casas, Arturo/Bolling, Ben (arg.),

Resistance and Emancipation. Cultural poetics and practices, Frankfurt: Peter Lang, 225-247.

UEU (2013): “Uxue Alberdi: Bertsolaritzan, esperientzia korporal eta emozional asko bizitzen dira, bizitzarako edozein eremutarako estrapolagarriak direnak”, *Unibertsitatea.net*, 2013-07-01 (Azken kontsulta, 2016-05-31).

ZELAIA, Izarne. (2014-2015). *Emakumeek jendaurreko jardunetan parte hartzeko gaitasunak eskura ditzaten eskolak jokatzen duen papera, bertsolaritza aztergai hartuta*. GRAL: UPV/EHU.

ZINKUNEGI, Izaro. (2014). *Emakumeak eta bertsolaritza. Gaiak, bertsolarien paperak eta bertsoak genero ikuspuntutik*. GRAL: UPV/EHU.

5. ERANSKINAK

Atal honetan eranskin hauek gehitu ditugu:

- I. ERANSKINA. Bertso Eguna 2016: bertso-ikuskizunaren azterketa.
- II. ERANSKINA. Bertsoen zerrenda .
- III. ERANSKINA. Jon agirresaroberi elkarrizketa.
- IV. ERANSKINA. Oihana Iguarani elkarrizketa.
- V. ERANSKINA. Izarne Zelaiari elkarrizketa
- VI. ERANSKINA. Bertsozale Elkartearen dokumentazioa.
- VII. ERANSKINA. Erreportajea.

I. ERANSKINA.

BERTSO EGUNA 2016: BERTSO-IKUSKIZUNAREN AZTERKETA

ESZENA	TESTUINGURUA Bertso-egoera: gaiaren aurkezpena	IKUS-ENTZUNEZKO TRANSMISIOA	EDUKIA Bertsoak
<p>1. AGURRAK</p> <p>1.1. ANDONI EGAÑAren agurra</p>	<p>Deskripzioa: Andoni Egañaren agurra, saioaren irekiera.</p> <p>Testuinguruaren ezaugarriak: Agurreko bertsoa, gairik eman gabe.</p> <p>Interpretazioa: Bertso Egunari hasiera ematen dio Andoni Egañak (autoritatea).</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza>amerikanoa <u>Angeluazioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga, bertsoaren hasieran eta amaieran. Interpretazioa: testuinguruan kokatzea, eta bertsolariaren aurkezpena. Kamera Andonitik publikora.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 1. bertsoa Bertsoaren interpretazioa: Bertsolaria “ideia eta hitza” inprobisatzen dituen delatua, gortuz ez. Genero markarik ez.</p>
<p>1.2. OIHANA IGUARANen agurra</p>	<p>Deskripzioa: Oihana Iguaranen agurra</p> <p>Testuinguruaren ezaugarriak: Agurreko bertsoa, gairik eman gabe</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>osoa >ertain motza <u>Angeluazioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga. Interpretazioa: Kamera publikotik Oihanara. Plano ertain motza edo osoa.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 2. bertsoa Bertsoaren interpretazioa: Atrezzoari eta eguneko gaiari erreferentzia egiten dio. Bertsoa bide bat da, eta “pausoak”, “oinez”, “erori”, “ubeldu” hitzak darabiltza. Gortuzaren presentzia azaleratzen du. Bertsolariaren ahulguneak onartzen ditu.</p>
<p>1.3. ETXAHUN LEKUEren agurra</p>	<p>Deskripzioa: Etxahun Lekueren agurra.</p> <p>Testuinguruaren ezaugarriak: Agurreko bertsoa, gairik eman gabe.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza>amerikano <u>Angeluazioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga. Interpretazioa: plano orokor gehiago eta estatikotasun gutxi, enkoadraketa aldaketak.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 3. bertsoa Bertsoaren interpretazioa: Donostia 2016ko irekiera ikuskizunari erreferentzia, baina bertsolari eta bertsozaleen arteko zubia irudikatuz. Genero markarik ez.</p>

<p>1.4. UNAI ITURRIAGaren agurra</p>	<p>Deskripzioa: Unai Iturriagaren agurra. Testuinguruaren ezaugarriak: Agurreko bertsoa, gairik eman gabe.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza >amerikanoa <u>Angeluazioa:</u> pikatua>kontrapikatua <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travelling, baina estatiko gehienetan. Interpretazioa: publikoaren irudirik ez, Unai luzarotan enfokatuta, eta atzeko bertsolariak agertzen dira lehen aldiz. Bertsolarien arteko konplizitatea erakutsi.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 4. bertsoa Bertsoaren interpretazioa: Kulturaren konplexutasunetik hasi eta bertsoaren sinpletasuna azpimarratzen du. Genero markarik ez.</p>
<p>2. GAIA: 2.1. Gaiaren aurkezpena</p>	<p>Deskripzioa: Audio bidez ematen da gaia, antolatzaileen bi telefono dei dira. Ondoren Aitziber Garmendiak aurkezpen laburra egiten du. Testuinguruaren ezaugarriak: Andoniri gizon batek deitzen dio, adiskide kutsuarekin (hika, “festa latza”...) Oihanari Lankuko langile emakume batek, modu formalagoan. Beste bertsolariak baietza emana dutela esaten dio jada. Bere lehen aldia dela gogorarazten dio.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>lehen plano>plano ertaina <u>Angeluazioa:</u> pikatua <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga Interpretazioa: Bertsolarien aurpegien lehen planoekin beraien erreakzioak bilatzen dira, gaia entzuterakoan egindako keinuak.</p>	
<p>2.2. Andoni / Oihana</p>	<p>Deskripzioa: binakako saioa (ofizioa) Testuinguruaren ezaugarriak: Andoni eta Oihana antolatzaileen dei baten osteko sentazioak adierazten. Bi ikuspegi, beteranoa eta gaztea.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorrean bei ertain motza eta orokorra. Oihanaren erreakzioak jasotzen dira, perfiletik hartutako Andoniren lehen planoetan. <u>Angeluazioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga. Interpretazioa: Andoniren planoak estatikoagoak dira eta Oihanaren erreakzioak gehiago bilatzen.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 5-12 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: deia jasotakoan dituzten sentazioak azaltzen hasi eta elkar lausengatzen amaitu. Genero markarik ez.</p>
<p>3. GAIA 3.1. Gaiaren aurkezpena</p>	<p>Deskripzioa: Gazte batzuk sartzen dira korrika, eta bertsolariei (Unai eta Etxahun) gonbita egiten diete beraiekin joateko. Testuinguruaren ezaugarriak: Gaia ez da oso argia, eta aurkezlearen azalpenak ere ez du laguntzen: “<i>gaur plana zenuten, ezta?</i>”. Zalantza bertsolarien aurpegietan ere nabari da.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra <u>Angeluazioa:</u> pikatua <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga Interpretazioa: Emakumeek hitz egiten dute.</p>	

3.2. Unai / Etxahun	<p>Deskripzioa: binakako saioa (ofizioa) Testuinguruaren ezaugarriak: Gaia oso zehaztuta ez dagoen arren, kirola eta bertsolaritza uztartzeko zailtasunari buruz kantatzen dute. *Gidoian “kontziliazioaz” aritzea nahi zuten antolatzaileek, baina kirolaren eta bertsoaren kontziliazioaz ari dira. Ondo ulertu zuten bertsolariek, beraz.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza>amerikanoa <u>Angeluazioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga Interpretazioa: Unairen plano ertain motzak luzeagoak dira Etxahunenak baino.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 13-18 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: bertsoa eta kirola uztartzen dituzte. Genero markarik ez.</p>
4. GAIA 4.1. Gaiaren aurkezpena	<p>Deskripzioa: Kinto afarian elkartu dira denak. Andonik atzekoei kantatu behar die. Testuinguruaren ezaugarriak: Aurkezleak jartzen du gaia, beste efektu berezirik gabe. Andoni Egañaren adinari buruzko txantxa bat egiten du.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertaina>ertain motza <u>Angeluazioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> zoom-a hasieran</p>	
4.2. Andoni atzekoei	<p>Deskripzioa: Andonik atzekoei kantatu eta besteek banaka honi erantzun. Testuinguruaren ezaugarriak: Atzekoak gaztetatik hona zenbat aldatu diren kontatu behar du Andonik.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza <u>Angeluazioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> Interpretazioa: hartze estatikoak nagusi.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 19, 21, 23. bertsoak. Bertsoaren interpretazioa: 19. nean Oihanari kantatutakoak genero marka. Lehen zintzoa (moja) zenean adarra jo ziezaiokeen, baina orain “gaiztotu” egin dute.</p>
4.3. Oihana, Unai eta Etxahun Andoniri erantzuten	<p>Deskripzioa: Banaka Andoniri erantzuten diote bertsolariek.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>lehen plano>plano ertain motza>amerikanoa albo batetik <u>Angeluazioa:</u> pikatua>frontala Interpretazioa: Albo batetik hartutako plano amerikano gehien Oihanak, gorputzaren forma ondoen ikusten den plano da. Unai kantuan ari dela atzeko bertsolariak enfokatu: konplizitate eta elkartasun keinua.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 20, 22, 24 bertsoak. Bertsoaren interpretazioa: 24. nean Iturriagak Andoniren burusoiltasunari aipamena egiten dio.</p>
	<p>Deskripzioa: Oihana eta Etxahun elkarrekin</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak:</p>	

<p>5. GAIA 5.1. Gaiaren aurkezpena</p>	<p>saio batera doazen unea aurkezten da. Testuinguruaren ezaugarriak: Kotxe txiki batean sartzen dituzte. Audioa: irratiko kate ezberdinetako korteak entzuten dira.</p>	<p>Enkoadraketa: orokorra>osoa>ertain motza Angeluazioa: pikatua>frontala Kameraren mugimendua: garabi-travellinga Interpretazioa: Egoera deskribatzen da.</p>	
<p>5.2. Oihana / Etxahun</p>	<p>Deskripzioa: puntukako saioa Testuinguruaren ezaugarriak: saiora bidean eduki daitekeen elkarrizketa osatzen dute.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: Enkoadraketa: orokorra>osoa>ertain motza>lehen plano Angeluazioa: pikatua>frontala Kameraren mugimendua: garabi-travellinga</p>	<p>Deskripzioa: ikus 25-38 Bertsoaren interpretazioa: Bidaiako elkarrizketa garatzen dute. Genero markarik ez.</p>
<p>6. GAIA 6.1: Gaiaren aurkezpena</p>	<p>Deskripzioa: Audioa: Telefono dei bat Unairentzat. Saio baterako gonbita egiten dio Xabi delako batek. Testuinguruaren ezaugarriak: Audioaz gain, aurkezlea agertzen da txosna giroan dagoen pertsonaia baten paperean. Xabi antolatzailea ez omen da etorri... Azalpen gutxiko saio batean gerta daitekeen egoera da, non bertsolaria momentuz batez “salduta” edo lekuz kanpo senti daitekeen.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: Enkoadraketa: orokorra>ertaina>ertain motza>lehen plano Angeluazioa: pikatua>frontala Kamararen mugimendua: garabi-travellinga Interpretazioa: Pertsonaiaren eta Unairen arteko elkarrizketa jasotzen du.</p>	
<p>6.2. Unai bakarka</p>	<p>Deskripzioa: bakarkako ariketa. Testuinguruaren ezaugarriak: Unai bakarka kantatzen du, egoera deseroso horretaz kexatuz.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: Enkoadraketa: orokorra>amerikanoa>lehen plano Angeluazioa: pikatua>frontala Kamararen mugimendua: garabi-travellinga Interpretazioa: kantuan ari denean lehen plano, pentsatzen ari denean plano amerikanoa. Publikoaren plano ugari, erreakzio bila.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 39-41 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: 39. bertsoan aitatasunari erreferentzia egiten dio. 41.ean “hurrengoan zuen amama etorriko da”, kantatzen du, gaztelerako esaeatik hartua.</p>

<p>7. TALDE ALDAKETA 7.1. Bideoa</p>	<p>Deskripzioa: Bideoa: <i>Non eseriko zinateke?</i> Hainbat bertsolarik zenbatgarren aulkian esertzea duten gustuko azaltzen dute, eta zergatik. Testuinguruaren ezaugarriak: Fredi Paya, Julio Soto, Oihana Bartra, Jon Maia, Agin Laburu eta Xabier Terreros ageri dira bideoan, gero oholtzan kantatuko duten bertsolariak dira.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> Ertaina>xehetasun plano>ertain motza <u>Angeluzioa:</u> frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> estatikoa Interpretazioa: bideo arrunt bat da.</p>	<p>Azalpenak: Bertsolari gehienek saihestu nahi dituzte ertzetako aulkia, erdiguneko “babesa” sentitzea nahiago dutelako. Oihanak, babesaz gain, beste termino bat darabil: “oharkabeen pasatzea”. Agin da lehenengo aulkian eseriko litzatekeen bakarra, iniziatiba hartzea gustatzen zaiolako.</p>
<p>7.2. Denen agurrak, aulkien haritik</p>	<p>Deskripzioa: bakoitzak bertso bana, egokitu zaien aulkari erreferentzia eginez. Testuinguruaren ezaugarriak: ez dituzte eseri beraiei gustatuko litzaiekeen lekuetan.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza <u>Angeluzioa:</u> pikatua>kontrapikatua <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga Interpretazioa: atzekoak enfokatu, saioan orain arte gutxitan. Juliori plano ertain-motzik iraunkorrenak; Joni angelu kontrapikatua eta atzekoen plano; Oihana eta Frediri travelling-a albo batetik; Xabierrek kantatu bitartean publikoa enfokatu (soilik berarekin egiten dute hori), hartualdi sinpleagoak.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 42-47 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: Oihanak “laztan batzuk” eskertzen dituela aipatu, gorputza agertzen da. “Difuminatuta, arrunt” egon nahi du aulkietan, baina “bertsoengatik destakatuko” du gero. Eserita ere zerbaitegatik destakatu dezakeela iruditzen zaio.</p>
<p>8. GAIA 8.1. Agin / Oihana</p>	<p>Deskripzioa: binakako saioa, ofizioa. Testuinguruaren ezaugarriak: Aurkezleak ematen du gaia. Koadrila bereko bi kide dira. Oihanaren esana egin behar da beti, eta Aginek beti obeditu egiten du.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain>ertain motza <u>Angeluzioa:</u> perfila>pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga. Interpretazioa: Bata kantuan ari dela, bestearen erreakzioak bilatzen ditu perfiletik.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 48-57 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: Genero marka 49. bertsoan: “etxerako moduko mutila”.</p>

<p>9. GAIA 9.1. Jon / Fredi</p>	<p>Deskripzioa: binakako saioa, ofizioa Testuinguruaren ezaugarriak: Aurkezleak jartzen du gaia. Anaiak dira, eta beraien amak aspaldi izandako beste seme bat ezagutu edo ez erabaki behar dute.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza>jendartetik hartua <u>Angeluzioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga Interpretazioa: pare bat plano jendearen ikuspegitik hartuta daude, parean buruak ikusten direla. Entzuten ari den bertsolariaren erreakzioak ere harrapatzen dira.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 58-63 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: Gaiak semea dela zehazten du baina bertsolariak, ohartzeke ziurrenik, generoa ez balekitez bezala kantatzen dute. Abizenen arteko gerra: Paia edo Maia. 63. bertsoa: “Salbazioa izan daiteke arreba bat izatea”. Anaien arteko liskarrak baretuko dituen emakumea?</p>
<p>10. GAIA 10.1. Julio / Xabier</p>	<p>Deskripzioa: binakako saioa, ofizioa Testuinguruaren ezaugarriak: Aurkezleak jartzen du gaia. Bikotea dira, eta beraien arteko harremana ez doa ondo. Afaritan gaia aterata da. Mahai batean esertzen dituzte bertsolariak, bi alabarekin. (<i>atrezzoa</i> aldatzen duten langileen artean neskak gehiengoa)</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza>lehen plano>primerisimo <u>Angeluzioa:</u> kontrapikatua>pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga Interpretazioa: Julio askoz gehiagotan eta gertuagotik enfokatzen dute. Haurren aurpegiak ere gertutik.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 64-70 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: Bikote harreman higatu bat deskribatzen dute, elkarrekin egongo ez litzatekeena, haurrengatik ez balitz.</p>
<p>11. GAIA 11.1. Jon bakarka</p>	<p>Deskripzioa: bakarkako ariketa, Jon Maiarentzat. Testuinguruaren ezaugarriak: Bertsoan aritzerakoan bere “marra gorriak” zeintzuk diren galdetzen dio aurkezleak. Jon kartulina batzuen erdian kokatzen da, eta aukerak baztertuz doa: “Drama sortu”, “Politikoki zuzena izan”, “puntu motzak”, “sorpresa bilatu”... Egingo ez litzukeen aukerak baztertuta, gaia ematen dio: “Beste hainbatetan bezala, burua makurtu eta josten jarraitu duzu”</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertaina>ertain motza>amerikarra <u>Angeluzioa:</u> zenitala>pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga Interpretazioa: zenitala lehen aldiz erabiltzen da, lurreko kartulinetan jartzen duena erakusteko. Publikoaren hartualdiak nahiko gertutik. Atzeko bertsoakideak behin enfokatu. Estatikoagoa Unairen bakarkakoa baino.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 71-73 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: Metabertsolaritza egiten du. Gorputzaren ezaugarrien bidez definitzen du ariketa mentala bera: “pausotan”, “funanbulista”, “abia zaitez”, “edatea”, “burua jeitsi”. Baina ariketa mentala dela ere azpimarratzen du: “norberagandik sortu behar da”, “norbere baitan bidai luzeak”, “gure burmuin lausotan”.</p>

<p>12. GAIA 12.1 Gaiaren aurkezpena: Jubilatuen “mustrarioa”</p>	<p>Deskripzioa: Jubilatuek ezberdinak aurkezten dituzten aurkezleak, eta extrak doaz banaka oholtzatik pasatzen. Testuinguruaren ezaugarriak: Ondorengo ereduak dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1- Ikastaro guztietara apuntatzen dena, “macramé, punto de cruz...”. Emakumea da. 2- Beti umezain dagoena. Emakume bat sartzen da karrotxo batekin. 3- Beti obrei begira dagoena. Gizona da. Donostiko autobus geltokiko obrei aipamena. 4- Urte erdia Benidormen pasatzen duena. “Brilli-brilli jantzita”, “ideal, oso guapa”, arropen buruzko iruzkinak. “Emakumeok joaten gara gabonetako arbola bezala, dena gainean jantzita, eta ondoan gizona Kelerreko kamisetarekin...”. 5- Lana egiteari utzi ez dion jubilatua. Gizon bat, erremintekin. “Autonomia edo aktorea, besteik ez da”. Umeak zaintzen dituen amonak, beraz, ez du lanik egiten... 6- Kirola egiten hasi dena. Emakume bat, erraketa batekin. “Paseatzera, danza del vientre...” 	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain>amerikarra>ertain motza <u>Angeluzioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga Interpretazioa: Denei antzerako hartualdiak.</p>	
<p>12.2. Agin / Oihana / Xabier</p>	<p>Deskripzioa: Hirunakako saioa, koplata. Testuinguruaren ezaugarriak: Beraiek ere jubilatuek beraien denborarekin zer egin erabakitzen ari dira.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: <u>Enkoadraketa:</u> orokorra>ertain motza <u>Angeluzioa:</u> pikatua>frontala <u>Kameraren mugimendua:</u> garabi-travellinga. Interpretazioa: Patroi antzerakoak tartekatzen dira beti: bertsolarien plano orokorra> kantatzen ari denaren ertain motza> publikoa.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 74-97 koplak Bertsuaren interpretazioa: Oihanak kurtsilloak egiten dituen jubilatuen papera hartu du gehienetan. 92. koplak Aginek aipatzen du lehen aurkezleak esan gabekoa: umeak zaintzen dituen eta lana uzten ez duena prototipo bera direla.</p>

<p>13. GAIA 13.1: Julio / Fredi</p>	<p>Deskripzioa: <i>Aukeratu zure abentura</i> liburuen estiloko ariketa. Bertsolariek aukeratzen dute istorioa nola garatuko den. Testuinguruaren ezaugarriak: Aurkezleak egoera bat deskribatzen die bertsolariei, kasu honetan Txanogorritxu eta otsoa dira. A eta B ateen ordezkatzan dituzte bi aukera posibleak, eta bertso bidez aukeratzen dute bata edo bestea. *Aukeren zerrenda osoa eranskinean. Egoera bat hauxe: <i>Bitartean otsoa amonaren etxera joan da bizi-bizi, Txanogorritxori aurea hartuta. Julio, zuk aukeratu behar duzu:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> a) <i>amona jan eta bere arropekin mozorrotzea</i> b) <i>amonarekin oheratzea</i> <p>Bortxaketaren apologia?</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: Enkoadraketa: orokorra>ertaina>xehetasun plano>ertain motza>lehen plano>amerikarra Angeluazioa: pikatua>frontala Kameraren mugimendua: garabi-travellinga Interpretazioa: Hasieran, bertsolariak ere mugimenduan daudenez, plano aldaketak ugariak dira. Baina amaierako koplak saioan patroia antzerakoa jarraitzen du errealizadoreak: plano amerikarra>ertain motza>publikoaren barridua. Bertsokideak ere agertzen dira.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 98-114 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: Genero markak: 105: “Azpian” ile pila bat duelako, desidealizatu egiten du Julio otsoak Txanogorritxu. 110: Txanogorritxu <i>drag queena</i> (Fredik) 112: La Otxoa abeslari trabestiari aipamena (Fredik) 113: amona jan duenez, umeak ezingo dizkiotela berari utzi dio Juliok.</p>
<p>14. AZKEN AGURRAK</p>	<p>Deskripzioa: Amaierako agurrak Testuinguruaren ezaugarriak: Gairik eman gabeko agurrak, denek.</p>	<p>Ikus-entzunezko ezaugarriak: Enkoadraketa: orokorra>ertain motza>amerikarra>lehen plano>perfilez>primerisimo plano bat Angeluazioa: pikatua>frontala Kameraren mugimendua: garabi-travellinga. Interpretazioa: Publikoak garrantzia, askotan enfokatu, baita primerisimo plano bat ere. Atzeko bertsolariak ere maiz agertu, bai orokorrean, bai lehen planoan. Frediren, Juliorene eta Jonen plano ertain motzak iraunkorragoak. *Bukaerako txaloetan oholtzako laguntzaileak eta aurreko taldeko bertsolariak agertu. Laguntzaileen artean neska mordoa.</p>	<p>Deskripzioa: ikus 115-120 bertsoak Bertsoaren interpretazioa: Publikoari eskaini denek. 117: Oihanak “babesa” aipatu, hasieran bezala.</p>

II. ERANSKINA.
BERTSOEN ZERREDA

1. bertsoa

*Bertsolari da idea ta hitz
inprobisatzen dituna
bertsozale da hartaz gozatzen
duen entzule kuttuna
bertsoa une, bertsoa gune
heldu da bertso eguna
bertsolari ta bertsozaleok
bik bat egiten deguna
bertsoa une, bertsoa gune
heldu da bertso eguna
-lari ta -zale bereizteak e
bate zentzurik ez duna.*

2. bertsoa

*Bertsolaritza bide bat bada
hemen hiru ate, hara
erabaki bat bihur daiteke
pausoaren zangoztraba
oinez eroriz ikasten bada
ubelduta gatoz jada
ate zuzena ez da doana
zuzenean helmugara
bide zuzena noiz eta nola
okertu hautatzea da.*

3. bertsoa

*Kaixo, arrasti on! Batera pasa
behar ei doguz ordu bi
2016 eta Donostin
zelan ez jarri urduri?
elkarbizitzan sakontzea sarri
tokau izan jaku guri
baina ez dogu su-artifizial
ta ez laser bidezko irudi
bertsoa izan daitela zuen
ta gure arteko zubi.*

4. bertsoa

*Arratsalde on, oi, Donostia
kulturaren hiriburu
Oinatz-Ganboa, Hansel ta Gretel
kultura hainbeste gudu
gure jarduna, berriz, sinplea
lehen agurra du buru
gero amaieran azken agurrak
ere kantatzen ditugu
hola saioa noiz amaitzen dan
guztiok jakingo dugu.*

5. bertsoa

Bertsolariak telefonoa
hartu beharra du, beza
halare deiak ugaritzeko
izaten du interesa
deiak bi alde izaten ditu
esaten ez da erreza
jasotzea unean poz ematen du
abitze unean, pereza

6. bertsoa

Nire saioak ezin diranez
oaindak hamarnaka zenba
kajoi barruan gordetzen det nik
nire zalantzen zerrenda
anima zaitetz esaten dute
ta erantzuten det "benga"
pereza igual izanagatik
beti poza gailentzen da.

7. bertsoa

Baina pisua alda liteke
urteen eraginean
lehen eta orain pertsona bera
ez gera azken finean
nik "bai bai bai bai" erantzuten nun
pozez sartu ezinean
pereza zer zen ere enekin
zuk daukazun adinean

8. bertsoa

Kargatik asko ez det oraindik
hau soilik baita harrera
baina espero det luze izatea
geratzen zaidan karrera
nik perezarik gabe momentuz
jarraitu nahi det aurrera
nik nire karga azkar bota det
baino zuen bizkarrera

9. bertsoa

Nik jasotako dei bat entzuten
lehen izan degu aukera
"ni Xabier naiz, Mikel lehengusu"
gendun gutxi gorabehera
baietz erantzun, erantzun baietz
ta egin ondoren papera
zein zan Xabier ta zein zan Mikel
pentsatzen hasi ohi gera.

10. bertsoa

Denak famili handi bat gera
beraz horregatik lasai
saio hontara ailegatzetik
une baten ez nuen nahi
Egañarekin esan zidaten
eta nola erantzun bai
gero entzun nun hemen zirala
nekin Etxahun eta Unai

11. bertsoa

Ba nik baietza erantzun nuen
oso azkar ta pozarren
gero Oihana taldean zela
kolpe batez jakin nuen
ta Ilunbeko bakarkakoa
mamu etorri ta arren
zuk sinistu edo ez sinistuarren
akojonauta nentorren

12. bertsoa

Akojonauta diozu baina
ez zaitut ikusten hala
dirudienez ondo egina
daukazu jada azala
nik umetatik ezagutu det
zure txapelen itzala
ta nahiz ez esan, ondo dakizu
nire ohorea dala.

13. bertsoa

Behobia prestatzeko
baneuzkan hiru plan
3, 40 bueltan
martxa baneraman
baina ezin dut joan
ta esplikat, zelan?
bertsotara joan behar
ta ardaua edan

14. bertsoa

Mahats zukua baitogu
gehiegitan gurtu
korrikan irten eta
segidan damutu
kilometroa ezin dau
hain arin burutu
aulkitik jaikitzeko
behar dauz lau minutu

15. bertsoa

Kirolaria ez naiz
gauza nabarmena
erronka ezinezkoa
lau minutuena
nik euskal kulturari
eman diot dena
txoko bateko mahaia
da pista onena

16. bertsoa

Bertsolariarena
hori da jarrera
mahaia izaten baita
sarritan barrera
halan da be kotxeetan
goaz gu aurrera
bertso-afaria da nahiko
fondoko karrera

17. bertsoa

Hiru ordu kantuan
amaitu ta punto
goizeko bostak dira
etxera orduko
kirolari bezala
ez gaituzte hartuko
ta Urkulluk ez digu
inoiz eskertuko

18. bertsoa

Behar bere eztoгу
ta egon zaite alai
Behobiatik Donostira
jendea dabil alai
30.000 lagun
doaz hortxe porai
ea nor dan ordu bian
kantan eiteko gai

19. bertsoa

Gogoan daukat lagun Oihana
nexka lau ta laua zela
irriparrea egiten zuen
moja nobiziek bezela
gaur egunean adar-jotzerik
horri eztaukagu bela
nabaritzen da bertso-plazatan
asko gaiztotu dutela.

20. bertsoa

Bai, egia da, mojaren pare
neukala noizbait mingaina
baino urteek eman didate
hau aldatzeko ordaina
plazetan sarri aritu ohi naiz
ta hartu diot tamaina
gaiztakeritan maisu bikaina
baita Andoni Egaña

21. bertsoa

Etxahun genuen ez zuri, ez beltz
baizik mutil koxkor grisa
orain hazi da ta entzun dedanez
gustuko du zubigintza
neurri-neurriko gestuak ditu
ta neurri-neurriko hitza
beti t'erditan legoke hori
errelojua balitza.

22. bertsoa

Beti neurrian egin izan dot
antza neure pekatua
bai gauza ona zein gauza txarra
baina aurretik neurtua
gaur erlojurik eztot ekarri
egoan debekatua
kamerinoan t'erditan dekot
lau minutu atzeratua. ´

23. bertsoa

Umea zala reboltosoa
hau ez zen gelditzen errez
gaur otorduan dena konpontzen
ta hizketan zenbat interes
nik pentsatzen det Iturriagak
akatsen bat dula berez
leno hizketan ezekian da
orain entzuten ere ez.

24. bertsoa

Hamasei urte zeuzkan ta EGBn
zegon oraindik bestea
ta zaila da orain ni hitzontzi bat
naizenan horri eustea
ja ez zara klaseko handiena
ta ja ez zara gaztea
pozgarria da zu burusoil ta
ajatuta ikustea.

PUNUKA

25. bertsoa

Kaixo Etxahun, zer moduz,
gogotsu al zatoz?
atzo gogo gehiago
neukan berez askoz
bueno ni behintzat nator
ondo eitteko asmoz
ta kanpoan zer dogu
gaur bero edo hotz?

26. bertsoa

Irratia sintonizau
ezinik gabiltza
CD on bat jartzea
litzake baldintza
geldirik gagoz eta
erabili giltza
edota emaidazu
merezi dun hitza

27. bertsoa

Konbersazio on bat
emaidazu edo
konbertsaziñoa eduki
behar dogu gero
bizkaitar batengandik
enun hau espero
zer esangot gero, dana
oin esan ezkerro

28. bertsoa

Gero bertso afaria
luze joango da
zer esan asmatuko
degu bai gerora
itxiko ete doguz
entzuleak gustora
hori lortzeko ere
badago denbora

29. bertsoa

*Nik orain arte behintzat
kunplitzen det ondo
beti eiten dodanik
nik eztot ba esango
saio onak egin ditut
nik behintzat egundo
azeleratu ezean
ez gara joango*

30. bertsoa

*Euki kotxea dozu
nahiko berezia
nere klaseko batek
ondo merezia
erregalatua ezta
edo erosia
jo kontuz, ia jo det
pareko hesia*

31. bertsoa

*Etxahun gutxinez zera
kopiloto txarra
hori be ba ete zendun
aitatu beharra
kopiloto kaxkarra
eta bizkaitarra
ezkerrekoa al da
gaur karril bakarra?*

32. bertsoa

*Ze aurreko irteetan
irten behar gendun
ba pixkat leuago
abisatu lagun
irratira begira
beti ezin jardun
hurrengo irteera
hartuko det ordun*

33. bertsoa

*Egiten al dituzu
GPS lanak
ez hortara ez dodaz
gogoak emanak
eskerrak bista ona
badaukan Oihanak
ni urduri jartzen nau
gure gaurko planak*

34. bertsoa

*Iritsi gara herrira
ta orain aparkatu
leku txikiak daude
ezin bat hautatu
afaria non dan ere
beharko da topatu
lehenengo irten kotxetik
eta ni gidatu*

35. bertsoa

*Bota aurrera apur bat
ta orain atzera
ni enaiz atrebitzen
hola zapaltzera
bieri jo dotsezu
betiko antzera
baino ondo ta zuzen
geratu da bera*

37. bertsoa

*Hemen da antolatzailea
atera kotxetik
a nik saioa egin
nahi nuen bertatik
ez gara alferrik hona
etorri etxetik
buel tako bidea re
hain ondo eztakit*

36. bertsoa

*Bueno bueltan kotxea
hartuko al dezu
edateko asmotan
ba ete zaude zu
bueno zuk e lan pixkat
egin dezakezu
bolantea hartzeko
inoiz enaz kexu*

38. bertsoa

*Lotako lekuren bat
bilatu beharko
kotxea be bertan dau
txarra ez talako
bueno ni etzango naiz
zu kanpoan guapo
itxi dagigun bertan
hemen gerorako*

39. bertsoa

*Haurrak negarrez utzita egin dut
etxetik aspaldi alde
herrira heldu ta hamar whatsapp
Xabi, non ostia zaude
gero heltzen da beste tipa hau
ez gainera bare-bare
hamaika aldiz bizi izan dugun
egoera hortan gaude
Jose Luis bera gorrotatuz
nor den ere jakin gabe*

40. bertsoa

*Babeserako besterik ez dut
ba horra txosnako barra
nire inguruan kasuik inork ez
ta itzelezko zarraparra
batek diosta, "Txo izan zinen
garai batean makarra,
egin peta bat edota zaude
igual zahartu xamarra"
hori bai dena parte hartzailea
eta oso popularra*

41. bertsoa

*Umirez hartzen baldin baneki
ozpina zainetan barna
ezpaneukake eukiko nuke
nik hau zelan eroana
teknika bat dut: agendara joan
fosforitoz jarri dana
xabi ta bere herriko izena
sekula ahaztuko ez dudana
ta hurrengo urtean etorriko da
kantura zuen amama.*

BIGARREN ZATIA

42. bertsoa

*Lehen aulkia izan liteke
hala moduzko kartzela
baina banekin bidio horretan
esango nuela
propio jarri naiz gaur lehen aulkian*

*oso gutxitan bezela
banekilako hala jarrita
parre egingo zenutela*

43. bertsoa

*Ta nik lelena esango zute
hau da txuloputa kasta
ba gaur julio aurreratuta
ni bigarren jarri naiz pa
hor etorri naiz eskaileretan
korrika ta harrapazka
baino Juliok nik baino askoz
hanka luzeguak dazka*

44. bertsoa

*Esan zidaten aukera zazu
non jarri nahi zenukeen zuk
nire aukera egin behar nuen
izan jarrita izan zut
nik bigarrena hautatu nuen
ta hirugarren nago, glup
azken aldian nire aurretik
beti sartzen zaizkit batzuk*

45. bertsoa

*Ikusten denez oso postura
desberdinak ditugu guk
nik saio aurretik eskertzen ditut
nire kideen laztan batzuk
bi edo hiru aulki horretan
difuminatuta arrunt
gero saioan nire bertsoei
esker destakatuko dut*

46. bertsoa

*Azken aulkia izan liteke
ideia onen erbeste
lehena berriz kamara denen
jo-puntu ta zilborreste
babesten gara nahiz eta jardun
lehenengo aulkien eske
hitz egitean ausartak gara
ekitean, ez hainbeste.*

47. bertsoa

*Azkena edo azken aurrea
hor ibili naiz ezbaian
ta komunean ezkutatu naiz
azkena hartzeko nahian
inork nerekin egon nahi badu
ondoren giro alaian
toki berean eseriko naiz
afaritako garaian.*

48. bertsoa

*Oihanan geniyua
eztegu normala
nahiz eta itxuraz dan
neska bat formala
atzo denak zinera
juan ginan, aibala
dena etzan atera
bestiok nahi ahala
ez esan nik zinian
lo hartzen dedala.*

49. bertsoa

*Nik zinera esan ta
zuk zinera pausu
ez didazu sekula
egin enbarazu
beti kapritxoekin
topera naukazu
nik agindua eman
ta Aginek kasu
etxera bezelako
mutila zara zu.*

50. bertsoa

*Hala agintzen dute
holakuen senek
ni bezelako mutil
zintzo ta zuzenek
ta sagardotegira
berriz guazenek
ez dute kukilduko
gure min ta penek
txuleta asko eina
jaten degu denek*

51. bertsoa

*Beraz horretan ere
banaiz azeria
beti asko egina
bestela erdia
zurekin saihesten dut
beti komeria
gustoko dut sagardo*

eta haragia

hargatik jarri zuen

sagardotegia

52. bertsoa

Ta ausartzen naiz zuri

txuletak saltzera

Bilbotikan etortzen diranen antzera

ni mutil egoskorra

naizela, bai zera!

bera agintariya

ta bera saltsera

aizu Oihana, alaba

bakarra al zera?

53. bertsoa

Beitu eskariena

noraino dijoan

nire ahizpa ere

nahi duzu eroan

horrela bizitzeko

hain modu eroan

zuk gurako bazendu

ahizpagana joan

baina nigana bueltau

agindutakoan.

54. bertsoa

Hau da hau noraeza

hau da hau linbua

gure harreman hontan

ezin berdindua

horrela hasi ginan

eta berdin dua

izen eta izana,

dena det mindua

Agin izena eta

ezin agindua

55. bertsoa

Ezin aginduana

zabiltza onartzen

horrela zabiltzanez

bizitza pasatzen

beti nirearekin

ni naiz ateratzen

eta gaur ohartu naiz

igual pasada zen

berari utzi diot

doinua aukeratzen

56. bertsoa

Eske Kurasaalerako

lehen etorrera

garrantzitsu sentitu

liteke norbera

baina alda ez dadin

gure egoera

zui kasu egitia

askozaz hobe da

eta nahi dezunian

eseriko gera

57. bertsoa

*Igual doinuarena
izan da bortitza
hobe dana erdibana
izango balitza
baina zure eskua
gaur denez murrirtza
arrazoi duzu orain
luzatzen gabiltza
baina gaur nirea da
azkeneko hitza*

58. bertsoa

*Beste Paiatar bat da munduan
berriak itxi nau seko
anaia al da ala arreba
edota anaiordeko?
hiru Paiatar nahikoa ginen
mundu dena zoratzeko
ta arriskurik ez nuke hartuko
laugarren bat izateko*

59. bertsoa

*Zuk Paia abizena emanik
pasatzen dezu denbora
bigarrena Maia izango du
zergatik ez hola lora?
Paia aldera ertetzen bada
mundua berriz aztora
Maia atera bada ordea
nahiko fina izango da*

60. bertsoa

*Paia ta Maia gara gu biok
ondo esan dozun erara
karnetean be errima fina
jaku lehendik atara
bertsolarion odola dogu
eta maite dogu gaba
gure etxean ezin da onartu
bertsolaria ez bada.*

61. bertsoa

*Bertso afarien parrandak eta
txapelketetako dramak
hilabete bukaeretara
iristeko berriz lanak
ta kalean berriz gehienetan
bibidorearen famak
bertsolaria ez irtetea
desio du gure amak*

62. bertsoa

*Ondo gordeta eduki dau amak
eztosku esan sekula
adin honegaz jakin beharrak
ez ote dirudi burla
joan beregana anaia maite
ta etzazu disimula
joan beregana ta esaiozu
beste anairik ez duzula*

63. bertsoa

*Beraz gezurra esango diot
eta horrekin pakea
ahaztu behar det orain artean
geneukan anaiarte
gure arteko lanbro giroa
lotzen gaituen katea
salbazioa izan daiteke
arreba bat izatea*

64. bertsoa

*Lehen elkarrekin esertzen ginen
oilo ipurdiz azala
lehen txuleta jaten genuen
gaur oilaskoa bezala
lehen xanpaina ta orain Kasa
hau ez da bate normala
susmoa daukat gure harremana
goitik behera dihoala.*

65. bertsoa

*Bikote harremana ez delako
pikoan beti jokoa
txuletik ezta, xanpainik ezta,
non daukazu oztopoa
hau ere laukidun mantela da ta
ez daukazu gogokoa
Julio beti afaldu duzu
nik neuk prestatutakoa*

66. bertsoa

*Alper xamarra izan naizela
egirik bada, hori da*

baina urruntzen hasi ginen ta

begira ze urrutira

bi izar eder daude etxean

eta bestela begira

mahai berean segi dezagun

arrazoi bakarra dira

67. bertsoa

Eneritz eta Izaro biak

ari zaizkigu handitzen

ta badirudi mahai berean

ja ez garela kabitzen

beti horrela esertzen ginen

zu alde hortan, ni hemen

baina halere gu orain baino

askoz gertuago geunden

68. bertsoa

Orain bi izar bakarrik jartzen

zaizkigu aldamenean

garai ederrak bakarrik izan

ohi dira oroimenean

hau aldatzeko esperantzarik

izan arren barrenean

bihotzak berriz betetzen zail da

ura bukatu denean

69. bertsoa

Garai batean uretan putzu

ta ibiltzen gu gustora

baina alferrik ez zaigu joan

gure artean denbora

ni prest nago ta zure partetik

*zeoze ba izango da
nahi baduzu toki bat daukazu
etorri nire ondora*

70. bertsoa

*Baina beldurra senti dezaket
halako distantziakin
urrutiegia jarri gara ta
orain gerturatu ezin
baina mugitu gaitezen pixkat
jar gaitezen elkarrekin
lehen pausoa izan daiteke
sua itzali ez dadin*

71. bertsoa

*Aurtengo hontan aipatuko dut
nire famili maitea
eta bizitzan zer pasa zaidan
ur hortatik edatea
norberégandik sortu behar da
gero fikzio, artea
bertsolariak askotan nahi du
hau ta hura esatea
eta bertsoak sortzen du gero
gure errealitatea*

72. bertsoa

*Gaia entzunda burua jeitsi
ta une batzuk itxaron
umorerako gaia duzu hau
benga, abitu zaitetz Jon
buelta ta buelta espiral baten
zoritxar eta zorion*

*norbere baitan bidai luzeak
beti ez du egiten on
bila ta bila ibili arren
sarri ez dakizu non dagon*

73. bertsoa

*Errebeldea izan nahi nuke
nire errimen pausotan
ta publikoa galdu nahi nuke
fantasiaren basotan
ideia asko izaten dira
gure burmuin lausotan
funanbulista batzuk bezela
ibiltzen gera bertsotan
nahi dugunaren ta ahal dugunaren
lurralde ezkutu hortan.*

KOPLATAN 74. bertsoa

*Jubilatua beti egoten da
denborarekin bentajan
danza del vientre egingo nuke
gelditu gabe, jan da jan.*

75. bertsoa

*Baina jadanik utzi beharko
duzu zure jan ta jana
jubilauta be ein beharko dozu
nik agintzen dizudana*

76. bertsoa

*Oihana zuk zer agintzen duzun
batere etzait inporta
danza del vientre egingo dut nik
valla batean igota*

77. bertsoa

*Danza del vientre egin nahiean
gero konpontzeko gaude
eta raketa ibiliko det
fundatik atera gabe*

78. bertsoa

*Ekintza pila egitea da
nik orain daukadan moda
Aginengana joan beharko dut
txuleta ikastarora*

79. bertsoa

*Sagardotegi asko badira
nire ustez jada hemen
igual berri bat egin beharko
dugu biok Benidormen*

80. bertsoa

*Bai, bai ibili sagardotegi
bat jartzeko aldartian
aprobetxatu biharko degu
dentadura dan artian*

81. bertsoa

*Baina alperrik ditugu orain
holako pasadizoak
ikastaroekin badakit eiten
Agin, hagin postizoak*

82. bertsoa

*Ikastaroak, sukaldaritza
biak hartuaz goguan
txuleta ere egin daiteke
igual purean moduan*

83. bertsoa

*Pure egin nahi dezu txuleta
etzait iruditzen normal
baino hori non ikas liteke
makrame horretan igual*

84. bertsoa

*Zuek sukaldean jarri beharko
holan jira eta bira
eta ni berriz hor egongo naiz
zuen obrari begira*

85. bertsoa

*Bus geltokia behintzat Donostian
ez da hain errez bukatzen
dagoeneko gizon hau ere
hasia zaigu aspertzen*

86. bertsoa

*Bus geltokia diozu baino
obrek patxada dakarte
eta obrarik ezta faltako
A8-a degun arte*

87. bertsoa

*Hor kritikutzen ibili ohi naiz
goiz ta arrastietan zehar
egia esanda hori egiteko
ez dut kursillorik behar*

88. bertsoa

*Edozein gauza gusto handiaz
nik egin dezaket berez
edozein gauza, baina esklabuan
gisa ilobak zaintzea ez*

89. bertsoa

*Noski esklabuan gisa pasatu
leike denbora mordua
nik tarifa bat jarriko nuke:
12 euro ordua*

90. bertsoa

*12 euro baina esklabuak
dira bi honek nire partez
eta horrela bizi naiteke
beste 120 urtez*

91. bertsoa

*12 euro ideia ona
izan leike beharbada
Benidormera ez, gu orduan
joango gara Kubara*

92. bertsoa

*Ze bi modelo batera dira
kasu horretan laguna
haurrak zaintzen dituen eta
lanian segitzen duna*

93. bertsoa

*Beraz horrela bastante behar
daukagu dagoeneko
nik nire lana ez nuen utzi
besteen umeak zaintzeko*

94. bertsoa

*Nibelarekin hor nagusia
ez denez gizon ahula
keinuka dabil ya derrepente
bukatu behar dugula*

95. bertsoa

*Bale konforme baina segitu
jubilatua pilatzen
beira Egaña, bertsolari bat
inoiz ezta jubilatzen*

96. bertsoa

*Beraz ez duzu jubilatua nahi
zuk bertsotan buruz buru
jubilatzeke asmorik ez ta
hil ein beharko zaitugu*

97. bertsoa

*Beraz bertsotan aritzea da
ofiziorik onena
jubilatzea ezinezkoa
da langilea ez dena*

TXANOGORRITXO ETA OTSOA

98. bertsoa

Bi ate bi aukera

ze dilema mota

basotik edo nik neuk

irentsi txokoka

ba basoko atetik,

Btik behar dut bota

amamari bildurra

gehiago diot ta.

99. bertsoa

Kaixo Txanogorritxo

kaixo, txano gorri

amonai zerbait behar

diozu igorri

baino ez izan presarik

ta ez egin korri

ongi pasako dugu

nirekin etorri

100. bertsoa

Ba A bidetik noa

pozik eta arin

txakurran itxurako

pizti on honekin

ta kontatuko dizut

ze egin gendun jakin

lehengo aldian Karrantzan

zu lango laurekin

101. bertsoa

Iritsi naiz etxera

ta ze bertigoa

nahiz eta amona den

dena solidoa

jan egin beharko dut

ohean igoa

hori izango baita

sinisgarrigoa.

102. bertsoa

Otso zikin horrekin

ikusiz izarak

otsoa amamarekin

ai ene ze trabak

lehen anaia berriak

ta gero osabak

oso arraro dabiltza

famili hontan gabak.

103. bertsoa

Hau egin, hura egin

nebilkin burutan

zu jatea pentsatu

izan dut batzutan

baina ez dut egingo

ta ez jarri sutan

itxoin ile bat duzu

sudurraren puntan.

104. bertsoa

Txakur moduko pizti luze hau

ez al da ikaragarria

gure amamak lehendik behar zuen

bere maskota berria

105. bertsoa

*Idealizatuta zintudan ta
orain ze korapiloa
sudurrean ile bat daukazu
eta azpian pila*

106. bertsoa

*Otso iharra eta ahula
hona zatoz mehatxu truk
ipuina asko aldatu leike
baina nik jan behar zaitut*

107. bertsoa

*Beraz ipuina aldatuko da
bueno ba eztakit, eztakit
ados, proposamena onartzen dut
baino hasi hanketatik*

108. bertsoa

*Zu jatea gaur izan liteke
hain ariketa mantsoa
nungo ipuinetan ikusi da ba
bi metrotako otsoa*

109. bertsoa

*Bai, sinesgarria ez da oso
ez da gauza bat duina
hurrengoan interpretatu nahi dut
hiru txerrien ipuina*

110. bertsoa

*Dena modernizatzen ari da
nahiz eta ez izan duina
beitu ze bizar, ni ere nauzu
Txanogorritxo drag queena*

111. bertsoa

*Ipuin hau hobetzen ari zaigu
nik amestu nuen berdin
enamoratzen ari naiz eta
ezkondu zaitte nirekin*

112. bertsoa

*Nitaz maitemindu omen dela
esan eta gero drag queen
bueno logikoa izan leike
amaitzea "La Otxoa"*rekin*

113. bertsoa

*Baina fallotxo bat dauka honek
joan da aurrekoz atzeko
pena amona jan dudala lehen
gure umea zaintzeko*

114. bertsoa

*Bueno ba ipuinez alda gaitezen
ta utzi ezazu drama
hementxe daude ta joan gaitezen
lau txerrikumeengana.*

AZKEN AGURRAK

115. bertsoa

*Desio, duda, ahalegin
etorri edo alde egin
gustatzen zaigun bertsolaritzak*

*hauxe dik, hauxe din
beraz gaur saio atsegin
bat nahi genizuen egin
ia nahi gabe erabakiaz*

hala izan zedin

116. bertsoa

*Amonaren burua
otsoen sabela
jubilatuen valla
umeen pardela
bertsolariak daukaz
besteen papela
edozein herritako
atean gaudela
jakinik bestaldean*

*zuek zaudetela
beti sentitzen gera
etxean bezela.*

117. bertsoa

*Deitik eta saiora
zelako estresa
baina gaurkoaz behintzat
ezin gara kexa
lehen aulkia beti
ez dugu erreza*

gaur aulkiak ez zuen

*nire interesa
zuek izatekotan
ondoko babesa.*

118. bertsoa

*Milesker ea elkar ikus
dezakegun afarian
ze plazerra 2016ko
loraldian*

*bertso-kantun aritzea
kultura metropolian
zatoz, erosi, zukutu
ez geratu atarian
saio hau ere Kursaal
izan baita aspaldian
datorren urtean egin
beharko dugu agian
Nabarra Arenan edo
Maria Kristina zubian.*

119. bertsoa

Bihotza daukat taupaka

oilo-ipurdiz azala

bertsoaren egunean

bilgune da Kursaal

Donostia bihurturik

bertsoen kapitala

soka zaharretik tiraka

lehen Txirrita bezala

haizeak gure bertsoa

hara eraman dezala

jarrai dezagun kantatzen

herri hau bizi dala

20. bertsoa

Musu bat bertsozale

gure akuilu zara

bertsoa har liteke

itsasoan gisara

olatuen forman igo

gara gaur oholtzara

eta orain joanen gara

berriz ortzi-mugara

hitzaren itsasoan

pozik biziko gara

hondarretan apar pixkat

gelditu baldin bada.

III. ERANSKINA.
JON AGIRRESAROBERI ELKARRIZKETA⁴

Jon Agirresarobe: Guk espektakuluak ez ditugu behar beste kontrolatzen. Urtean behin egiten dugu hau eta bertan gidoilari ibiltzen direnek eta ez daukate kontzientziarik ba zer suposatzen duen ez? Ba hori dena itxi eta buka, telebistarako batik bat.

Hau nahi dut ulertzea. Balorazioan ideia orokor batzuk atera genituen, baina denak ez geunden ados. Orain hau Mendiluzeri galdetzen badiozu, ez dizu arrazoi emango nik esandako gauza batzuetan. Baina uste dut nik esandakoak nahiko orokorrak direla, jendeak konpartitzen zituenak.

Bertsolari asko zeuden aurten taldean: Sarriegi, Mendiluze, Eneko Lazkoz eta Urko Casado. Hau bertsolari gai-jartzailea da. Hauek, bai batera eta bai bestera, abiapuntua hartu zuten Andonik eta Maialenek EHU-ko lehengo urteko udako ikastaroetan eman zituzten bi hitzaldi.

Andonik egin zuen pixka bat, deia jasotzen duenetik saioa iristen den egunera bitartean bertsolariak hartu beharreko erabaki guztiak. Kantari hasi aurretik. Maialenek egin zuen oholtzan hartu beharrekoak.

Hasieran hasi ginen arratsaldeko ekitaldia antolatzerakoan, ba ikusiko duzu, arratsaldeko ekitaldiko bi zati nagusiak direla: bat, bertsolaria kantuan hasten dena arteko erabakiei buruzkoak. Eta bigarrena da geroko erabakiak. Orduan banaketa hori hortik etorri zen.

Lehenengo egin genuena izan zen arratsaldeko bertsolariak aukeratu. Urri-azaro aldera deiak. Taldeak aukeratu nahi izan zuen erabaki horiek hartzerakoan libre xamar ikusten duen jendea. Ba adibidez, egotea tartean saio askori ezetz esaten dion jendea, egotea tartean zer egin nahi duen garbi ez daukan jendea, eta nahi ez duena... orduan hamarkote klasiko xamarretik kanpo ateratzen zen. Klasikoa diot, bertso eguneko hamarkote horretan bazeudelako batzuk bertso egunean lehenengoz kantatzen zutenak. Baina horretaz kontziente ziren gai jartzaile taldeko jendea eta nahita egin zuten. hori beraiei uzten zaie aukeratzen eta bueno, ba, azertatzen da edo ez da.

⁴ Galderak emailaz bidali zitzaizkion, eta telefonoz jaso ziren erantzunak.

Gero bi zatitan egin zen. Hasierako atalean antolatzailearen deia jaso, dei tranpa bat sartu, informazio askorik gabe saio batera joatea... hau da, Andonik aipatzen zituen zenbait gauza. Bigarrenkoa zen, gehiago bertsoetan hasten garenean hartu beharreko erabakiak; pertsonaia zenbat moztu... ariketetan ikusten direnak.

Arratsaldeko ekitaldiarekin hori gertatu zen. Nahi ziren erabakiak bistaratu. Baina gai jartzaile taldeak oso garbi zeukan ez zuela (hau asko diskutitu genuen eta ez ginen ados jarri), ez genuela zertaz hizketan ari ginen hitz egingo. Hau da, hasierako kontua zen jartzean hiru bertsolari bidez grabatuta, hau da, deia jaso eta informaziorik ez dela eskatzen. Zuri deitzen dizute eta normalean bertsolariak ez dauka joerarik informazioa eskatzeko, eta horrela.

Alegia, zati baten hori, ariketek behar zutela esplikazio bat, benetan zer bistaratu nahi zuten erakusteko. Baina gai-jartzaile taldearen kezka zen gauzak bi aldiz esplikatuta geratuko lirakeela, edo pixka bat redundantea geratuko zela. Ez zen hori egin, eta gero ondorio nagusia izan da behar zuela hari konduktore hori saioak. Hori izan zen egin genion kritika handi xamarrenetarikoa. Eguneko ideia nagusia den kontakizun bat falta zen. Gero agian taldekide batek esango dizu “joe ba nire ustez ez”, baina orokorrean pixka bat horrekin geratu ginen.

Bigarrena zen... lehenbiziko laukoteak plazan asko ibilitako bi bazituen, lidertza lana egin zutenak. Batik bat andoni baina unai ere hor zegoen. Eta oholtzak badakitenak zer diren, oholtza hori. Bada leku berezi bat, asko inponitzen du. Orduan, pixka bat bai izan behar duzu “*echao palante*”. Bigarrenko taldean falta zitzaigun agian lider papera hartuko zuena. Seguraski bagenekien ba Oihanak ez zuela hartuko, Juliok ez zuela hartuko... horren sentazioarekin ere pixkat gelditu ginen. Osea bertsolari aukeraketan baino, taldeen banaketan ez genuela ondo egin.

Beste balorazio batzuk: zuk azkenean metabertsolaritza egiteko beldurra baldin baduzu, ba gaia ez duzu ateratzen. Askotan esaten dugu “joe gai hau kriston polita da, bertsolariok honetaz hitz egin nahi dugu”, baina bestaldetik sartzen zaigu... “Bai baina hau pixkat da, bertsolaritza mundukoei bakarrik interesatzen zaigu”. Eta hor beti bi mundu tarten ibili behar dezu ba... erabaki bai edo ez. Baina baten batek esango dizu “hau oso polita zen, oso interesgarria zen”; baina beste batek esango dizu “hau bakarrik zuei interesatzen zaizuela”:

Baina ezin duzu ibili metabertsolaritza izan gaia eta disimulatu nahian. Bertsolaritza baldin bada bertsolaritza da. Bertsolaritzan gertatzen diren gauzak kontatu behar badituzu ba bertsolaritzan gertatzen diren gauzak kontatu behar dituzu.

Beste ondorio bat izan zen: aurkezleak asko abarkatu zuen. Bere lana oso ondo egin zuen, baina hor gertatzen zaigu medioen diferentzia oso handia dela, alegia, Aitziberrek eszenarioan mugitzen daki, gu estatiko xamarrak gara. Aitziberrek nahi dun prosan nahi duen adina luzatu daiteke. Guk gure neurriak dauzkagu. Eta gure ariketak dauzkagu eta hor sartu behar dugu. Guk ez dugu libreko saio bat egiten egun horretan. Gure gai jartzaile batek badaki hori, zenbat neurtu behar duen.. baina beste generoetako jendea ekartzen dugunean, hark *via libre* sentitzen du, eta normalean hor desoreka bat egoten da. Eta hori pixka bat gehiago landu behar genuke. Eta aurten dezente gehiago, baina egon dira beste urte batzuk desoreka handiagoa izan dena. Oraindik ere badago...

Baina beno, antzerki pixka bat ere behar genuen. Horregatik aukeratu genuen antzerkilaria izatea aurkezlea.

Beste bat da telebistako emaitza. Hau EITBren produkzio bat izaten da. Guk egiten diogu ekitaldia saldu EITBri, eta horrek esan nahi du EITBk ekartzen duela bere ekipoa. Aurretik egiten ditugu hiru lau bilera nola izan behar duen ekitaldiak, adosteko argiztapena eta kamaren posizioa. Baina erabaki guztiak EITBrenak dira. Errealizadore batek ulertzen du guk ze intentzio daukagun. Baina ulertzen du bere modura. Eta hori ejekutatzen du (kamaren posizioa eta abar) bere modura. Antolakuntzak informazioa ematen dio baina ez da gauza adostu bat.

Txapelketa nagusietan adibidez, iritsi gara, guk gure helburua betetzeko, alegia, guk nahi dugu atzeko pantailak egin daitezke guk egiten ditugunak baino askoz errealizazio hobeak. Baina ez dugu nahi bertsolaria adibidez pentsatzen ari denean barridoak egitea. Zuk agian tik bat eduki dezakezu, pentsatzeko garaian eta, eta hori ez dadila atera 8x10eko pantaila batean. Eta klaro, ikuspegi audiobisualetik ba igual oso polita da zuk eskuak nola edukitzen dituzun bata bestea edo gerrian hazkura daukazunean...

Orduan guk egiten dugun errealizazioa da askoz aspergarriagoa, baina errespetatua da. Batzuetan gertatzen da atzeko zortzikotea zerbait egiten ari dela, bat kantuan ari denean... Hor kokatzen badugu atzeko pantailan telebistako errealizadore

bati deigarria iruditu zaiolako, jendea barrez hasiko da eta aurrean dagoen bertsolariak esango du, “zer pasatzen da hemen”. Holakoak, ez hain esageratuak baina gertatu izan zaizkigu.

Orduan normalean egiten dugu ba egun handietan bertsolariekin paktatu: begira, aterako da zuen plano amerikanoa kantatzen ari zaretenean eta gai jartzailea eta bi bertsolariak gaia jartzen ari direnean. Eta beste guztietan logoa edukiko dugu. Hasten baldin bagara publikoa sartzan, adibidez, jendea barrez hasten da. Eta bertsoetatik atera egiten da. Hauek dira beti bertsolariek edo antolatzaileek egindako oharretatik ateratako ondorioak.

Orduan, egun honetan ordea, beste gauza bat da telebistan nola emititzen den, eta hor guk ezin dugu eskua sartu. EITB-k nahi izaten du nahi duena egin, bai finaletan, bai bertso egunean. Eta nire ustez, beraiek gehiago fijatzen dira gauza estetikoetan benetan kontenidoan baino. Nire ustez kontenidoa ez dute behar adina asimilatzen, ariketa horretan zer nahi zen edo zer, gero emaitza ere halakoa da. Askotan ariketa batean elementu berezi bat sartzan badugu, erabat ari dira elementu berezi hori ondo eman nahian. Hori ez da hain inportantea.

Gero adibidez daude akats *garrafal* batzuk aurtengoan hainbeste ez, baina lehengo urtekoan (zu gogoratuko zara), zure mikroa zure kopetan dago. Hori da argi frontalegia delako. Orokorrean EITBn akatsa beti da argia. Guk oso goitik erabiltzen dugu, hori ere ez da ona, baina hauek frontalegia erabiltzen dute, eta horrek ba itzalak sortzen ditu.

Eta planoei dagokienean... iazko zurea ikusi duzu? Eramaten zaituzte oso aurrengo planora. Detalle plano bat da. Eta hor ba ez dakit errealizadorea non zegoen.

(...)

Nahi nizun esan ba taldeak ere ez duela izaten iritzi bateratasunik. Eta gu ere ez garela denean espezialistak.

Generoaren aldetik, egia da aurten kupoa juxtu xamarrean bete dugula. Bi bertsolari zeuden bakarrik emakumeak. Gero aurkezlea ere emakumea da eta lidertza hartzen du, eta horrek agian pixkat tapatzen du... kopurutan eta. Guk urtero ematen ditugu irizpideak: lurraldetasuna eta genero ikuspegia kontuan eduki, eta

generazioartekotasuna ere bai. Ez daitezela denak generazio berdinekoak izan. Aurten generazioena eta generoena pixka bat *a la ligera* pasatu dira, eta lehentasuna eman diogu bertsolarien hautaketari. Elkarrekin pertsona batzuegan uzten badu ardura, ez da atzetik ibiltzen “ei eske arabarra falta da” “ei eske emakume gutxi dira.”. edo falta da Egañaren generazioko beste bat... gu hor atzetik ez gara hasten. Bestela da, pixka bat.. bueno ba orduan zuek egin ezazue. Azkenean baloratu behar dituzu.

IV. ERANSKINA.
OIHANA IGUARANI ELKARRIZKETA

— **Antolatzaileek Bertso Eguneko arratsaldeko saioan kantatzeko proposatu zizutenean, zenbat informazio jaso zenuen baietza eman aurretik? eta baietza eman eta gero? (data, bertsoak, gaia, taldekako antolaketa...)**

Azaroan jaso nuen bertso egunean abesteko gonbite-deia (gogoan dut, Tolosako finalurrekoaren astean zelako). Jon Agirresarobe "Torrotxo"k deitu zidan, bertso eguneko lantaldean zela azaldu (lantalde osoa zerrendatu zidan, haien izenean ere ari zelako) eta aurtengo gaia aipatu zidan: erabakiak. Egunean zehar hainbat saio izango zirela agertu zidan hasieratik, eta ni Kursaalera saiora gonbidatu nahi nindutela. Arratsaldeko saio nagusia zela, Kursaalera egiten dena, telebistak grabatzen duena, kokatze aldera bota zizkidan azken horiek.

Nik, banekiela ze saio zen eta hamar bertsolari izango zirela bertan kantuan, zerrenda esan zidan. Momentu hartan harritu egin ninduen nesken izen gehiago ez entzuteak, egia esan. Bi Oihana ginela ohartu nintzen, hori bai. Ezer esaterako nabarmendu zidan gonbidapena zela, ezetz esateko eskubide osoa nuela inongo konpromisorik gabe. Ulertzen zuela "inpresio" pixka bat egitea hasieran, eta hartzeko astebete nahi banuen erantzuna pentsatzeko.

Nik momentuko urduritasun hori izan arren erabakia hartua zegoela esan nion eta baiezkoan geratu ginen zuzenean. Orduan berriz esan zidan kantukideen zerrenda, gaia apur bat sakonago xehetu zidan (aurten zer bistaratu nahi zuten...). Saioak ez zuela beste munduko muntaiarik izango, Aitziber Garmendia izango zela gidari.

Ez dakit dei hartan esan zidan bi taldetan ariko ginela, agian nire erantzuna pentsatzen ez nion entzun. Kontua da, behintzat, egun batzuetara jasotako azalpen emailean izan nuela ustez lehen aldiz bi bloke horien berri.

Bertsolari zerrenda konfirmatu zenean antolakuntzatik saioaren inguruko zehaztapen gehiago joan ginen jasotzen, extrak izango zirela, oholtzako apaindura soil xamarra izango zela, Aitziber Garmendiaren figura antzezle eta gai-jartzaile arteko zerbait izango zela baina egoteko lasai, saio normal batetik oso gertu ibiliko zela kontua eta ez ginela gu esperimazio handien objektu izango.

Email sorta horiek ere txapelketako finalaren inguruan harrapatu ninduten eta egia esan ez nien jaramon handirik egin momentuan, gero bertso egunaren aurretik begiratu nituen arreta gehiagorekin.

— **Nola sentitu zinen saioan zehar...? Taldean, bertsokideekin:**

Bertsokideekin harreman ona sumatu zen, bi kamerinotan bereizita egonagatik gero oholtza atzean elkarrekin egon ginen. Niri egokitutako laukotean gertu sentitu nituen bertsokideak, baina urduritasuna kontrolatze aldera, egin beharreko lanak, doinuak eta abarrak zehaztean bestelako kontuez aritu ginen, bakoitza bere naturaltasunaren bila. Baina oro har giroa ona zela esango nuke, eta antolakuntzako kideak erabat izan genituen ondoan zernahi behar bagenuen laguntzeko.

Egia da, halaber, kamerinoan bakarrik geratu nintzela tarte batez, nonbait erretzera alde egin zutelako gainerakoek.

— **Publikoari dagokionez:**

Aretoaren handitasunak dispertsio sentsazioa eman zidan hasieran, baina espazioan ondo zabaldua geratzen da jendea eta horrek lortzen du halako gertutasun bat. Publikoaren erreakzioak segituan heltzen ziren oholtzara (barreak) eta horrek indartu egiten zuen jarduna.

— **Zeure lanarekin:**

Horrelako oihartzuna duten saioetan maiz gertatzen den moduan, bizitzako saioa egin nahi izaten dugu. Nik saioa handi ez zitzaidala geratzen agertu nahi nuen, eta ze laukote egokitu zitzaidan ikusita banekien nire ikuspuntua (baita agian publikoak nigandik espero zuena ere) ezberdina izango zela. Sinaduratxo hori jarri nahi nion saioari, gazte, berri baten freskotasunetik, baina inozentziarik gabe. Hori zen saioa hasi aurretik nire buruari jarritako helburua.

Hara iritsi bezalaxe jabetu nintzen zein izango ziren egin beharreko lanak eta nire sinadura uzteko aukera oso murrizta zen: ofizio bat, atzekoen ariketan erantzun bat eta bigarren ofizioa puntuka (pertsonek eskarmentu gutxien dudak ariketa). Momentua gozatu behar nuela erabaki nuen, jakitun ni gustura ikusten baninduen publiko orokorra (ez aditua) ere hor-nonbait geratuko zela.

Sentsazio gazi-goza etara nuen beraz, saiotik: batetik, uste dut lan txukuna egin nuela, oholtza hura betetzen asmatu genuela eta lanak nahiko ondo bete zirela (ia

distirarik gabe, hala ere). Azkenean, ezer gogoangarria ez bota arren, jendeak Egaña eta biok irudikatu genuen belaunaldi aldaketa gogoratzen zuen... Bertsolari bezala, askoz gehiago egin nezakeela sentitzen nuen eta puntukako saioan bereziki ez asmatuaren arantzatxoarekin geratu nintzen. Baina balorazio horri gozoa gehitu ostean (han zegoen giroa, bertsokideon artekoa...) ondorioa oso positiboa izan zen.

Eta saioaren osteko afarian ospatu genuen.

V. ERANSKINA.

IZARNE ZELAIARI ELKARRIZKETA

— **Noiz eta nola hasi zen zure harremana bertsoaritzarekin? Zeintzuk dira ibilbide horretan bertsoetik urruntzeko eta gerturatzeko izan dituzun arrazoiak?**

Bertsoarekiko harremana txikitatik izan dut, aita bertsolaria izanik etxean kantatzen entzuten nuen eta baguen bertsoarekiko lotura: hitzetik hortzera jarraitzen genuen, saiotara joaten ginen...DBHn ginela Amaia Agirre eguerditako tartean etortzen hasi zen eskolara bertso eskola ematera. Guretzat eskolaz kanpoko hautazko ekintza zen eta partaide gutxi ginen. Denbora gutxi iraun zuen bertso eskola hark, jende faltagatik bertan behera geratu baitzen. Aitarekin etxean elkartzeko saiakera ere egin genuen, baina ez genuen fundamentu handirik egitea lortu. Zaletasun handia nuen eta aitari bertso eskola bat bila zezan eskatu nion. Hernaniko bertso eskolako kontaktua lortu zuen eta 14 urte ingururekin hasi nintzen bertara joaten. Idatziz aritzen ginen taldean neska dezente ginen. Bat bateko taldera pasa nintzenean aldiz, gehienak mutilak ziren eta bi neska aritzen ginen horien artean. Giro polita genuen bertan, baina gogoan dut ofiziotan ari ginenean askotan nire txanda iritsi eta zer esan ez nekiela geratzen nintzela. Beno, egia esan ez dakit askotan izaten zen, baina hori geratu zait memorian, seguru asko hori izango zelako okerren pasako nuen momentua. Gaur egun ohartzen naiz ez nintzela bertso kideen pare sentitzen eta nire burua dezente egurtzen nuela horregatik. Hernaniko bertso eskolan nintzela Gipuzkoako eskolartekoan parte hartu nuen, eta gerora Osiñalden eta Plazatik gaztetxeran ere bai, oraindik karrera hasi berria nuela. Izan ere Leioan Arte Ederrak ikastera joan nintzen, eta hasieran bertsoarekiko lotura mantendu nuen arren, gerora zaila egin zitzaidan. Algorta eta Santutxuko bertso eskolatan aritu nintzen bolada batez.

Esango nuke bertsoa ez nuela erabat sekula utzi, baina karrera amaitu arteko talde finkorik ez nuen izan eta bertsoarekiko lotura minimoa mantendu arren, sariketetan edo plazan ez nuen jarraitu. Arte Ederrak amaitu eta Donostiara itzuli nintzenean, Hernaniko bertso eskolara gerturatzea zaila egin zitzaidan. Gaur egun konturatzen naiz nire segurtasun falta izan zela arrazoiak. Izan ere, nirekin urte batzuk lehenago bat batean ari zirenek ordurako maila ona zuten bertsoetan, eta horiekin aritzeko ez nintzen gai sentitzen. Baina egia esan uste dut ez nuela beraiengana zuzenean jo, hau da, hori nik nire buruarekin egin nuen interpretazioa izan zela.

Nire tokia ezin topatu ibili nintzen gero Donostia eta inguruko bertso eskola batzuetan: Egian, Igeldon, Usurbilen eta Añorgan. Azken honetan topatu dut talde egonkorragoa, eta Donostian txapelketaren inguruan elkartzen hasi ginen taldean.

Bertsotik urruntzeko arrazoiak talde finko baten falta eta nire segurtasun falta izan dira orokorrean.

Bueltatzeko arrazoiak, zaletasuna eta nire burua gainditzeko erronka.

— **Zerk bultzatu zintuen Gradu Amaierako Lanerako gai hau hautatzera?**

Duela pare bat urte bertso egunean generoaren gaia landu zuten, eta afalosteko bideo emanaldian “Non dago wally?” izenburua zuenak markatu ninduen: Bertan bertso eskoletan zenbat neska aritzen den eta eskolartekoen ondoren zenbat desagertzen diren aipatzen zen. Eta pentsatu nuen: “Aiba, ni hoiaren artean nago, ez naiz bakarra!”.

Erabaki nuen bi lagun bertsolariri galdetzea ea txapelketarako prestatzen lagunduko ninduten, txapelketa aitzakia hartuta berriro ere bertsoari heltzeko, eta horrek lagundu dit berriro plazara ateratzen. Nolabait esateko, egoeraz jabetu naizenean nire burua “behartu” egin dut berriro saiatzera, eta jende aurreko jarduna garapen pertsonal batekin lotzen dut. Lanketa pertsonalarekin batera, gradu amaierako lanari heldu nion, neska mutilek jasotzen duten hezkuntza berbera ez dela sinetsita eta jakinik horrek eragina duela ondoren beren plazaratzeko prozesuan.

— **Ikasgeletan ibili zara behatzaile lez. Zer behar dute neskek, zure ustez, espazio publikoa eta hitza erosotasunez hartzeko?**

Ikasgeletan edota patioan ikusi dut parte hartzea arautua ez denean neskek espazio gutxiago hartzen dutela eta atentzio gutxiago deitzen duten ekintzetan aritzen direla, nolabait esatearren espazio intimoagoak betetzen dituztela. Parte hartzea arautua denean ere, jendaurrean aritzeko lotsa eta segurtasun falta askotan errepikatu ohi da. Dena den, hezkuntza emozionala landu izan den zenbaitetan neskek lasaiago parte hartu dutela esango nuke. Azken batean, neskek espazio publikoan parte hartzeko seguru sentitu behar dute, konfiantzazko giro batean daudela sentitu, burlarik egingo ez dietela ziurtatu. Azken batean, espazio publikora ateratzen direnean epaituak sentitzen dira, eta norbere buruarekiko segurtasun handia behar da epaiketa horri aurre egiteko. Norbere

buruarekiko segurtasuna eta konfiantza dira landu beharreko ezinbesteko alderdiak. Azken batean, ahalduntzea. Baina segurtasunak ez du esan nahi ondo egingo dutenaren segurtasuna izatea, norbere buruari gauzak gaizki atera daitezkeenaren onarpena eta gaizki egiteko lizentzia ematea ere ezinbestekoak baitira. Segurtasuna, gaizki eginda ere umiliatua ez sentitzearekin lotuko nuke, gaizki eginda ere norbere buruaz barre egiteko gaitasunarekin, konfiantzarekin. Hanka sartzeko beldurrik ez duenaren segurtasuna.

— Zein litzake hezkuntzaren papera eta zein bertsolaritzarena, emakumeei oholtzarako salto horretan laguntzeko? (ahalduntze bertso eskolak, topaketak, formakuntza...)

Hezkuntzak lan handia du egiteko, egia esan ez da erantzun erraza... Eskolan hezkuntza emozionalari garrantzia ematea litzateke lehen pausua. Ikasgeletan kideen arteko konfiantza lantzea, burlarako beldurrik gabeko guneak sortzea, nesken parte hartzea bermatzeko eta neskak trebatzeko irakasleek ikasleen parte hartzeak gidatzea...baina hauek zertzelada batzuk baino ez dira, izan ere nesken parte hartzea sustatzeko oinarria hezkuntza parekidean legoke. Horretarako eskolek hezkidetzaren plan integralak jarri beharko lituzkete martxan, irakasleen prestakuntza bermatu...

Bertso munduak ere badu zereginik, noski. Aipatzen dituzun ahalduntze eskolak eta topaketak garrantzitsuak dira emakume bertsolariak ahaldundu daitezen eta egungo egoeraz hausnar dezaten: zer nolako bertsokera duten , nolakoa izan nahi duten eta zer nolako bertsolaritza nahi duten...

Bertsolaritza balio maskulinoen baitan eraikia denez, emakumeek parte hartuko badute hemen ere esparru berriak sortu beharko dira, txapelketez harago lagun giroan bertsotan aritzeko esparruak adibidez...baina zaila egiten zait zehaztasunetan sartzea, hasiera batean emakumeek eurek beren beharren arabera sortu beharko dituzten esparruak izan beharko direla iruditzen zait (“ez da kasualitatea” adibide bat litzateke). Dena den, ezin ahaztu ahalduntzearen beharra, hau da, “ohiko plazetan” aritzeko beren buruak prestatzea...

VI. ERANSKINA.

BERTSOZALE ELKARTEAREN DOKUMENTAZIOA

VI.1. ERANSKINA. Saioaren egitura

BERTSO EGUNA 2016

SAIOAREN EGITURA

Saioa bitan banatzearena argi ikusi da, lehen saioan telefonotik kotxera eta bigarreanean saioan bertan kokatuko ginatkeelarik. Bien arteko trantsizioa kotxeko bidaiaren irudikapenak egingo luke.

DEIETIK SAIORA

- Deiaaren ilusioa: Hautatua izatearen poza
Hautatua izan gabe hainbatgarren aukera zarela jakitea

“Entrenatzailea eta ordezko atezaina”

“Goizaldera norekin elkartu berdin zaionarena”

- Saioaren azterketa eta zalantzak: Zer dakit eta zer ez
Nola nago ni saioari aurre egiteko?

Zenbateraino “traizionatu” norbere burua saioarengatik?

Politikoki zuzen jokatu edo ez...

- Konziliazioa edo aukera kostua: Zer uzten den
Zertan irabazi den

Beste(ar)en papera...

- Engainuak: Saio mota
Dirua

Baldintzak...

“zatozte.....hor da omenaldia...”

AUTOKO TARTEA:

Fondoko musika izan litekeena, irratiko notiziaren bat eta horri buruzko puntukako saio bat edo. Ondoren musika edo Odei Barroso

SAIOAN GAUDENEAN

- Aulkiak: Aukeratu non eseri nahiko zenuketen bakoitzak, grabatu eta gero saioaren hasieran erabili

Ofizioka *“bietako batek nahi duena egiten du beti”*

- Hitzen traizioa: Aranbarriren testuetan oinarrituta ariketa edo gai pare bat
- Tonuaren edo jarreraren aukeraketa: Tonua aukeratzeko gai bat, Koloreekin, atekin...

Maialenen Iruñeako adibidea

Beste gai bat tonurako, behar bada pantailan aukera ezberdinak bideratuz

- Pertsona eta pertsonaia: Pertsonaiaren perfil ezberdinak irudikatu eta gaiaren barruan erabaki (*“aguazil ezberdinak, amona ezberdinak...”*)
- Gaia nora eraikitzen den: Zein ibilbide, zein puntu definitzen doazen

Aukeratu zure abentura moduko bat, egoera sinple eta segidakoak

- Marra gorriak: Bakoitzari marra gorri ezberdinak irudikatzea, aldatzen joateko aukera ere bai, laser edo argi bitartez, pantailako irudien bitartez...
- Doinua eta neurria

VI.2. ERANSKINA. Gidoia

TELOIA IREKI BERTSOLARIAK LANPARAPEAN ETA FOKOPEAN AGERI DIRA

1. AGURRAK

AUDIOA 1: SAIORAKO DEIAK

Aitziber:

Arratsaldeon, ongietorri!

Zuekin Unai Iturriaga, Oihana Iguaran, Andoni Egaña eta Etxahun Lekue.

Zatozte Andoni eta Oihana.

Entzun dituzue antolatzaileen deiak.

Andoni, Oihana, zer sentitzen du zuetako bakoitzak saio baterako deiaren ostean?

2. OFIZIOA HAUTATUAREN POZA. EGAÑA ETA IGUARAN

Extrak (goitik behera atetik sartuko dira, atea irekita utziko dute)

“Honek esan dik kilometroa lau minutuz azpitik egin nahi dula...”

“Unai data gerturatzen ai dek, ez al hator gaur entrenatzera?”

Aitziber:

Baino Unai, Etxahun... gaur plana zenuten.

***momentuz ez dugu azalpen gehiago sartuko.**

3. OFIZIOA KONTZILIAZIOA. ITURRIAGA ETA LEKUE

Aitziber:

Etorri Andoni.

Umetan eskolan elkarrekin ibili zineten. Gaur kinta afaria duzue.

Andoni aspaldi ez duzu hauen berri izan. Nola ote dabil bakoitza?

4. ATZEKOEI ZER ESPERO. EGAÑA BESTEEI

Aitziber (EZKUTUTIK):

Etxahun, Oihana... gaur elkarrekin zoazte saiora.

Audioa 2: irrati diala eseritzen direnean

5. PUNTUKA AKTUALITATEKO GAIA. LEKUE ETA EGAÑA

Musika zuzenean: 2zio

Audioa 3: saiorako deia

Aitziber: (pañuelua, txosnako baso batekin):

Kaixo Unai, Miren naiz, Xabier zen etortzekoa baino ez da etorri, bakizu...

Bueno, saioa motxa izango da, gu ez gara hain bertsozaleak.

Zea da, Joseluixen omenaldia, herrin dana egin du Joselusek.

Ordu laurden batera edo hasiko gera. Bale?

6. BAKARKA OMENALDIA. ITURRIAGA

Extrak eta aitziber: jubilatua pasatzen dira. Bat lore sortarekin.

SEI AULKIAK JARRI +BERTSOLARIAK ATERA

Bideoa: nun eseriko zinateke?

Aitziber:

Zuekin Agin Laburu, Oihana Bartra, Xabier Terreros, Jon Maia, Julio Soto eta Fredi Paia. (ESERITAKO ORDENEAN ESAN BEHAR DITUZU).

Entzun dugu zer nahi zenuten. Baina lortzea beste kontu bat da.

7. BUELTA BAT. LORTUTAKO AULKIA.

Aitziber:

Oihana eta Agin.

Zuen koadrilan Oihanak nahi duena egin behar izaten duzue beti.

Agñek ez du inoiz ezekorik esaten. Beti ameto, beti conforme.

8. OFIZIOA NAHI DUZUENA. LABURU ETA BARTRA

Elementua: mikrofono bakoitzean foku-tono bat, gaia entzunda bertsolariek hautatuko dute

Aitziber:

Jon eta Fredi.
Jakin berri duzue zuen amak beste seme bat izan zuela zuen aurretik.
Senide hori ezagutzearekiko sentsazio desberdinak daukazue.

9. OFIZIOA TONOAK. MAIA ETA PAIA

Aitziber:

Zatozte Xabier eta Julio

Ez da gaur goizeko kontua. Zuen harremana ez doa batere ondo.

Afal garaian gaia atera da.

Extrak: bi ume ateratzen dira. Bertsolariak mahai buruan, frentez umeak.

10. OFIZIOA BALDINTZAK. TERREROS ETA SOTO

Aitziber:

Gizartean geroz eta gehiago entzuten ditugu marra gorriak.

Zein dira bakarkakoetan Jon Maiaren marra gorriak?

Jon hankapean dituzu terminoak. Zuk aukeratu zein baliatu eta zein baztertu.
terminoak marra arten kokatzen ditu

Aukeraketa eginda, gaia jarriko dizut segidan.

“Beste hainbatetan bezala burua makurtu eta josten jarraitu duzu”.

11. MARRA GORRIAK

Musika zuzenean: 2zio nire barrenetatik

Extrak: sei jubilatatu.

Aitziber:

Bukatzen joan behar dugu.

Jubilatuen aurkezpenak (Pare bati edo kaso egin).

azalpenak

1. ikastaro guztietara apuntatzen dena
2. ume zain
3. obrei begira
4. urte erdia benidorren
5. lana egiteari uzten ez diona
6. kirola egiten hasi dena

Etorri Agin, Oihana eta Xabier.

Zuek ere jubilatatu berriak zarete.

Zer egin erabakitzen ari zarete.

12. OFIZIOA JUBILATUAK. LABURU-BARTRA-TERRE

ateen tartera joanda

Aitziber:

Gogoratzen al dituzue “aukeratu zure abentura” estiloko liburuak?

“A aukeratzen baduzu zoaz 70. orrialdera”, bai, horiek!

Hemen historiaren bi protagonistak: Fredi Txanogorritxo eta Julio Otsoa. Zatozte!
Zuek bertso bidez aukeratuko duzue historiaren garapena.

Has gaitezen!

Amaren etxetik abiatu zara Txanogorritxo, askaria otarrean amonari eraman asmoz.

Baina Fredi, zerorrek hautatu behar duzu:

A): Basoko bidea hartu

B): bidean txoko batean eseri eta otarra zerorrek hustu

Aitziber:

A kasuan

Basoako bidea aukeratu du Fredik eta bidean perretxikuak bildu ditu.

Baina bidean agertu zaizu Julio, otsoa.

Eta Otsoak aukeratu behar du orain:

A): Txanogorritxori bide luzetik joatea proposatuko diozu

B): bildutako perretxikoak tortilan elkarrekin jatea.

B kasuan

Otarra hustu perretxikuak bildu dituzu amonarengana esku hutsik ez joateko.

Baina bidean agertu zaizu Julio, otsoa.

Eta Otsoak aukeratu behar du orain:

A): Txanogorritxori bide luzetik joatea proposatuko diozu

B): bildutako perretxikoak tortilan jango dituzue.

Aitziber:

Txanogorritxo badoa.

A) Otsoa jatorra iruditu zaio, eta berak esandako bidetik joango da.

B) Ez da otsoaz fidatzen eta beste bidetik doa Txanogorritxo.

Aitziber:

Bitartean otsoa amonaren etxera joan da, bizi-bizi, Txanogorritxori aurea hartuta.

Julio zuk aukeratu behar duzu:

A): amona jan eta bere jantziekin mozorrotzea

B): amonarekin oheratzea.

Aitziber:

Txanogorritxo amonaren etxera iristerako otsoa ohean dago:

Txanogorritxo ezusteko handia hartu duzu otsoa ohean ikustean. Zuk aukeratu:

A): otsorekin hizketan gelditzea, ohe ertzean

B): erre kara negarrez alde egitea

Aitziber:

Julio otsoak ere ez daki zer egin:

A): Txanogorritxo jan

B): elkarrizketa goxo bat izan Txanogorritxorekin

Aurkezlea:

Eskerrik asko, plazer bat izan da,

Bertsolarien agurrarekin uzten zaituztet.

14. AGURRAK

BIDEOA 3: KREDITUAK

VI.3. ERANSKINA. Beharrezko materiala

BEHARREZKO MATERIALA

Elkartetik:

- Moketa
- Aulkiak

Etxetik:

- Erreminta kutxa eta atornilladora
- Bi aldeko zinta
- Ateak
- Zinta gorria
- Zapia eta blusa (**Torrotxo**)
- Katxi bat
- Argazki kamera
- Petisuisa eta sonajeroa
- Metroa, lapitza...
- Raketa

EITBtik:

- Lanpara (**Eitb, Boxeo Federazioa edo Kursaal**)
- Lore sorta
- Balla horia (Herritik bertzela)
- Silleta
- Kotxea

Kursaaletik:

- Tabureteak

Lankutik:

- A eta B viniloak
- Abenturarako kartulinak B5
- Marra gorrietarako kontzeptuak

Extrei erran beharrekoak, paperetara egokitu daitezten:

- | | |
|---|----------|
| - Ikastaroak egiten dituenak: Liburua, pintzelak... | GIZONA |
| - Haurtzaina: | GIZONA |
| - Obrazalea: Katalajeak (¿) | GIZONA |
| - Benidormera 7 hilabetez: Arropa estrabaganteak, bertzea Keler | BIKOTEA |
| - Beti lanean: | BIKOTEA |
| - Kirolari emana: Kiroletako arropa | EMAKUMEA |
| - Lasterketan aritzeko arropa | TALDEA |

VI.4. ERANSKINA. Bertsolariei ariketen oharrak

AITOR MENDILUZE

AGURRA EGAÑA, IGUARAN, LEKUE, ITURRIAGA (AUDIOA) **OFIZIOA IGUARAN-EGAÑA**

Galdera zuzena da.

(EXTRAK) **OFIZIOA LEKUE-ITURRIAGA**

Bi akziotan (extrak eta aitziber) bi aukera sortuko dira.

Aldi berean kontraesana dira biak. Egoerari kantatu

EGAÑA ATZEKOEI

Galdera zuzena da.

(KOTXEAN+AUDIOA) **PUNTUKA-KOPLAKA IGUARAN-LEKUE**

Kotxean zoazte saio batera.

Egoera irudikatzen saiatu behar duzue

ZZIO KANTUA

(AUDIOA+ANTZERKIA) **ITURRIAGA BAKARKA**

Metabertsolaritza da.

Bi saltotan kontatuko zaizu historia: 1 audioan 2 aitziberrek antzerkiz

Ez kantatu berak eskatzen dizuna,

baizik eta ordu laurden horretan burutik pasa zaizuna

Mugimenduak

Hasieran denak fokopean

Agurra kantatu eta aukietara

Kotxea ateratzean: iguaran-lekue kotxera eta iturriaga-egaña barrura

Kotxea amaitzean: iguaran-lekue barrura

Ondoren, Unai barrura eta bakarkakoa amaitzean kanpora

Saio amaieran agurtzera atera

URKO CASADO-ENEKO LAZKOZ

BUELTA BAT SOTO, PAIA, BARTRA, TERREROS, MAIA ETA LABURU

Galdera zuzena da.

OFIZIOA LABURU-BARTRA

Galdera zuzena da.

OFIZIOA MAIA-PAIA (ARGI AUKERAKETA)

Lehenbizi tonoa aukeratu behar duzue, argi bidez.

Positibo aukeratzen duenak argi naranja, besteak grisa.

Gero saiatu gaiari tonu horretatik erantzuten.

OFIZIOA TERREROS-SOTO (EXTRAK)

Ofizioak baldintza bat izango du, oso nabarmena.

(AUKERAKETA) **MAIA BAKARKA**

Bertsogintzako terminoak egongo dira lurrean.

Aukeraketa egin, zein baztertuko zenituzkeen adierazi.

Marra gorriak irudikatuko dituzte lurrean.

Sei aukera egongo dira eta baztertutakoak seinalatu.

Ondoren gaia jarriko zaizu.

ZZIO KANTUA

(EXTRAK) **OFIZIOA LABURU-BARTRA-TERRE**

Zuek zuen hautua adierazi behar duzue,
edo besteak zertan ikusten dituzue

(ABENTURA) **OFIZIOA SOTO-PAIA**

Jolasa da

AGURRAK SOTO, PAIA, BARTRA, TERREROS, MAIA ETA LABURU

Mugimenduak

Hasieran alboko atetik atera

Aulkietan eseri

Buelta bat eta atzeko aulkietan

2zio datorrenean barrura


2zio sartzean aulkietara

Soto eta Paia bi ateen artera

Agurretan denak aurrera

Saio amaieran agurtzen gelditu

VI.5. ERANSKINA. Txanogorritxo



VI.5. ERANSKINA. Material grafikoa

2016 Urtarrilaren 30ean
Donostia

BERTSO EGUNA

12:00 SAIO MUSIKATUA
Kursaal aurreko Picachilla garagardotegian

18:00 EKITALDI NAGUSIA
Kursaaleko Areto Nagusian


21:00 AFARIA eta FESTA
Kursaalen

Autolatzaileak: bertozale elkurtoa, Donostia Uldatzen, Ayuntamiento de San Sebastián, DONOSTIA 2016

Babesleak: kutxa FUNDACIÓ, eitb, ARGIA, GIPUZKOAKO SAGARDOKILEEN ELKARTEA

Laguntzaileak: GIPUZKOA Zer irakurti, Nurea izan, Deia, goztezulo, Hamaika ELKARTEA, EL DIARIO VASCO, euskadi irratia, hala bedi, ataria

www.hertsozale.eus



VI.6. ERANSKINA. EITBrekin bilera

EMISIOAREN BALDINTZAK

- Eguna eta ordua
- Hurrengo eguneko HH laburpena

KONTUAN IZAN BEHAR DITUGUNAK

- Iraupena. Moztu egin dugu
- Ordutegien Kontrola. Pertsonen hautaketa eta Xabi regidore.
- Argiztapena
- ETB ensaioak bazkari aurretik

IDEIA NAGUSIA: ERABAKIAK

- Deitik- kantuan hasiera
- 10 bertsolari. Bi zati: 4-6 banatuta
- Aurkezlea: Aitziber Garmendia (aurkeztu+antzerkia)
- Musika taldea bi aktuazio
- Extrak
- Elementuak
- Bideoak 1 + kredituak AURRETIK PROIEKTATU
- Audioak
- Argiekin jokoak

OHOLTZA PROPOSAMENA/ ARGI PROPOSAMENA

- Karteletik atek eta lanpara bakarrik – atek tela beltzak (ezkutatzeko)
- Paretik ez – tela beltzak eta lurreko argitasuna + albokoak
- Argiztapen orokorra
- Aurkezlea: mugitzen
- Bertsolarien gunea bakarra
- Ateak argiztatu???

ARIKETAZ ARIKETA (GIDOITIK)

KAMAREN POSIZIOAK

ORDUTEGIAK

MATRIKULAK-BAIMENAK

MIRAMONEN BILERA

VI.7. ERANSKINA. EITBren eskaletak

ZER?	ZEIN?							MINUTAJEA	BEREZIAK
TELOIA IREKI							1		
1 AGURRAK	Egaña	Iguaran	Lekue	Iturriaga			4		
AUDIOAK: SAIORAKO DEIAK							2		
2 AURKEZLEA: GAIA	Egaña	Iguaran					1	AUDIO: SAIO GONBIDAPENAK	
OFIZIOA: DEIAREN POZA							8		
3 AURKEZLEA: GAIA							1		
EXTRAK: ZIKLISTA KOADRILA							1		
OFIZIOA: KONTZILIAZIOA,ZIKLISTAK			Lekue	Iturriaga			8	EXTRAK: ZIKLISTA KOADRILA	
4 AURKEZLEA: GAIA	Egaña	I 1b	L 1b	I 1b			1		
ATZEKOEI: ZER ESPERO, KINTADA							7		
5 AURKEZLEA: GAIA		Iguaran	Lekue				1		
OFIZIOA: ZERTARAKO PREST? REALITY							7		
AUDIOA: IRRATIKO DIALA							1	AUDIOA: IRRATIA	
6 PUNTUKA KOTXEAN	Egaña		Lekue				5		
AUDIOA ZUZENEAN: ZZIO							4		
7 BAKARKA: OMENALDIA				Iturriaga			2		
SEJ AULKIAK JARRI							4		
BIDEOA: NON ESERIKO ZINATEKE?							1	ATREZOA: AULKIAK	
8 DENAK: BETE AL DIRA ESPEKTATIBAK?	Laburu	Soto	Terreros	Maia	Paia	Bartra	1	BIDEOA: NON ESERI?	
AURKEZLEA: GAIA							6		
9 OFIZIOA: NAHI DUZUENA EGIN	Laburu					Bartra	1		
AURKEZLEA: GAIA							8		
10 OFIZIOA: TONOA							1		
FOKOEN JOKOA				Maia	Paia		8	FOKOAK: BI TONOAK	
11 OFIZIOA: ELKARRIZKETA BALDINTZATUA		Soto	Terreros				1	EXTRAK: BI UME	
AURKEZLEA: GAIA							8		
EXTRAK: AITONA JUBILATUAK							1	EXTRAK: AITONA JUBILATUAK	
12 OFIZIOA: PERTSONA ETA PERTSONAIA	Laburu				Paia		8		
AURKEZLEA: GAIA							1		
BIDEOA: EUSKARAZ ETBN (OLASAGASTI?)							2	BIDEOA: OLASAGASTI	
13 BAKARKA: PERTSONA ETA NORBERA				Maia			4		
AURKEZLEA: GAIA							1		
14 OFIZIOA: HITZEN TRAZIOA			Terreros			Bartra	8		
AURKEZLEA: GAIA							1		
ARGAZKIAK: MARRAKIZAK							1	ARGAZKIAK: AUKERAK	
15 OFIZIOA: ABENTURA		Soto			Paia		8		
AURKEZLEA: GAIA							1		
ARGAZKIAK: MARRA GORRIAK AUKERAK							8		
16 OFIZIOA: PARRA GORRIAK							1		
17 AGURRAK	Laburu	Soto	Terreros	Maia	Paia	Bartra	6		
							145	20RDU 25 MIN	

ZER?	ZEIN?	MINUTAJ
1	Oholtza beltza. Tabureteak jarriak. Bertsolariak erdian, zirkulu batean Teloia ireki Lanpara jeisten	1
	PIZTU B zonako argia <u>Bapatean</u> PIZTU B zonako argia KANOIAREKIN lagundu (?)	* Hemen bapatean, hemendik aintzinet gradualki
	PIZTU A zonako argia Bertsolariak aurrerantz kantatzera	
1	AGURRAK Egaña uar.ekuurriga	4
	ITZALI B ITZALI A	
2	BELTZAK: Txaloetan bigarren mikroa jarri	
	AUDIO OFF Saiorako deiak PIZTU paretak gradualki	2
	PIZTU C zonako argia / aurkezlea barrura PIZTU D zonako argia PIZTU 1, 2 eta 3 ATEAK AURKEZLEA: Bertsolarien aurkezpena / Txaloak AURKEZLEA: Egaña eta Iguaran deitu PIZTU A	
	GAIA ITZALI C aurkezlea	1
2	OFIZIOA: HAUTATUAREN POZA Egaña uaran	8
	ITZALI A	
3	BEREZIA Lasterkarien argia PIZTU ITZALI 2 eta 3 ATEAK EXTRAK: Lasterkariak atera / lasterkariaren diadema / lasterkariak 1 atetik BEREZIA Lasterkarien argia ITZALI	1
	PIZTU C GAIA PIZTU A ITZALI C	1
3	OFIZIOA: KONTZILIAZIOA Lekuurriga	8
	ITZALI A	
4	Txaloetan mikro bat kendu	

VII. ERANSKINA.

ERREPORTAJEA

Oholtzarako bide aldapatsua

Bertsolaritzan erreferentzia maskulinoak nagusi izan badira ere, geroz eta ohikoagoa da bertso eskoletan ikasleen gehiengoak neskek osatzea. Hala ere, eskolartekotik plazara salto egiteko orduan, hamar neskatik zortzik bertsoa utzi egiten dute. Kasualitateetan sinesteari utzi diotenen badituzte fenomeno hau ulertzeko zenbait teoria. Malen Amenabar, Maialen Akizu eta Izarne Zelaia bertsolariek beraienak azaldu dituzte.

Nerea Ibarzabal Salegi



Maialen Akizu eta Maialen Lujanbio kantuan. Arg: M. Akizu

“Bertsolaritza” aipatzerakoan geroz eta irudi parekideagoak iristen dira denen subkontzientera: Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapelkun, emakumeak haurdun oholtza gainean, neskek bertso eskoletan, gaitegi feminista bertso saioetan... baina gizarteari hain lotua dagoen jarduera kultural batek ezin du gizartearen arazoetatik hain erraz libratu. Malen Amenabar (Larrabetzu, 1994) eta Maialen Akizu (Urretxu, 1995)

bertsolariak dira, beraien hitzetan, “hemezortzi urteen mamuari biziraun diotenak”. Gaztetatik hasi ziren biak bertsoetan, eta eskolarteko txapelketetan ezagutu zuten elkar. “Oso modu naturalean sartu ginen bertsolaritzan. Bizkaiko eskolarteko lehenengo finalean neska gehiago geunden kantuan, adibidez, eta Euskal Herrikoetan ere berdintsu”, azaldu du Amenabarrek. Aurreko belaunaldietako emakume bertsolariek hasieran izandako zailtasunak eta beraienak desberdinak izan direla dio Akizuk. “Gu ez gara hasieratik neska bakarrak izan, baina beste belaunaldi batzuekin hitz eginda nabaritzen zaie nola gaizki pasatu eta sufritzera iritsi ziren oholtza gainean, bakartasunean. Guk bertso udalekuei esker eta kopuruz ere aldaketa bat eman zelako, ezberdin bizi izan dugu hasiera”.

Baina hemezortzi urteen langa pasatzeak beti dakartza eskutik noraeza eta erabakiak hartu beharra. Amenabarren hitzetan, momentu horretan nabaritzen da batzuk bidean geratu direla. “Umetan plazara irteteko modu bakarra eskolartekoak dira,

“Hemezortzi urterekin saioetarako deitzen hasten zaizkizu eta zalantzez beteta zoaz kantura, oraindik ez delako zure terrenoa”

urtean bi saio. Baina bat-batean hemezortzi urte bete eta hori amaitu egiten da. Orduan saioetarako deitzen hasten zaizkizu eta zalantzaz beteta zoaz kantura, oraindik ez delako zure terrenoa". Datu bat gehitu du: bertsoan jarraitu duten bere belaunaldiko neska guztiak eskolartekoetan goiko mailetan ibilitakoak dira –txapelkunak, txapelkunordeak edo finalistak-.

2014ko Bertso Egunak emakume bertsolariak izan zituen ardatz, lehengoak eta oraingoak. "Nesketak" izeneko bideo satirikoen bidez bertso munduko hainbat jarrera matxista bistaratu zituzten, zenbait datu baliagarri emateaz gain; 2013ko Txapelketa Nagusiari dagokionez, 13 neska eta 30 mutilek kantatu zuten, eta 3 neska eta 13 mutil izan zituzten epaile lanetan. Azken hiru urteetan izandako herrialdekako txapelketak kontuan hartuz %21ekoa da emakumezkoen parte hartze kopurua.

Ez da kasualitatea

Zein da, orduan, bertso eskolatan sarri gehiengoa diren emakumeek taularatzeko duten zailtasuna? Galdera horri erantzuten saiatu da Izarne Zelaia (Donostia, 1984) bere Gradu Amaierako Lanetan. Bera ere oso gaztetatik hasi zen bertsoan, etxekoen zaletasuna kutsatuta. Eskolartekoetan eta zenbait sariketatan kantatu izan du, unibertsitate garaian apur bat urrundu zen arte, "bertsotarako talde finko bat ez izateak eta segurtasun faltak eraginda". Generoari buruzko Bertso Egunak zer pentsatua eman zion, ordea. "Afalosteko bideo emanaldian *Non dago Wally?* izenburua zuenak markatu ninduen, eskolartekoen ondoren desagertzen diren neska bertsolari buruzkoak. Eta pentsatu nuen: 'Aiba, ni horien artean nago, ez naiz bakarra!'" Egoeraz jabetu zenean bere burua berriro saiatzera "behartu" zuela dio, eta bi lagun bertsolariaren laguntzarekin heldu zion bertsoari beste behin, txapelketa aitzakia hartuta. "Lanketa pertsonalarekin batera, gradu amaierako lanari heldu nion, neskek eta mutilek jasotzen duten hezkuntza berbera ez dela sinetsita, eta jakinik horrek eragina duela ondoren beren plazaratzeko prozesuan".



Nerea Ibarzabal eta Malen Amenabar txapelketan. Arg: Bizkaiko Bertsozale Elkarte

Irakasle ikasketak egin dituenek, ikasgeletako haurrak izan ziren Zelaiaren lagina; eskolako patioa gizartearen adierazle argia izan daiteke, ulertzeko nor dagoen erdigunean egoteko

"Ikasgeletan ikusi dut neskek espazio gutxiago hartzen dutela eta atentzio gutxiago deitzen duten ekintzetan aritzen direla"

hezita, eta nor ertzetan. "Ikasgeletan edota patioan ikusi dut parte hartzea arautua ez denean neskek espazio gutxiago hartzen dutela eta atentzio gutxiago deitzen duten ekintzetan aritzen direla, nolabait esatearren espazio intimoagoak betetzen dituztela. Parte hartzea arautua denean ere, jendaurrean aritzeko lotsa eta segurtasun falta askotan errepikatu

ohi da”, azaldu du. Oro har, neskak espazio publikora ateratzen direnean epaituak sentitzen direla ikusi du Zelaia, eta norbere buruarekiko segurtasun handia behar dela epaiketa horri aurre egiteko. “Baina segurtasunak ez du esan nahi ondo egingo dutenaren segurtasuna izatea, norbere buruari gauzak gaizki atera daitezkeenaren onarpena eta gaizki egiteko lizentzia ematea ere ezinbestekoak baitira. Hanka sartzeko beldurrik ez duenaren segurtasuna”.

Taularatzeko zailtasunen bilaketa honetan, Nafarroa, Lapurdi, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 18 eta 48 urte arteko 35 emakumeren testigantzak ere jaso ditu. Emakume hauek guztiak inoiz bertsotan bat-batean jendaurrean jardun izan dira baina orokorrean gaur egun praktika hori utzia dute, nahiz eta batzuk gertuko egoera informaletan aritzen diren. “Erantzunen artean jendaurreko jarduna uzteko arrazoiak anitzak dira, baina badira emakume izatearekin harremana duten faktore ugari. Elkarrizketatuen %60k aipatu dituzte beren arrazoiaren artean norbere buruaz segurtasunik ez izatearekin loturiko egoerak: egoera kontrolpean ez izateari beldurra, ridikulu sentrazioa, publikoak pentsa dezakeenari garrantzia ematea, auto-exijentzia handia... Ezaugarriok zuzenki lotuta daude emakumeek jasotzen duten hezkuntzarekin”.

“Bertsolaria naiz”



Izarne Zelaia Gipuzkoako txapelketan. Arg: I. Zelaia

Bat-batean bertsolaritzatik desagertzen diren emakume gazteen fenomenoaz gain, bada aztertu beharreko beste kasu paranormal bat: bertsotan aritzen diren emakume asko ez dira gai beraien burua bertsolari gisa definitzeko. Amenabarrek kontatu du lehengo batean berak baino askoz saio gutxiago dituzten mutil gazte batzuekin kantatu zuela, eta bati “aizu, zu bertsolaria al zara?” galdetu ziotenean, honek baietz erantzun zuela segituan. “Ni pentsakor geratu nintzen.

Zaila egiten zait nitaz hori esatea, legitimitaterik ez baneuka bezala sentitzen naiz”, dio berak. Bertsolaria ote den galdetu izan diotenetan, “ez, bertsoak kantatzen ditut” erantzun izan du. “Tontakeria bat da, gauza bera da!”, dio barrezka.

Akizuk ere tranpa berbera egiten harrapatzen du bere burua, “bai, beno, ibiltzen gara zerbaitetan” bezalako komodinekin erantzuten. Bertso munduko emakumeen topaketak antolatzen ditu Bertsozale Elkarteak urtero, eta urtean zehar bizi izandako esperientziak, mamuak eta pozak elkartrukatzeko dituzte bertan. Gogoan du Akizuk orain bi urteko ariketa bat. “Borobilean jarri eta terapia bat bailitzan, banaka “ni Maialen naiz eta bertsolaria naiz”, “ni Jone naiz eta bertsolaria naiz”... esan behar genuen. Sinestezina dirudi, baina izugarri kostatu zitzaigun”.

Zelaiaren hitzetan, oraindik ere ezaugarri eta funtzio batzuk egozten zaizkio genero bakoitzari, eta horrek badu eraginik neska-mutiek haurtzarotik hartzen dituzten erabakietan, gustuetan edota egingo dituzten ekintzetan. “Bertso eskoletara iristen diren mutilak normalean axolagabeagoak dira, ausartagoak, ez zaie hainbeste inporta gauzak gaizki egitea... Neskak,

aldiz, beti lotsatiago, nabarmentzeko erreparoz... Eta batez ere oso perfekzionistak dira, perfekzionistak autodestruktiboak izateraino". Behin Maialen Lujanbiok esandako hitzak berrestu ditu: "Neskak ez daude ohituta nabarmentzen, hitza hartzen, espazioa okupatzen. Eta bertsoa bada aktibitate bat hori eskatzen duena. Nolabait, ez dagokien eremu batean egotea justifikatzeko modu bakarra da oso oso ondo egitea".

Horren adibide bat eman du Amenabarrek. "Aurtengo Bizkaiko txapelketan zortzi neskak eta 48 mutilek eman dute izena. Baina deigarria da gero finala parekidea izaten dela, lau neska eta lau mutilekin. Beraz, apuntatzera ausartzen garen neskok askoz nibel handiagoa eskatzen diogu gure buruari txapelketan izena emateko, ez dugu arriskatu nahi".

Ez da soilik burua

Historikoki bertsolaritza definitzerakoan bizkortasuna, neurria, doinua eta hitza aipatu izan dira, bertsolaria "buru hegalari" bat bailitzan, gorputzik eta itxurarik gabea. Baina argi dago bertsolariak gorputzak ere badirela, eta oholta gainean norbere burua erakusteko ziurtasun handia izan behar duela pertsonak. Akizurentzat hori da gauzarik "bortitzena". "Bertsolaria oholtzara igotakoan goitik behera aztertu dezake jendeak, bere zapatatik belarritakoraino. Hitzak entzuten dituzte

baina ikusten dutena gorputza da. Emakumeek lehendik baldin baditugu bi begi gu epaitzen –geureak-, imajinatu begi horiek ehunka direnean".

*"Bertsolaria oholtzara
igotakoan goitik behera
aztertu dezake jendeak.
Hitzak entzuten dituzte,
baina ikusten dutena
gorputza da"*

M. Akizu



Miren Amuriza eta Maialen Akizu eskolarteko txapelaldun 2008an. Arg: M. Akizu

Zelaiak dioenez, bertsolaritzan beti gorputz "zutun eta zurruna" irudikatu izan da, itxura indartsukoa. Baina emakumea taularatzearekin batera gorputzari ere erreparatzeko beharra sortu dela uste du. Bertsozale Elkartetik emakume bertsolarientzako "Ahalduntze bertso eskola" sortu zen iaz. Momentuz hamabost emakume elkartzen dira bertan hilean birritan, tartean Akizu bera. Oso esperientzia baliogarria izaten ari da bere ustez, eta askorentzat bertsoetik ez aldentzeko amua izan daitekeela iruditzen zaio. Zelaiak ere azpimarratu du horren beharra: "Bertsolaritza balio maskulinoen baitan eraikia denez, emakumeek parte hartzekotan esparru berriak sortu beharko dira, txapelketez harago lagun giroan bertsoan aritzeko esparruak, adibidez. Emakumeek eurek beren beharren arabera sortutako esparruak izan beharko direla iruditzen zait".

Amenabarrek *klown* ikastaro batean Virginia Imaz *klown*ak bertsolariei esan ziena errepikatu du: “Ni inprobisatzera irteten naizenean, ni bakarrik nago eta badakit zer egin gutxi gorabehera. Baina zuek oholtzara igo eta kantatu egiten duzue, errimatuz, neurtuta eta agian ezagutzen ez duzuen gai bati buruzko iritzia eman behar duzue. Burutik jota zaudete!”. Hori hartu du lematzat ordutik. “Hain zaila da ondo egitea eta hain erraza hanka sartzea... argi izan behar dugu besteen eskubide bera dugula hanka sartzeko”.